

ONATIKO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

OÑATIKO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA



Farapi S.L.
grupo Evidentis

AURKIBIDEA

ABIAPUNTUA SARRERA METODOLOGIA

I/ EGOERA SOZIOEKONOMIKOA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA OÑATIN

1. BIZTANLERIA	
1.1- BIZTANLERIAREN GARAPENA.....	10
1.2- BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA.....	11
1.3- MIGRAZIO MUGIMENDUAK.....	13
1.4- LABURBILDUZ -Biztanleria-.....	18
2. LAN MERKATUA	
2.1.- LAN PRODUKTIBOA.....	19
2.1.1- Langabezia indizea.....	20
2.1.2- Lan Sektoreak.....	27
2.1.3- Gizarte Segurantza.....	29
2.1.4-Lan-balintzak.....	32
2.2- LAN ERREPRODUKTIBOAK.....	36
2.4- LABURBILDUZ.....	41
3. HEZKUNTZA	
3.1- IKASKETA ESKAINTZA	42
3.2- IRAKASLEEN DATUAK.....	43
3.3- ERABILTZAILAK (MATRIKULAZIO DATUAK).....	44
3.4- GENERO IKUSPUNTUA ETA HEZKIDETZA PROIEKTUAK.....	46
3.5- GURASO ELKARTEAK.....	47
3.6- LABURBILDUZ -Hezkuntza-.....	49

II/ UDALAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA

4. ANTOLAKETA POLITIKOA	
4.1- UDAL SAILAK.....	54
4.1.1- Langileen antolaketa.....	54
4.1.2- Langileen mailak eta soldatak.....	55
4.2- UDALARI LOTUTATAKO ERAKUNDEAK.....	56
4.3- LABURBILDUZ -Udalaren funtzionamendu orokorra-.....	58
5. BERDINTASUNA UDALAREN ZERBITZUETAN	
5.1- BERDINTASUNA.....	60
5.1.1- Udal sailekin harremana.....	60
5.1.2- Herriko talde eta elkarteekin harremana.....	60
5.1.4- Sentsibilizazio programak.....	63
5.1.5- Laburbilduz -berdintasun zerbitzua-.....	66
5.2- AUZOAK, LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA.....	67
5.2.1- Genero ikuspegia sailak kudeatzen dituen zerbitzuetan.....	67
5.2.2- Lan ardatzen azterketa.....	67
5.2.3- Laburbilduz.-Auzoak, landa garapena eta ingurumena-.....	72
5.3- ENPLEGUA.....	73
5.3.1- Berdintasuna lanerako irizpide moduan.....	73
5.3.2- Sailak ematen dituen zerbitzuetan berdintasuna.....	75
5.3.3- Laburbilduz -enplegu zerbitzua-.....	77
5.4- EUSKARA.....	78
5.4.1- Genero ikuspegia euskara zerbitzuan eta eskainitako programazioan.....	79
5.4.2- Euskara programak.....	79
5.4.3- Laburbilduz -euskara zerbitzua-.....	82

5.5- HAURRAK ETA GAZTEAK.....	83
5.5.1- Genero ikuspegia programazioan.....	85
5.5.2- Gazteriak eskainitako zerbitzuak.....	85
5.5.3- Proiektu berriak.....	91
5.5.4- Laburbilduz -gazteria zerbitzua-.....	92
5.6- HEZKUNTZA.....	93
5.6.1 -Hezkuntza zentroekin lotura.....	93
5.6.2- Bestelako hezkuntza eskaintza.....	94
5.6.3- Laburbilduz -hezkuntza zerbitzua-.....	98
5.7- HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA.....	99
5.7.1- Genero ikuspegia hirigintza sailean.....	100
5.7.2- Genero ikuspegia lan ardatzen arabera.....	101
5.7.3- Laburbilduz -hirigintza eta lurralde antolamendua-.....	104
5.8- KIROLA.....	105
5.8.1- Genero ikuspegia kirol programazioan.....	107
5.8.2- Laburbilduz -kirol zerbitzuak-.....	109
5.9- KULTURA.....	110
5.9.1- Genero ikuspegia kultur programazioan.....	111
5.9.2- Kultur etxeko zerbitzuak.....	111
5.9.3- Santa ana aretoa.....	114
5.9.4- Jaiak.....	115
5.9.5- Kultur eragileekin harremanak.....	117
5.9.6- Laburbilduz -kultura zerbitzuak-.....	118
5.10- ONGIZATE ZERBITZUAK.....	119
5.10.1- Genero ikuspegia ongizate zerbitzuan.....	120
5.10.2- Zerbitzuak eta erabiltzaileak.....	120
5.10.3- Laburbilduz -Ongintza zerbitzuak-.....	131

III/ HERRI MUGIMENDUA. ELKARTEGINTZA ETA BESTE ERAGILEAK

6. ELKARTEAK ETA TALDEAK.....	
6.1- OÑATIKO TALDEAK.....	133
6.2- GENERO IRIZPIDEAK TALDEETAN.....	135
6.3- PARTAIDETZA MEKANISMOAK.....	139
6.4- LABURBILDUZ -Herriko elkarte eta taldeak-.....	141

IV/ ONDORIOAK

ABIAPUNTUA

Urteetako mugimendu feministaren borrokaren eta lanaren ondorioz, emakumeen bazterkeriaren gaia agenda politikoan txertatu da, baita tokiko erakundeetan ere.

Oñatiko udal gobernuak parekidetasuna estrategikotzat du. Arlo hau lantzeko batzorde propioa osatu du, gaia bere sakontasun eta zeharkakotasun osoan landu ahal izateko eta konpromiso osoa du desoreka egoerak irauli eta berdinen arteko gizartearen eraikuntzan beharrezko baliabideak jarri eta politika zehatzak martxan jartzeko.

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako diagnostikoa, ekin berri dugun bidearen oinarria izango da, gure herrian emakumeek lan merkatuari, partaidetza politikoari, etxeko lanen banaketari, emakumeen aurkako bortizkeriari, pobreziari eta abarri lotutako diskriminazioa ahalbideratzen duten mekanismoak detektatzeko baliatuko duguna eta berauek eraisteko plangintza egiteko oinarri izango dena.

Parte hartzeko mekanismoen bidez, askotarikoak izan dira Oñatiko gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren egoeraren argazki hau osatzen lagundu duten herriko eragileak eta bide batez lerro hauen bitartez norbanako eta eragile guztien laguntza eskertu nahi du Oñatiko Udaleko Berdintasun sailak.

Udal gobernuak, diagnostiko oinairri hartuta, lan honen ondorioz detektatu diren lan esparruetan eragin ahal izateko datozen urteetarako plan integral bat jarriko du martxan, etorkizuneko gizarte orekatua eraiki bidean erakundeetatik har daitezken neurri guztiak hartuz eta herriko talde nahiz eragileekin harremana eta elkarlana sendotuz.

SARRERA

Oñatiko Emakume eta Gizonen egoeraren diagnostikoa esparru desberdinetako adierazleak eta pertzepzioak aztertu izanaren emaitza da. Txosten honen helburua, udalerrian ematen diren emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunak identifikatzea da, Udalari ekintza-planak eta programak diseinatzerakoan genero ikuspegia txertatzeko informazioa ahalbidetuz. Halaber, gizarte eragileei zein hiritarrei emakumeen eta gizonezkoen arteko egoeraren berri ematea bilatzen du.

Diagnostiko hau, otsailaren 18ko 4/2005 legearen, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunaren aldeko legearen, onarpenaren (EHAA 02/03/05) inguruan kokatu behar dugu. Izan ere, kualitatiboki oso pauso garrantzitsua izan da berdintasun politikak bultzatzeko bidean. Legeak, kudeaketa tresnen definizio eta sistematizazioa eginez, berdintasun planak eta diagnostikoak egiteko egitura orokor bat zehazten baitu. Diagnostiko honen egitura, Emakunderen V. berdintasunerako Planarekin uztartzeko pentsatua izan da.

Diagnostiko berdintasun batzordearen lehen ekimena da eta etorkizunerako lan-ildoak ezartzeko abiapuntua da:

Oñatiko gizon eta emakumeen errealitatearen ezagutza sakona lortzea, arazoak identifikatzea, hauei aurre egiteko estrategiak ebaluatzea eta gizon-emakumeen berdintasunean aurrera egiteko oinarrizkoak diren esku-hartze eremuak definitzea da helburua.

- Udal baliabide, azpiegitura eta zerbitzuetan dauden ezberdintasunak zehaztea eta oinarrian dauden arazoietan sakontzea.
- Oinarrizko eskubideetan (parte-hartze soziopolitikoak, erabakitze eskubidea, etab.) dauden ezberdintasunak identifikatzea eta aztertzea.
- Lanean eta esparru ekonomikoan, lan produktiboari zein erreproduktiboari dagokionez, dauden ezberdintasunak identifikatzea eta hauen inguruan hausnartzea.
- Hezkuntza arloan dauden ezberdintasunak topatu eta aztertzea.
- Herriko elkarte eta gizarte eragileen antolaketan eta gauzatzen dituzten ekintzetan ezberdintasunak topatu eta aztertzea.
- Prozesuan zehar Udal arduradun eta teknikariak eta herriko eragile ezberdinak sentsibilizatzea.
- Oñatiko I. Berdintasun Planerako abiapuntua izatea.

METODOLOGIA


Berdintasun diagnostikoa egiteko lanak lau fase izan ditu: lehen fasean iturri dokumentalak aztertu dira (datu kuantitatiboak, memoriak, informeak eta abar.), bigarrenan, landa lanean oinarritua informazioa kualitatiboa bildu da, hirugarren fasean datu kualitatibo zein kuantitatiboak elkar gurutzatu eta aztertu dira eta azkenik, laugarren fasean txostena idatzi da.

Datuen bilketarako iturri desberdinak erabili dira. Sexuaren arabera, datuak berezita jasotzeko ahalegin berezia egin da. Kasu batzuetan, hori lortzea ezinezkoa da. Izan ere, datuak jasotzeko sistema askotan ez dira bi sexuak bereizten eta ondorioz, datuok ez dira biltzen.

Landa lanean, informazio kualitatiboa lortu da. Oñatiko arlo desberdinen inguruko iritzi, ikuspuntu eta pertzepzioak ezagutzeko oso interesgarria da. Zenbaki bihur ezin daitezkeen hainbat aspektu jasotzeko balio du: sentsibilizazio maila, inplikazioa, asetasun edo kontzientziazio maila, besteren artean.

Analisia egiteko aurreko bi faseetan lortutako informazioa gurutzatu da. Eta informazio hau eskualdeko eta lurraldeko datuekin konparatu da, Oñatiko errealitatea hobeto ulertzeko, testuinguru zabalago baten barnean.

Txostenaren idazketan, bildutako informazioa erabilerraza izatea eta egin daitezkeen ekintza planetarako erabilgarria izatea bilatu da. Horregatik, atal bakoitzerako aukera eta hutsuneak zerrendatu dira txostenaren azken partean.





**EGOERA SOZIOEKONOMIKOA:
EMAKUMEEN ETA
GIZONEN EGOERA
OÑATIN**



1- BIZTANLERIA

Oñatiko biztanleria aztertzea, herrian zenbat emakume eta gizon bizi diren jakitetik haratago, berauek zein ezaugarri eta behar espezifiko dituzten jakiteko baliagarria da. Izan ere, ezinbestekoa da Berdintasun diagnostikoaren lehen pausua oñatiar jendartearen argazki orokorra azaltzea. Beraz, Oñatiko biztanleriaren ezaugarri orokorrez aparte, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuko ditugu, eta migrazio-mugimenduak aztertuko ditugu, migrarien jatorria, sexua eta adinaren arabera.

1.1- BIZTANLERIAREN GARAPENA

Oñatin populazioak gora egin du azken hamarkadan. 2012an 11.214 pertsona zeuden erroldatuak. 2001 urtetik gorakada nabarmena jasan duela esan daiteke bada. Hazkunde hau ez da modu progresiboan eman, ordea. Azken sei urtean gertatu da aldaketa. 2002 eta 2006 artean biztanle kopurua mantendu egin zela esan daiteke: datuak modu gordinean ikusirik hazkunde negatiboa izan bazen ere, hain da txikia aldea (%-0,08ko hazkundera), ezin daiteke esan biztanle kopuruan aldaketarik egon zenik. Bestelakoa gertatzen da aldiz 2006 eta 2012 urtean. Hazkundera nabarmena da, 464 biztanle gehiago ditu Oñatik (%4,32ko hazkundera). Bilakaera horretan, bereziki bi faktorek eragin dute. Batetik, haur gehiago jaio dira, eta bestetik, beste udalerrri eta lurraldeetatik jendea jaso du: jaiotze tasaren joera eta immigrazio fenomenoak eman dira.


URTEA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
2012	5637	5577	11214
2006	5408	5342	10750
2001	5382	5377	10759

1. taula: Oñatiko biztanle kopurua sexuaren arabera (2001-2012).

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Biztanleriaren erdia emakumeak eta beste erdia gizonezkoak direla esan ohi da. Eta hala da gutxi gora behera. Oñatiko kasuan zehazki, biztanleen %50,27 emakumeak dira eta %49,73a dira gizonezkoak.




1. grafikoa: Oñatiko biztanleak sexuaren arabera. 2012 (%).

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi. S.L.

1.2- BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA

Demografia aztertzaileek badakite, ohikoa dela gizonezko gehiago jaiotzea emakumezkoak baino. Adinean aurrera joan ahala ordea, emakumeen kopurua handiagoa izan ohi da. Gizonen hilkortasun tasa handiagoa delako gertatzen da hori. Izan ere, gizonezkoek arrisku jarduera gehiago egiten dituzte gure gizartean, eta horrek heriotza arriskua ere handitu egiten du. Ez da harritzekoa beraz, Oñatiko kasuan ere adinean aurrera egin ahala emakumeen kopuruak gora egitea portzentajetan, gizonezkoen beherakadaren ondorioz. Joera hori aldatzen doan arren, oraindik ez da antzematen datuetan. Emakumeak, orain gutxi arte edota oraindik ere gizonezkoek egiten zituzten jardueretan partaide izaten hasi ziren, hasi dira. Eta horrek, lehen baino emakume gehiago arriskuan egotea ekartzen du. Autoa gidatzea edota drogen kontsumoa dira arrisku jarduera horietako batzuk adibidez. Bada beste arrazoi bat ere: emakumeen bizi itxaropen tasa handiagoa da gizonezkoena baino; hau da, gizonezkoak emakumeak baino lehenago hiltzen dira batzuek besteak beste erreparratuz behintzat. Oñatiko kasuan hau nabarmen ikusten da.



2. grafikoa: Oñatiko populazio piramidea. 2012.
 Iturria: Oñatiko Udal.
 Egilea: Farapi S.L.

ADIN TARTEA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
0 – 4	270	293	563
5 – 9	261	292	553
10 – 14	238	250	488
15 – 19	226	260	486
20 – 24	225	240	465
25 – 29	281	320	601
30 – 34	388	370	758
35 – 39	431	450	881
40 – 44	370	428	798
45 – 49	432	449	881
50 – 54	401	405	806
55 – 59	376	404	780
60 – 64	352	360	712
65 – 69	323	313	636
70 – 74	229	212	441
75 – 79	285	206	491
80 – 84	247	181	428
85 <	302	144	446

2. taula: Oñatiko biztanle kopurua sexuaren arabera. 2012.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Oñatiko populazio piramideak, biztanleriaren zahartze prozesua erakusten du. Izan ere, jaiotzen den haur kopurua aurreko belaunaldietakoa biztanle kopurua baino txikiagoa da. Horrek esan nahi du, joera honek jarraituko balu, urte gutxi barru, biztanleen gehiengoak zaharra izango dela, eta lanerako adinean egongo den biztanle kopurua talde hau baino txikiagoa.

Kontuan izan behar da, adineko asko dituen gizarte batean, hauek bazterketa egoera jasateko aukera handiagotu egiten dela. Are gehiago emakumeen kasuan. Izan ere, emakumeek pobrezia jasateko arrisku handiagoa dute, gure gizarteko ekonomia patriarkatuan oinarritua dagoelako; hau da, gizarte segurantzaz gizonenak kotizatu dute urteetan, eta emakumeek, kasu gehienetan, egindako lana soldatapekoa ez denez izan, erretiratzean ongizate estatuak ez ditu maila berean babesten. Hortaz, pentsatzekoa da Oñatiko kasuan adineko emakumeen zaurgarritasun maila gizonena baino handiagoa dela, eta horregatik, planak egiterako garaian, egun eta etorkizunean aspektu hau kontuan hartzea oso garrantzitsua da.

Dena den, kontuan izan behar da joerak aldatu daitezkeela: migrazio mugimenduek zein jaiotze eta hilkortasun tasek piramidea itxuraldatu egingo dute etorkizunean. Azken hamarkadan jaiotze tasak zertxobait gora egin duela ikus daiteke. Azken urteetan haur gehiago dago herrian, 1980 eta 1990 hamarkadetako joera irauliz.

1.3- MIGRAZIO MUGIMENDUAK


Migrazio mugimenduak ohikoak izan dira historian zehar, giza-talde desberdinen artean. Euskal Herrian ere, migrazioak kanporanzko zein barneranzko joera izan du, testuinguru sozioekonomiko eta politikoa tarteko. XX. mendearen hasieran euskaldunak Amerika aldera joaten baziren, mendearen erdialderako Euskal Herria eta batez ere Gipuzkoa eta Bizkaia, biztanleria jasotzen hasi ziren. Espainiar Estatuko hainbat probintzietako jendearentzat, lan egiteko jomuga bihurtu ziren lurraldeok, migrazio saldoa positiboa izatera pasaz. Egun, migrazio saldoak positiboa izaten jarraitzen du, baina jasotzen diren immigranteen soslaiak aldatu da. Migrazio transnazioaletan kokatzen den migrazio mugimenduaren tokiko da gure gizartea. Teknologikoki Euskal Herria bezain aurreratuak ez dauden lurraldeetako edota pobretuago dauden lurraldeetako kideak dira immigratzen dutenak, oro har. Migrazio olde hauetako bakoitzak ezaugarri desberdinak ditu, bai migratzailearen ezaugarriei dagokienez baita migrazio prozesuari dagokienez ere. Genero-patroiei dagokienez ere desberdintasunak antzematen dira. Izan ere, 50. hamarkadan immigrazioa familian ematen bazen eta gizona lanera joaten bazen emakumea etxeko lanez eta haurren zaintzat arduratuz, egun ezin daiteke esan immigrantearen profil bakarra dagoenik. Dena den, jatorriaren arabera ere edukak bereiz litezke. Jatorrien arabera, migratze prozesua hastearren arrazoiak partekatzen dituzte; baita migrazio eta honen ostean bizitzeko modu antzekoa ere. Baina migratzaileak diren emakumeen errealitatea anitza da.

Migrazio saldoa positiboa da azken urteetan Oñatin. Hau da, Oñatitik kanpora bizitzera joan direnak eta beste nonbaitetik Oñatira bizitzera etorri direnak kontuan hartuz, gehiago ira etorritakoak joandakoak baino.



1. Irudia: Oñatiko kaleak.

Egilea: Farapi S.L.




3. grafikoa. Oñatiko migrazio saldoa. 2001-2010.

Iturria: Eustat.

Egilea: Farapi S.L.


Oñatik 1993an jaso zuen immigrazio gutxien (37 pertsona) azken 20 urteetan. Orduetik, immigrazioaren hazkundera nabarmena izan zen. 2008an jaso zuen gehien (160 pertsona). Joera hori aldatuz doala dirudi, alabaina. Demografia azterketen arabera (2012), emigrazioa asko hazi da eta inmigrazioa berriz moteldu krisi ekonomikoaren ondorioz. Estatistika Instituto Nazionalaren (INE) arabera, 2012ko lehen seihilabetekoan 24.098 pertsonak Hego Euskal Herria utzi dute eta kanpora joan dira bizitzera. Horietatik %85,04 jaiotzez atzerritarrak ziren; %14,96a zen jaiotzez Euskal Herritarra. Horrek erakusten du, mugitzeko joera handiago dutela lehendik ere immigranteak izan zirenek. Emigrazioa asko ari da hazten eta baliteke, Oñatiko kasuan ere hori agertzea (datuak falta dira hori baloratzeko). Inmigrazioaren eta emigrazioaren dutenen ezaugarriak eta genero harremanek horretan nola eragiten duten ezagutzeari interesgarria litzateke.



4. grafikoa: Oñatik jasotako inmigrazioa urtearen arabera. 1990-2010.


Iturria: Eustat. Egilea: Farapi S.L.

Oñatiko biztanleriaren % 5,15a estatuar espainitik kanpo jaiotakoak dira. Horietatik gehiengoa Amerikan jaio da (%55,74); Europako beste herrialdeetan jaiotakoek jarraitzen dituzte (%26,41). Asian (%9,84) zein Afrikan (%7,83) jaiotakoak gutxiago dira eta bada Ozeanian jaiotakorik ere (%0,18).



5. grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaiotako Oñatiko biztanleak jaiotako lurraldearen arabera. 2012.
 Iturria: Oñatiko Udala.
 Egilea: Farapi S.L.


Leku batetik edo bestetik immigratu, migrazio arrazoia nahikoa antzekoa izan ohi da. Aldiz, migratzeko modua eta prozesua zeharo desberdina da. Errealitate oso desberdinak dituzte atzean. Amerikako migratzaileak askotan emakumeak izan ohi dira. Aldiz, Asiatik edo Afrikatik emigratzen dutenen gehiengoa gizonezkoak dira. Oñatiko kasuan Amerikan jaio eta Oñatin bizi direnen %58,82a emakumeak dira. Afrikan jaioen kasuan berriz, gizonezkoak gehiengoa dira (%67,44). Eta antzekoa da Asian jaiotakoena ere (%68,52).



6. grafikoa: Oñatiko biztanleak jaiotze lurraldearen eta sexuaren arabera. 2012.
 Iturria: Oñatiko Udala.
 Egilea: Farapi S.L.

Euskal Herriko emakumeak etxetik kanpora lan egiten hasi zirenetik, etxeko ardurak eta umeen zaintza soladapeko langileen esku egoteari pasatu zen; gainera, Europako mendebaldeko zahartze prozesua dela eta, adineko pertsonen zaintza ere familiaz

kanpoko pertsonen gain gelditzen da. Besteen zaintza erabat feminizatuta eta prekarizatuta dagoen sektorea izanik, emakume migrariak dira sektore hauetako langile nagusiak. Zerbitzu hauen eskariari Hego Ameriketako emakumeek erantzuten diete neurri handi batean, arrazoi kultural medio. Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala Oñatin erroldatuta dauden nazioarteko emakume etorkin gehienak Ameriketatik etorritakoak dira. Dena den, Afrika eta Asiar jatorria duten emakumezkoen kopurua hazten doa, eta beraz, garrantzitsua litzateke udalarentzat kolektibo honen beharrak ezagutzea. 7.garren grafikoan agertzen den bezala, 31 eta 40 urte bitartekoak dira emakumezko etorkin gehienak, eta beraz, lan egiteko adina aproposenean daude.




7.grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaio eta Oñatin erroldatutako emakumeak kontinentearen eta adinaren arabera. 2012.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi. S.L.

Gizon migrarien eskaria, ordea, industria eta eraikuntza moduko sektore maskulinizatuetera zuzentzen da. Hurrengo taulan ikusiko dugun moduan, jatorri aldetik anitzagoak dira, gizona etxetik kanpo soldataren truke lan egitearen ideia askoz orokortuago baitago herrialde desberdinetan.



8.grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaio eta Oñatin erroldatutako gizonezkoak kontinentearen eta adinaren arabera. 2012.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Migrazioaren generizazioa ulertzea ezinbestekoa da genero ikuspegiko politika egokiak aurrera eramateko; izan ere, migrazio-prozesu bakoitzak bere ezaugarri propioak dituen arren, jatorrizko herrialdeak eta sexuak kontuan hartuz, ezaugarri amankomunak aurki ditzakegu. Horregatik, emakume migrarien inguruko ezagutza ezinbestekoa bilakatzen da.

1.4- LABURBILDUZ -Biztanleria-

AHULGUNEAK

-Biztanleriaren zati handi bat zaharra da. Horrek esan nahi du zaintzarako baliabideak ugaritu egin beharko direla. Zaintza emakumeen lantzat hartua izan da.

-Jatorri desberdinetako pertsonak bizi dira Oñatin, eta hauek batzutan gizarte sare sendoak ez dituztenez, bazterketa arriskua jasateko aukera gehiago dituzte; baita diskriminazio egoerak ere. Emakumeen kolektiboa gainera zaugarriagoa da.

INDARGUNEAK

-Biztanle kopuruak gora egin du azken hamarkadan.

-Jatorri desberdinetako biztanleak daude Oñatin. Elkar-ezagutzak aberastasuna ekar dakioke herri bizitzari.

ARRISKUAK

-Ez da topatu.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Biztanleak herrian mantentzeko ahalegina egin. Horrek baliabide gehiago edukitzeko aukera ematen du besteren artean berdintasuna sustatzeko bitartekoak jartzeko.

-Gizonezkoak zaintzaren garrantziaz eta erantzunkizunaz kontzientziatzeko kanpainak egin.

-Jatorri desberdinetako pertsonen arteko elkarezagutzarako guneak sortu: integrazioa oso garrantzitsua da gizarte sareak sortu eta babes eremuak lortzeko. Modu horretan, berdintasunaren gaia landu daiteke, eta arazoari aurre egiteko kontzientzia sortu, erantzunkizuna gizarte osoarena bezala lantzeko aukera emanaz.

2- LAN-MERKATUA

Berdintasun diagnostiko batean, lanaren esparruan emakume eta gizonek bizi duten egoera aztertzea beharrezkoa da. Arlo hau oinarrizkoa elementua da pertsonen gizarteratzea eta autonomia ekonomikoa bermatzeko; horrela diote emakumeen eskubideen alde egiten duten erakunde eta eragile guztiek (haien artean Emakundek). Lanaren esparruan gizonezkoen eta emakumeen artean desberdintasun nabariak topa ditzakegu. Soldatan ez ezik, lanaren aspektu desberdinetan topatzen dira desberdintasunak: lan sektoreetan, kontratu motetan, enplegatze zifretan, etab.. Hainbat adierazlek agerian uzten dute hori.

Lanaz hitz egiterakoan, lana bere zentzurik zabalenean ulertu behar da. Produkzio-lana batetik, eta ugalketa edo bizitzari eusteko lana bestetik. Produkzio lana lan ordaindua izango litzateke, eta ugalketa edo bizitzari eusteko lana berriz, egunerokoak diren eta ordaindu gabe egiten diren zereginak lirateke, hala nola, zaintza, janaria prestatzea, garbiketa, etab. Oso garrantzitsua da lanaren bi arlo hauek kontuan hartzea. Izan ere, urteetan zehar lan hauek genero bati ala besteari egotzi izan zaizkio: gizonezkoen lan ordaindua eta emakumeen etxeko lanak eta zaintza. Emakumeak lan merkatura salto egin ahala, aldaketak eman dira. Baina emakumeek zein gizonek denbora bera eskaintzen al diete lan produktiboari? Eta zer gertatzen da ugalketa lanekin?

Lanaren inguruko atal hau bi atal nagusitan banatzen da; aipatu berri ditugun bi lan mota horien arabera alegia. Lan mota horietako bakoitzean zerk eragiten duen ezagutzeko faktore desberdinek nola eragiten duten aztertzen da langabezia egotea (kontratu motaren eragina, lan baldintzena, etab.).

Gizon eta emakumeen arteko parekotasuna lortzeko, lanaren esparruan -lan produktiboan zein erreproduktiboan- berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzea beharrezkoa da. Udalak lan-produktiboan arloan zein erreproduktiboan dagokienez, modu zuzenago edo zeharkakoagoan, esku-hartu dezake. Helburua lanaren esparruan eragin ahal izateko estrategiak detektatzea ere baita.

2.1.- LAN PRODUKTIBOA

Sarreran esan bezala, lan produktiboetan, emakumeen parte hartzea asko hazi da azken bizpahiru hamarkadetan. Kontuan izan behar da, lehen gizona zela etxetik kanpora lanera joaten zena, eta baserrian lan egiten zutenen kasuan ere, gizonezkoa zela kotizatzen zuena, hau da, lan ordainduaren truke aritzen zena. Gizarteak zein ekonomiak -merkatuak zein lan munduak- aldaketa nabarmenak jasan izan ditu ordea 70. hamarkadaz gero. Horien artean emakumeen lan-produktiboetara munduratzeari dugu. Aldaketa hau, Emakundek argitaratutako *Desigualdad en la trayectoria y situación profesional de las mujeres en la CAE. Coste relativo de la pérdida de talento femenino* txostenean ederki


ikusten da¹. Bertan jasotzen da, 1985etik 2007ra emakume lagileen portzentajea %28 izatetik %42,1 izatera pasatu zela, hau da %14,1 hazi zen. Igoera nabarmena den arren, oraindik gehiago dira lan-produktiboa egiten dutenen artean gizonezkoak (%65).

Lan-pruduktibodun pertsonen artean sexuen arabera banaketaz gain, beste zenbait adierazlek desberdintasun horiek agerian uzten dituzte: langabezia indizea, lan-sektoreen arabera banaketa, gizarte segurantzako kotizatzea ala ez eta nolakotasunak, eta lan-baldintzak.

2.1.1- LANGABEZIA INDIZEA

Langabezia neurtzeko modu desberdinak daude. Normalean langabezia erregistratuaren datuak erabiltzen dira, eta honenbestez, hori bera erabiliko dugu txosten honetan ere langabeziari erreferentzia egiten diogunean. Langabezia erregistratua, langabezia dauden eta enplegurako administrazio publikoetan izena emanda daudenen kopuruaren arabera da. Langabezia modu zabalagoan hartuta, okupatua ez dagoen biztanleria aktiboak osatuko luke. Baina lehenengoa erabili ohi da, kuantifikagarria delako. Dena den, kontuan hartu behar da, langabezia egon ez arren, enplegurako administrazio publikoetan izena eman daitekeela. Hauek ez dira kontuan hartzen langabezia erregistratu moduan.

Oñatiko populazioaren %48,26a biztanleria aktiboa zen 2010ean. Hau da, 16 urtetik 65 urtera bitartekoak ziren eta lan egiteko moduan 5.248 pertsona zeuden. Horietatik %93,73a lanean ari ziren, eta % 6,27 langabezia zeuden. Langabezia indizea Gipuzkoako baino zertxobait txikiagoa zen.



9. grafikoa: Biztanleria lan jarduerarekiko erlazioaren arabera. 2010eko urtarrilaren 1ean. (%).

Iturria: Eustat.

Egilea: Farapi S.L.

Kontuan izan behar da, Oñati langabezia txikiko zonaldea izan dela. Industria sektore indartsu bat duen udalerrria da, eta ondorioz landunen kopurua oso handia izan da. 2010erako 2008an hasitako krisi ekonomikoaren ondorioak antzematen hasi ziren, ordea. Langabezia tasa hazi egin zen (2006an %4,69koa zen). Erabateko enplegatze tasa,

1 EMAKUNDE (2010) *Desigualdad en la trayectoria y situación profesional de las mujeres en la CAE. Coste relativo de la pérdida de talento femenino*. Instituto Vasco de la Mujer.

WEB orrian kontsultatu liteke:

http://www.emakunde.euskadi.net/u7220010/eu/contenidos/informacion/cifras_ant/eu_emakunde/a

langabezia %3an dagoenean lortzen dela esaten da; Oñati ez da zenbaki horietatik hurrun ibili.


Krisia hasi zenetik, langabezia tasak zertxobait gora egin duen arren, Gipuzkoako lurraldearen aldean hobeto eutsi dio. Udalerrian zein eskualdean, industria sare indartsua izatearen ondorioa da hori. 2012ko ekainean, Oñatiko langabezia tasa % 7,80koa da (438 pertsona zeuden langabezian), Gipuzkoan %12,60koa den bitartean.




“Kooperatiba potoloak daude, enpresa pribatuak, oso inportanteak eta orain arte zortea izan dugu ez dela itxi enpresa esanguratsuren bat”.
-Enplegu teknikaria-

2. Irudia: Oñatiko industria.
Iturria: Grupo Ulma.

Kooperatiba handiak zein bestelako enpresa pribatuak daude, eta hauen inguruko enpresa txiki nahiz ertainek krisia nabaritu duten arren ez dute beherakada nabarmenik jasan. Ondorioz, langabezia indizea ez da lurraldeko beste lekuetan bezainbeste igo.



10. grafikoa: Oñatiko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboaren lan egoera. 2010eko urtarrilaren 1ean.
Iturria: Eustat.
Egilea: Farapi S.L.



11. grafikoa. Oñatiko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboaren lan egoera. 2012ko ekainean.

Iturria: Eustat.

Egilea: Farapi S.L.

Oñatin langabezian daudenen ezaugarrietan arreta jarritz gero, gehiengoa emakumezkoak direla ohartzen gara. Krisiaren aurretik zein krisiaren ostean, emakumeek lan merkatuan sartzeko aukera gutxiago dute. Oñatin gizonezkoen %6,1a langabezian dagoen bitartean, emakumeetan %9,6a dago langabezian (2012ko ekainean). EAEn, ordea, emakumeen %15,33a eta gizonen %13,89a (2012ko uztailan).

Langabezian dauden oñatiarren artean, %59,36a emakumeak dira, eta %40,64 gizonezkoak 2012an, Gipuzkoan baino emakume langabetu portzentai handiagoa izanik (Gipuzkoan langabetuen %52,43 dira emakumezkoak eta %47,57 gizonezkoak).

Langabeziaren bilakaera historikoan erreparatuz hurrengo datuak azaltzen zaizkigu: 2009an %52,96 emakumeak, %47,04 gizonak; 2006an %30,18 gizonezkoak eta %69,81 emakumeak. Oñatin, beraz, langabezian dauden emakume eta gizonen portzentaia EAEn baino altuagoa da eta baliteke honen atzean lan-sektoreen generazioa egotea. Izan ere, krisi ekonomikoak ez du Oñatiko sektore industrialak hainbeste astindu, eta beraz, gizonen langabezi-tasa ez da beste eskualdeetan beste murriztu.

Gizon eta emakumeen enplegatze eta langabezia tasak aztertzerakoan, datuok faktore desberdinek eragiten dituztela kontuan hartu behar da. Izan ere, horretan eragiten dute udalerriko eta eskualdeko lan sektoreen espezializazioak zein hauen kontratazio ohiturak (hala nola, kontratazio denboraldiak, kontratazio baldintzak, kontratatutako pertsonen perfila, etab.). Sektore desberdinetako enpresek, emakume edo gizon gehiago hartzeko joera izaten dute, eta baita urteko denboraldiaren arabera kontratu gehiago edo gutxiago egitekoa ere. Nekazari, arrantzale edo turismo sektoreetan espezializatutako guneetan nabari da urtean zeharreko aldaketa hori (uda garaian ostalaritzarako emakumeak kontratatzen dira esate baterako kostaldeko herrietan, eta erriberan berriz, mahats bilketarako gizonak kontratatzen dira). Oñatin ere bada, denboraldikako kontrataziorik.

Natra Zahor enpresak, emakumeak kontratatzen ditu denboraldi baterako. Horrek, emakumeen langabezia tasa jaitsi dezake sasoi horietan, baina ez da denbora luzerako lana eta honenbestez kontuan hartu behar da emakumeen enplegatze tasa aztertzerakoan.



“Zahor txokolate fabrika, orain Natra denak, turroiaren eta bonboiaren denboraldirako adibidez, emakume pila kontratatzen ditu. Eta hori langabezia datuen irakurketa egiterakoan kontuan izan behar da, datua bera desbirtuatua egoten baita”. **-Enplegu teknikaria-**

3.irudia: Natra zahor enpresa.


Langabezia indizeaz gain, interesgarria da lanpostuen ezaugarriak ezagutzea. Hau da, enpleguak zein lan baldintza dituzten ezagutzea. Honen arabera, langabezia handitzeko arriskua ere handiagoa edo txikiagoa izango baita, eta honekin batera generoaren arabera desberdintasunik ba ote dagoen aztertzeko; emakumeek dituzten lan moten arabera arrisku handiagoa edo txikiagoa duten ezagutzeko. Gizonezkoen baldintzak oro har, gure gizartean, egonkorragoak izan ohi dira. Kontratu finkoa edo aldi baterako kontratua izateak, lanaldi osoa edo partziala izateak, gizarte segurantzara izandako afiliazio motak edota soldatak eragiten dute horretan.

2012ko ekaineko datuetan arreta jarriz, langabezian emakume gehiago zeuden, eta ia adin tarte guztietan nabaritzen da hori. Salbuespena, 25 urtez azpikoena da, eta esan daiteke datu hori ez dela oso errepresentagarria, adin horretarako gazte gehienak ez direlako lan-munduratu eta izena emandakoen kopurua ez delako oso handia. Izan ere, ohikoa da eta batez ere emakumeek ikasten jarraitzea adin inguru horretara arte, unibertsitate ikasketak gehienetan, eta enplegu zerbitzu publikoetan izena eman gabe egon ohi dira, lanean hastea ez delako sartzen berehalako beren helburuen artean. Gizonezkoen artean, lanbide heziketa ikasteko joera handiagoa izan ohi da, eta 22 urteren bueltan lan-munduratzeko erabakia hartzen da. Ondorioz, langabezia erregistratua adin horretan handiagoa da, langabezia eskatzaileen artean gehiago direlako gizonezkoak.

Beste datu esanguratsu bat 60 urteak paseak dituztenen artean gertatzen da. Kasu honetan emakume askoz ere gehiago daude langabezian erregistratuak gizonezkoen aldean. Hiru faktorek eragin dezakete horretan. Batetik, gizonezkoek, 2011ko lan erreformara² arte bederen 60 urte betetzearekin aurre-erretiroa hartzen zutela, eta

2 27/2011 LEGEA, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantza Sistemaren gaurkotzeari, egokitzeari eta eta berritzeari buruzkoa, BOE-n argitaratua 2012ko abuztuaren 22an, 184.znbk.

honenbestez beren lan jarduna alboratzean, lan-eskatzaille izateari uzten ziotelako. Bestetik, adin tarte horretan dauden emakume askok 65 urtera arte lanean jarraitzeko erabakia hartzen duelako, iraganean gizarte segurantzian kotizatu ez eta erretiratzean diru-sarrera hobekak izateko. Gainera, 52 urtez gorako emakumeek prestazio eta zenbait kasutan baldintza bereziak jasotzen dituzte enplegu-administrazio publikoetatik, zaurgarritasun handiagoa duen kolektibotzat jotzen delako. Horregatik, adin tarte honetan biztanleria aktibo munduan emakume gehiago egoten da gizonezkoak baino, eta langabezia tasak ere horrekin du zerikusia. Aipatu beharreko azken faktoreak, lan baldintzetan du: zerikusia. Emakumeen lan baldintzak, eta are gehiago adin tarte honetakoak, askok ez dutelako lan-bizitza jarraia izan eta formazio aldetik ez dutelako goi mailako ikasketarik, lan-sektore marjinatuenetan dihardute, bai ezkutuko ekonomian eta baita merkatu ekonomian. Baldintza ezegonkor horien ondorioz, 65 urteak bete arte lanean jarraitzen dute perfil honetakoek.



12. grafikoa: Langabezia erregistratua, adin tarten eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.
Iturria: Lanbide.
Egilea: Farapi S.L.

Langabezian daudenen artean, azken aldiz lan egindako lan sektorearen arabera, zerbitzuetan lan egindakoak dira langabezian daudenen gehiengoa (224 pertsona). Industrian lan egindakoek jarraitzen diete ondoren (166). Sexuari dagokienez berriz, emakumei dagokienez langabezian daudenen gehiengoak lehen zerbitzuetan lan egin zuen (160 emakumek). Aldiz, gizonezkoetan, langabezian lan egin zuen gehiengoak industrian lan egin zuen aurretik (84 gizonezkoak) eta zertxobait gutxiagok, aldea handia ez izan arren zerbitzuetan (64 gizonezkoak). Datu hauek industria sektore indartsua agertzeaz gain, zerbitzuaren sektorean ahultasun handiagoa agertzen dute eta horrez

gain, gizonetako gehiago industriara lotuak daudela agertzen dute, eta aldiz emakumeak zerbitzuei lotuagoa daudela. Ondorioztatu daiteke, emakume gehiago sektore ahulenean mugitzen direla, eta ondorioz euren artean langabezia handiagoa dela. Kontuan izan behar da, zerbitzuen esparruan ezaugarri oso desberdinetako lanpostuak topa daitezkeela. Lan-baldintza xumeenetatik lan baldintza hobetoetara. Lan baldintza xumeenetako lanpostu asko emakumeek bete ohi dituzte, hala nola garbitzaile lanak edota dendariak. Izan ere, lan baldintza eskasak eta emakumeak korrelazioa nahiko lotuak egon ohi dira. Zenbait zerbitzuren feminizazioa ematen da.

SEKTOREA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Nekazaritza	1	1	2
Industria	82	84	166
Eraikuntza	3	18	21
Zerbitzuak	160	64	224
Aurretiko enplegurik gabe	14	11	25
Zehaztu gabea	-	-	0
Guztira	260	178	438

3. taula: Langabezia erregistratua aurretik lan egindako lan sektorearen eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi. S.L.

Lan egindako lan-sektoreez gain, langabeen ikasketa maila ezagutzeak ere, lan esparrua ulertzen laguntzen du. Langabeen gehiengoak lanbide heziketako ikasketak ditu baina ez du titulurik (171 pertsona) eta horietatik gehiengoak emakumeak (92 emakume) dira. Ikasketarik gabek daude hauen ondotik (99 pertsona), eta horien artean %64,65a emakumeak dira. Esan daiteke beraz, ikasketarik gabek, eta eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean dagoela langabezia gehien. Aipatzekoa da, lanbide heziketako bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, ez dagoela langabeturik.

HEZKUNTZA MAILA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Analfabetoak	64	35	99
Lehen hezkuntza	1	-	1
Lanbide heziketa (titulurik gabeak)	92	79	171
Bigarren hezkuntzako lehen zikloa	-	-	0
Lanbide heziketako lehen zikloa	32	31	63
Lanbide heziketako bigarren zikloa	-	-	0
Goi mailako lanbide heziketa	22	22	44
Batxilergoa duten beste ikasketak	2	1	3
Unibertsitate ikasketak	46	10	56
Lanbide espezializazioa	-	-	0
Unibertsitate ikasketetan hirugarren zikloa	-	-	0
Zehaztu gabea	1	-	1

4. Taula. Langabezia erregistratua ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. 2012Ko ekaina.

Iturria: Oñatiko Udala.


Egilea: Farapi. S.L.

Dena den, datu hauek interpretatu ahal izateko behar beharrezkoa da Oñatiko biztanleria aktiboak 2012an duen ikasketa maila ezagutzea. Datu horiek ez ditugun arren, 2006ko 10 urtez gorako biztanleriaren ikasketa maila kontuan izanik (Eustateko datuak – ez da populazio aktiboa eta ondorioz, egungo datuak ez izateaz gain zertxobait nahasgarria izan daiteke datu hau. Hortaz, hurbilketazko datu bezala hartu behar da –), populazioaren gehiengoak, eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak ditu (%48,87), askoz gutxiago dira bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenak (%17,1), lanbide heziketa ikasketak dituztenak (%13,18), goi mailako ikasketak dituztenak (%11,67) eta erdi mailako ikasketak dituztenak (%8,31). Ikasketarik gabeak (%0,48) eta analfabetoak (%0,38) biztanleriaren zati txiki bat baino ez dute osatzen.

Langabezia ikasketa maila guztietan ematen dela antzerakoa esan daiteke, lanbide heziketako goi-mailako ikasketan dituztenen kasuan izan ezik. Azken hauetan ez dago langabeziarik, ez emakumeen artean, ezta gizonezkoen artean ere. Oñatiko eta Debagoienako industria-sarean perfil honetako langileek duten eskaeraren ondorioa da hori. Populazioaren ikasketa maila sexuaren arabera aztertzea ere interesgarria litzateke, horrek langabeziaren feminizazioan nola eragiten duen ikusteko. Estatistika erakundeek ez dituzte oraingoz, datuak banatuta jasotzen eta ezinezkoa da.

2.1.2- LAN SEKTOREAK

Lan sektore desberdinetan zenbat pertsonak lan egiten duten udalerrian jakiteak, sektoreek duten indarra erakusten dute. Oñatin bigarren sektorea edo industria sektorea da indartsuena (%49,94), hirugarren sektorea edota zerbitzuek (%46,06) jarraituta.




13. grafikoa: 16 urte eta gehiagoko biztanle enplegudunak lan sektorearen arabera (%).
Iturria: Eustat.
Egilea: Farapi S.L.

Oñati industria sektore indartsuko eskualdean kokatua dago. Gainera, eskualdean oro har hartuta baino industria sektore garrantzitsuagoa du, eta are gehiago lurraldea edota erkidegoarekin alderatzen badugu. Azken hamarkadetan lan-jardueraren tertziarizazioa eman bada ere, Oñatik industria sektoreari eutsi dio, industria sare osasuntsua eratu du eta ondorioz enpleguari eta ekonomia datuei inguruko beste eremuek baino hobeto eutsi die.

Lan esparrua generoa rolen arabera baldintzatutako gunea izan da historikoki. Lan sektore horietako bakoitzean, zenbat emakumek eta zenbat gizonezkoak lan egiten duten jakiteak, generoa lan esparru zenbaitetan sartzeko baldintza ote den, eta alderantziz, generoaren arabera, sektore baterantz edo besterantz jotzen den jakiteko balio dezake. Oñatiko kasurako sektore bakoitzera sexuaren arabera daturik ez dago. Pentsatu daiteke, industrian gizonezko gehiago arituko dela, emakumezkoen aldean; baina ezin dezakegu hau baieztatu daturik ezean.

Horregatik, EAeko datuak erabiliko ditugu hurbilketa bat egiteko. Izan ere, Emakundek, datu hauek argitaratu zituen, *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak* (2010) txostenean. Datu hauen arabera, industrian gehiengoa gizonezkoak izan ohi dira. Aldiz, zerbitzuetan gehiago izan ohi dira emakumeak.




14. grafikoa: EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakoetan), sektorearen eta sexuaren arabera 2009an.

Iturria: INE Egilea: Emakunde. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010.

Egilea: Farapi S.L.

Aipagarria da emakumezkoen proportzio handiena (%87,5) zerbitzuen sektorean kokatzen dela, %0,9a nekazaritzan, %10 industriean eta %1,6a eraikuntzan. Emakume gehienak zerbitzuen sektorean kokatzen dira, sektore hau izanik gizon eta emakumeen presentzian oreka gehien mantentzen duena.

Lan sektoreak lan baldintzekin lotura estua dutela esan dugu lehentxeago. Izan ere, sektorearen arabera lan baldintzek aldaketa esanguratsuak jasaten dituzte. Emakumeen gehiengo biltzen duen zerbitzuen sektorean, lan baldintzak gainontzeko sektoreetan baino okerragoak dira: status aldetik, ordutegi aldetik, soldata aldetik besteak beste. Gipuzkoari dagozkion behin-behineko kontratu gehien zerbitzuen sektorean egiten dira; dena den, aldi berean, gogoan izan behar da sektore hau dela kontratazio maila altuena duena.



15. grafikoa: Gipuzkoan egindako kontratu motak lan-sektorearen arabera. 2009ko abuztua.

Iturria: EIN. Egilea: Farapi S.L.

Zerbitzuen sektorean biltzen dira esan bezala, beste baldintza batzuk dituztenen artean, lan merkatuan gutxien baloratzen diren lanak ere (gizartea erreproduzitzeko ezinbestekoak diren zaintza lanak, esate baterako). Balorazio edo prestigio faltaren eraginez, nagusiki emakumeek egindako lan hauetan, baldintzak oso kaxkarrak izan ohi dira. Horri gehitu behar zaio, azpikontratazioak hedatzen ari diren heinean, zerbitzu hauen sektorean, lan-baldintzak are eta prekarioagoak bihurtzen direla, lan sektore hau, emakumeei lotua gehienetan, ahulago eginez.


2.1.3- GIZARTE SEGURANTZA

Gizarte segurantzaren afiliazioek, ongizate estatutuarekin zuzeneko erlazioa dute. Gizonezko gehiagok jasotzen du ongizate estatuaren babesa emakumeen aldean. Izan ere, biztanleria landunaren artean gizonezkoek beti edo ia-beti gizarte segurantzaren kotizatzen dute. Aldiz, emakumeen kasuan, ez da hori gertatzen. Emakumeek gizarte segurantzaren ez dute kotizatzen etxeko-langileak direnean edota batzuetan, etxetik kanpo lan eginda ere, etxeko lanak egitera edo zaintza lanetan jardutera irteten direnean. Kontuan izanik, gizarte segurantzaren kotizatzeak, lanik gabe geratzean edota erretiroan ordainsaria edo ordainsari hobea jasotzea dakarrela, emakumeak bigarren mailako kolektibo bilakatzen ditu lan-sistema honek. Horregatik, bi ataletan aztertuko dugu lan egoera: batetik, gizarte segurantzaren alta emanda daudenen perfila aztertuko dugu, eta bestetik, gizarte segurantzaren alta eman gabe egon baina lan-merkatuan dihardutenena, hau da, ezkutuko ekonomiaren nondik norakoak ezagutzen saiatuko gara.

2.1.3.1- Altak³

Oñatin gizarte segurantzaren alta emanda daudenen artean, gehiengoa araubide orokorrean daude (2.994 pertsona – alta emandakoen artean %60,83 -). Azken urtean zertxobait igo da kontratu mota honen araberrako langile kopurua. Autonomoak zertxobait gutxiago dira, nahiz eta kontuan hartzeko kopurua izan (1862 pertsona - %37,83 -), eta hauen kopurua azken urtean mantendu egin da. Gutxiago dira eraikuntzan dihardutenak (61 pertsona - %1,24 -) eta nekazaritzan (5 pertsona - %0,1 -) lan egiten dutenak.

3 EINeko datuak



16. grafikoa: Oñatin gizarte segurantzaren alta emanda daudenen kopurua afiliazio araubidearen arabera hilabeteka.

Iturria: Espainiako enplegu eta gizarte segurantzako ministerioa.

Egilea: Farapi S.L.

Eskuragarri dauden gizarte segurantzako afiliatuen kopuruen datuetatik, nekez egin daiteke, sexuaren arabera irakurketarik. Izan ere, enplegu administrazioek ez dute udalerrirako informazio hori eskuragarri jartzen. Lanbidek, ordea, hilabete bakoitzean egindako kontratuen inguruko datua argitaratzen du. 2012ko ekaineko kontratuei begiratzen badiegu, aldi baterako kontratuak egiten direla gehien ikus dezakegu. Emakumezkoen zein gizonzkoen kasuan geratzen da hori. Dena den, kontuan hartzekoa da gizonzkoen kasuan, obra edo zerbitzua gauzatu arteko kontratuak ere kopuru esanguratsua osatzen dutela, emakumezkoen kasuan ez bezala. Hori, segur aski, emakumeen eta gizonzkoen lan-eremuak desberdinak direlako izango da; hau da, oro har, emakumezkoak lan mota baterako kontratatuko dira eta gizonzkoak beste baterako.


KONTRATU MOTA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Mugagabea	6	6	12
Obra edo Zerbitzurakoa	4	32	36
Aldi baterakoa	53	35	88
Bitartekotasunezkoa	7	4	11
Praktiketakoa	1	6	7
Guztira	71	83	154

5. taula: Oñatiarrei eginiko lan kontratuak, kontratu motaren eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.

Iturria: Lanbide.

Egilea: Farapi S.L.

Lurraldeko, hau da, Gipuzkoako gizarte segurantzaren afiliazio motaren datuek, sexuak afiliazioa zenbateraino baldintzatzen duen egun, ideia bat egiteko balio dezake. Oñatin bezala, Gipuzkoa mailan langileen gehiengoa, Araubide Orokorren baitan kokatzen da, gero autonomoak datoz eta azkenik etxeko langileen, itsasoko langileen eta nekazarrien kategoriak daude.



17.grafikoa: Gipuzkoako langileen gizarte segurantzako afiliazioa, afiliazio mota eta sexuaren arabera.
Iturria: Lanbide.
Egilea: Farapi S.L.


Gipuzkoako afiliazio datuek, kasu guztietan, etxeko langileen kasuan izan ezik, gizonezkoak gehiago direla erakusten dute. Lan banaketa tradizionalaren eskema produkzio lanean ere bete egiten dela adierazten du honek. Horrela, lan mota batzuk gizonezkoek eta beste batzuk emakumezkoek egotziz. Nahiz eta sektore guztietan egun emakumeak edo gizonezkoak bilatzeko aukera egon badagoen, sektore batzuetan gizon gehiago dago, eta beste batzuetan emakume gehiago. Sexuen arabera lan banaketaren eskema dago horren atzean. Etxeko langileen kasuan nabarmen ageri da; etxeko lanak, lan produktiboaren esparruan sartzen direnean ere, hauek emakumeen lantzat hartzen dira oraindik ere.

2.1.3.2- Ezkutuko Ekonomia

Ezkutuko Ekonomia deitzen zaio, barne produktu gordinaren barruan sartzen ez den, eta estatuaren kontrolatik kanpo dagoen ekoizpen-ondasun trukaketari. Ezkutuko ekonomian

egotean, ez da Gizarte Segurantzaren kotizatzen. Gizarte segurantzaren ez da altarik ematen. Hitzak berak adierazten duen moduan, ezkutuko ekonomiaren ezaugarri nagusia agerikoa ez izatea da. Ezkutuko ekonomian gauzatzen diren jarduerak zenbakitara ekartzea eta honen inguruko datuak biltzea zaila suertatzen da ondorioz. Ezkutuko ekonomia ez denez ohiko estatistika eta zirkuitu fiskaletan sartzen, horretarako bereziki egindako azterketek soilik bil ditzakete datu horiek.

EAEen, 2002an jasotako datuen arabera, jarduera ekonomikoaren %16,10 da ezkutuan egiten da, eta ezkutuko ekonomian dauden jardueretatik %89a emakumeen eskutan dago.



18.grafikoa: EAEen ekonomia murgilduan dihardutenak sexuaren arabera. 2002.
Iturria: LAB Sindikatua.
Egilea: Farapi S.L.

EMAKUMEAK	14,30
GIZONEZKOAK	1,80
GUZTIRA	16,10

6. taula: EAEko langile guztien artean ekonomia murgilduan dihardutenak sexuaren arabera. 2002. (%)
Iturria: LAB Sindikatua.
Egilea: Farapi S.L.

Ezcutuko langilea izateak, gizarte segurantzaren ez kotizatzea esan nahi du, eta honenbeste, langilea lan-eskubiderik gabe egoten da. Ez du gaixotasun baxa hartzeko aukerarik, langabezia saria jasotzeko aukerarik ere ez, erretirorik ez, lan istripuen aurrean babesik ere ez... Egoera prekarioan lan egitea esan nahi du beraz, hau da, gizarte bazterketan egon edo bazterketa jasateko arriskuan kokatzen du. Langile mota honen barnean gehiengoa emakumea dela kontuan izanik, emakumeak gizonen aldean bazterketarako arrisku handiagoa dutela erakusten du.

2.1.4- LAN BALDINTZAK

Gizonezkoen eta emakumeen lan baldintzen artean zer nolako desberdintasunak dauden jakiteak, egoera parekide baterako bidean, zein aspektutan aldaketak eman behar diren laguntzen du. Jakina da, sexu bien artean lan baldintza oso desberdinak topa daitezkeela, eta halaber, gizonezkoak alde batetik, eta emakumezkoak beste alde batetik kategoria oso moduan hartzen baditugu, aldeak topatzen direla, beti ere emakumeen egoera kaskarragoa azalerratu. Sexuak ez ezik beste hainbat faktorek ere eragiten dute honetan, hala nola adinak, jatorriak edota ikasketa mailak. Hori neurtzeko, kontratu motak, lanaldi

motak eta ardura postuak aztertuko ditugu. Kasu honetan ere, EAEko datuak erabiliko ditugu ideia bat egiteko, Oñatiko daturik ezean.

2.1.4.1- Kontratu motak

Kontratu motak, lana mantentzeko aukera gehiago edo gutxiago ematen dute, eta horrek berekin dakar egoera ekonomiko egonkor baterako aukera izatea ala ez izatea. Egiten diren kontratu motak aztertu ezker, ikusten da kontratu gehiago egiten zaizkiela gizonezkoari emakumezkoari baino. Hori bera agertzen zuten 5, taulan ikusitako 2012ko kontratazio datuek. Oñatiko kasurako hilabete bakarreko datuak izanik, EAEko datuak erabiliko ditugu egun gizonen eta emakumeen zein kontratu mota dituzten jakiteko. Kontratu fijo edo mugagabeak, gehiago egiten zaizkie gizonezkoari emakumezkoari baino. Alderantziz, aldi baterako kontratuen artean, emakumezko gehiagori egiten zaizkio horrelako kontratuak, gizonezkoari baino.

KONTRATUAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
Guztira	46	54
Mugagabea- fijoak	42,9	57,1
Aldi baterako	53,4	46,6
Kontratu gabeak	90,1	9,9

7. taula: EAEn egindako kontratu motak sexuaren arabera. 2010. (%).
Iturria: Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010
Egilea: Farapi S.L.

Kontratu gabekoen artean nabarmentzekoa da, gehienak emakumezkoak dirala. Datu hauek agerian uzten duten prekaritateak eragin zuzenagoa duela emakumeengan.

2.1.4.2- Soldatak

Soldatei dagokienez ere aldeak topatzen dira emakumeen eta gizonen artean. EAEn emakumeen orduko soldatak gizonenak baino baxuagoak dira. Lan sektore guztietan gertatzen da hau gainera.

SEKTOREA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIAK
Sektore guztiak	14,82	17,98	16,67
Industria	15,09	18,43	17,83
Eraikuntza	-	15,7	15,6
Zerbitzuak	14,79	18,21	16,35

8. taula: EAEn orduko soldata sektorearen eta sexuaren arabera. 2009.
Iturria: EIN.
Egilea: Farapi S.L.

Ondorioz, gauza berbera gertatzen da urteko soldatarekin ere. Emakume eta gizonen arteko soldata diferentzia hau mantendu egiten da nahiz eta emakume eta gizonen sektore berean lan egin. Hau da, diferentzia honek ez dio soilik sektoreen arteko soldata ezberdintasunari erantzuten. Sektore berean dutenen artean ere desberdintasunak daude: zerbitzuetan, emakumeen presentzia handiago izanda ere, emakumeek gizonen baino gutxiago kobratzen dute.

SEKTOREA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Sektore guztiak	22502,47	28889,92	26162,45
Industria	24501,6	29469,36	28585,28
Eraikuntza	--	25770,34	25346,22
Zerbitzuak	22259,55	29213,31	25323,67

9. taula: EAEn urteko soldata sektorearen eta sexuaren arabera. 2009.

Iturria: EIN.

Egilea: Farapi S.L.

Prestakuntza mailaren eta soldataren artean ere desberdintasunak ematen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Prestakuntza maila bererako, gizonezkoek soldata handiago jasotzen duten emakumezkoek baino. Eta gauza bera gertatzen da, adinaren, lanaldi motaren eta kontratu motaren arabera ere. Kasuaren arabera, %17 eta %30en arteko aldea egon ohi da batzuetan gizonezkoa izan ala emakumezkoa izan.

IKASKETA MAILA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Lehen mailakoak	22.595,18	22.595,18	19.927,41
Erdi mailakoak	15.530,58	23.502,69	20.427,57
Goi mailakoak	25.663,13	35.322,34	30.843,00

10. taula: EAEn jarduerarekin, prestakuntzarekin eta sexuarekin duen harreman motaren arabera pertsona bakoitzak jasotzen duen batez besteko soldata gordina (Eurotan). 2010.

Iturria: Eustat eta EIN

Egilea: Farapi S.L.

2.1.4.3- Lanaldi motak

Lanaldi motaren arabera ere ezberdintasun nabariak egon ohi dira emakumeen eta gizonezkoen artean. Batez ere, emakumeek eta gizonezkoek beren egitekoei ematen dieten garrantziarekin lotua egoten da. Gizonezkoentzat lana oso garrantzitsua izan ohi da, eta lanaldi osoa izaten dute helburu. Emakume batzuen kasuan, familia kargak direla-eta, lana bigarren mailako bihurtzen da, eta zaintza lanak eta lana bateratzeko lanaldi zatituak edo partzialak hartzea erabakitzen dute; bizitza profesionala eta pertsonala

bateragarri izan daitezten, alegia. Emakumeen kasuan beste faktore batek ere eragin dezakete: emakumeek lan produktiboan zein ekonomia eta zerbitzuetan lan egiten dutenean (etxeko lanak, garbiketa, zaintza, etab.) lan baldintza eskasak izaten dituzte orduka lan egiten dutelako; ondorioz, hauengan ohikoa izaten da enplegu bat baino gehiago izatea.

Emakundek ateratako 2007ko zifren txostenaren arabera EAeko emakumeen %28ak lanaldi partziala dauka, bestalde, gizonen artean %4,2a bakarrik da lanaldi partziala daukana. Lanaldi partzialarekin gutxiago kotizatzen da, askotan ezkutuko ekonomia bihurtuz lanaldi hori. Ez da gizarte segurantzaren babesik jasotzen ondorioz, eta horrela gizarte bazterketa jasateko arriskua areagotzen da.

2.1.4.4- Bereizkeria bertikala

Bereizkeria bertikalak laneko kategoria berdinetan emakume eta gizonen proportzio desberdina egotea esan nahi du. Ordainsari edo lanpostu mailaren arabera neurtzen da. Ikasketa edo eginkizun maila bererako, gizonezkoek emakumeek baino ordainsari handiagoak edota ardura handiagoak izatean datza.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoriak⁴ 2008an argitaratutako txostenaren arabera EAEn zuzendaritza eta gerentzia postuetan dauden pertsonetatik %37 da emakumezkoa, gizonezkoen %63aren aurrean. Hori ez dator bat ordea, ikasketak mailarekin. Izan ere, izan ere graduondoko ikasketak (%58) eta masterrak (%60) dituztenen artean gehiengo emakumezkoak dira. Hauen artean ordea, gizonezko gehiago iristen dira zuzendaritza postuetara. 2002an ikasketak amaitu zituztenen artean, lau urtera, gizonezkoen %16k zuzendaritza posturen batean ziharduen, eta emakumeen artean %6ak. Goi mailako zuzendarien artean, emakumeen %60ak goi-mailako ikasketak ditu. Aldiz, gizonen zuzendarien kasuan, %50ak ditu goi mailako ikasketak.

Soldatari dagokionez, emakumeek %30 gutxiago jasotzen dute kategoria guztietako lanpostuetan. European ere gertatzen den joera da hau (%25 gutxiago jasotzen dute emakumeek). Prestakuntza mailaren, adinaren, lanaldi motaren nahiz kontratu motaren gaineratik dago desberdintasun hau: zuzendaritza postu, zein erdi mailako edo behe mailako postuetan gauza berbera gertatzen da.

2.2- LAN ERREPRODUKTIBOAK

Lan erreproduktiboak bizitzari eusteko ezinbesteko lanak dira: zaintza, garbiketa, elikadura eta antzeko lanak sartzen dira eginkizun sorta honen barnean. Lanari eskainitako atal honen hasieran jasotzen den moduan, berdintasunari dagokionez lanaren inguruko azterketa egoki bat egin nahi bada, ezinbestekoa da erreproduktzio lanak ere kontutan hartzea. Lan produktiboak eta lan erreproduktiboek zuzeneko lotura dute. Izan ere, biak

⁴ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria, (2008). *Emakumeak eta zuzendaritza-postuak: berdintasunaren ameskeria*. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria. Gasteiz.

bateratu behar izaten dira kasu askotan, eta batez ere emakumeen kasuan. Emakume askok bi lan hauek bateragarri egin ahal izateko, lan produktiboak murriztu egin behar izaten dituzte, edota lan baldintza eskasagoetan lan egitea aukeratzen dute familiaren bizitzari eusteko lanari denbora hori eskaintzeko. EAEn 2003. urtean egindako erreprodukzio lanen banaketaren inguruko azterketan, agerian geratu zen lan hauen %70a emakumeek egiten dutela.



4. irudia: Emakume heldu bat haur bat zaintzen Oñatin.
Iturria: Farapi S.L.

Txosten berean jasotzen denez, erreprodukzio lana emakumeen esku egon ohi da astegunetan nahiz asteburuetan. Hala ere, eginkizunaren araberrako rol banaketa ematen da kasu honetan ere. Emakumeek denbora gehiago pasatzen dute otorduak prestatzen, garbiketari, arropa prestatzen edota erosketak egiten. Aldiz gizonek konponketak egiten zein kudeaketa lanak egiten emakumeek baino denbora gehiago pasatzen dute. Aisiari dagokionean gizonezkoek aisiarako denbora gehiago hartzen dute emakumeen aldean.

JARDUERAK	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
Otorduak prestatzea	1.31	0.38	1.07
Lanegunak	1.3	0.36	1.07
Igandeak	1.36	0.44	1.13
Garbiketa	1.1	0.49	1.05
Lanegunak	1.11	0.49	1.06

Igandeak	1.09	0.49	1.03
Arropa	0.53	0.27	0.48
Lanegunak	0.54	0.28	0.49
Igandeak	0.55	0.31	0.49
Bestelako konponketak	0.16	0.25	0.18
Lanegunak	0.16	0.23	0.18
Igandeak	0.19	0.36	0.24
Erosketak	0.52	0.44	0.49
Lanegunak	0.48	0.46	0.48
Igandeak	0.22	0.14	0.17
Kudeaketak	0.37	1.03	0.5
Lanegunak	0.35	1.04	0.49
Igandeak	0.12	0.4	0.3
Erdi-aisiak	1.37	2.02	1.48
Lanegunak	1.36	2	1.46
Igandeak	1.51	1.4	1.45

11 taula: Parte hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora etxeko lan motaren, egunaren eta sexuaren arabera EAEn 2008.

Iturria: EUSTAT.

Egilea: Farapi S.L.

Erreproduzio lanen sexuaren araberako banaketa hau gure gizartean ohikoa dela esan daiteke. Ondorioz, pentsatzekoa da Oñatin ere hala gertatuko dela. Etxeaz eta familiaren zaintza eta hornikuntzaz nagusiki emakumeak arduratzen dira. Askotan modu inkontzientean egiten den zerbait da gainera; nahiz eta berdintasunean sinistu, txikitatik barneratutakoaren eraginez, eguneroko bizitzan agerian geratzen den rol banaketa da.

“Etxeko gauzetan, gaur konturatzen naiz, saiatzen gara kontzienteki etxeko lanak eta banatzen eta gero, inkontzienteki barruan dauzkagun beste inertzia batzuegatik eta ia ia izakeran dugulako, azkenean ardura ardura, umeena, azkenengo azkenengo ardura gaur egun emakumea da. Gure etxean horrela da. Nahiz eta ni saiatu, beti horrela da. Igual pentsatzen dut belaunaldiz belaunaldi aldatzen joango den gauza bat izango dela. Poliki poliki era kontziente batean, eta era kontziente batean den neurrian, inkontzientea ere ez dakit joango da aldatzen”. -Herritarra, gizonezkoa-

Izan ere, Emakunderen 2010eko *Euskadiko Zifrak* txostenean ikusten da, etxearekin eta familiarekin zerikusia duten lanen banaketa emakumeen esku dagoela. Adierazgarria da,

gizonezkoek ez dutela lan-ordu partzialeko lanik. Emakumeek berriz, askotan familia bizitzarekin bateragarri izateko lanaldi murriztuak izatea erabakitzen dute.

EKINTZAK	EMAKUMEA					GIZONAK		
	Guztira	Etxetik kanpo lan egiten dutenak		Etxetik kanpo lan egin eta familia kargak		Guztira	Etxetik kanpo lan egiten dutenak L.O.	Etxetik kanpo lan egin eta familia kargak L.O.
		L.O.	L.P.	L.O.	L.P.			
Lanean (joan etorriak barne)	5,8	8,5	5,6	8,2	5,5	8,1	9,1	8,8
Etxeko zereginak , Senideak zaintzea	4,9	3,5	5,6	4,7	6,4	3,0	2,9	3,7
Atsedenaldia (lo-orduak)	7,5	7,4	7,4	7,4	7,4	7,5	7,4	7,5
Prestakuntza	0,6	0,5	0,6	0,4	0,5	0,6	0,3	0,2
Denbora librea, Aisialdia	3,9	3,2	3,5	2,3	2,8	4,0	3,6	3,2
Beste batzuk	1,3	1,0	1,3	1,1	1,5	1,0	0,7	0,7
Guztira orduak	24,0	24,0	24,0	24,0	24,0	24,0	24,0	24,0

L.O. - Lanaldi Osoa
L.P.- Lanaldi Partziala

12. taula: Nola banatzen duzu denbora lanegun batean? Galderaren ereantzunak zeregin bakoitzeko orduen arabera.

Iturri: Emakunde.
Egilea: Farapi S.L.

Zaintzaren eta etxeko lanen inguruan aipagarria da, gizonezko batzuk ez dakitela beren burua zaintzen. *Gipuzkoan bakarrik bizi diren adineko pertsonak*⁵ ikerketan, 'ezgaitu kultural' gisa kategorizatzen dute talde hau, eta adineko gizonezkoen artean arazo garrantzitsutzat jotzen da.

“[...] biziraupenerako lan moduan izenda ditzakegun, hau da, etxeko lanekin, higijenearekin, elikadurarekin, etab. lotutako, lanik inoiz egin ez duten gizonezko askok hauek egiteko duten gaitasun ezak, pertsona hauek bereziki ahulak egiten ditu eta bakarrik egoteko gaitasuna murrizten du horrek. “Ezgaitu kulturalak” dira.” -Gipuzkoan bakarrik bizi diren adineko pertsonak txostenetik-

5 Farapi antropologia kontsultoriak Gipuzkoako Diputazioko Gizarte politikarako departamenturako 2005an burututako ikerketa bat da. Bertako ondorioak Gizarte politikako departamentuaren barne erabilpenerako burutu zen (jatorrizko bertsioa gazteleraz dago).

Oñatin ere, bakarrik bizi diren gizonezko adinekoen artean antzeman da arazo hau. Batez ere, baserrietan eta bakarrik bizi diren gizonezkoen artean gertatzen da. Kanean bizi direnek, euren burua ez gai ikustean, egoitzetan sartzeko aukeraren alde egiten dute. Baserrietan bizi direnen gehiengoak ordea, etxean gelditzea erabakitzen du, eta hauekin esku-hartzea zailagoa da. Oñatiko ongizate zerbitzuak arazo hau indentifikatua du aspaldi, eta une honetan egoera honetan daudenen bizi-kalitatea hobetzeko zein aukera dauden ezagutzeko azterketa bat egiten ari dira.

Ezgaitu kultural bezala definitzen ditugun gizon hauek dituzten arazoen oinarria kulturala da, hau da, gizon hauek gizon izateagatik ez dute bere burua zaintzeko beharrik izan, beti etxeko emakumeren bat izan da honetaz arduratu dena, ondorioz, denboraren eta beharren poderioz ardura falta hau ezgaitasun bihurtzen da, eta azkenean, arazo. Ezgaitu kulturalen egoera hau genero sistemak (gizonak ez baitira zaintzarako hezten) sortzen dituen arazo larrietariko bat da. Arazo honek familia egituraketetan eragiten du, baita Udaleko gizarte zerbitzuetan ere.



5. irudia: Bi gizon erosketetako poltsekin.
Egilea: Farapi S.L.

Aldiz, emakumeen artean, bestelakoa gertatzen da. Askok bizitza osoa etxeko lanei eta familiari lotuta pasa dute, eta hauentzat, zahartzaroa iristean hain da estua etxearekiko duten lotura, ez dutela nahi izaten euren etxea utzi. Eta emakumeen kasuan, alabak dituztenean askotan hauek zaintzen dituztela aipatzen dute Udaleko gizarte zerbitzuetatik.

Izan ere, jardueraren bat duten emakumezkoen erdia baino gehiagok lanez kanpoko jardueraren bat dute. Horrek esan nahi du lan-merkatutik kanpoko lanak egiten dituztela. Kontuan izan behar da lan horiengatik gizarte segurantzaren ez dela kotizatzen, eta ondorioz, emakume hauek gizarte babes txikia dutela, etorkizunean ez dutelako prestaziorik jasoko. Adineko emakume alargun askok, bizi osoa etxeko eta familiako lanetan eman ondoren, gorriak ikusten dituzte bizirauteko:

“Zer nahi dugun alargunok? Diru pixka bat. Gizona hiltzen da eta zenuenaren herenarekin uzten zaituzte, eta etxeko argia, ura eta gastu orokorrak senarra bizi zeneko berdinak dira. Eta ezer gabe uzten gaituzte. Noski, egoera ezin okerragoan gaude. Senarrik gabe geratzen zara eta dirurik gabe uzten zaituzte. Eta inor ez da alargunez arduratzen. Inor ez. (...) Adineko jendea gara, eta gehienak oso paga baxuekin geratu dira. Penagarria da, horrenbeste urtez lan egin ondoren, emakumeok askotan seme-alabengana jo behar izaten dugu laguntza eske” -Emakume alarguna-

Lan hauen banaketak arazoak eragiten dituzte familia bizitzan, baina arazo hauek handiago egingen dira krisi ekonomiko garaietan, eta horrek genero indarkeria kasuak handitzeko aukera eragin dezake. Gizonezkoak direnean langabetuak, eta hauek etxeko lanak egiten ez dituztenean, emakumeei hauek egiteko aginduz, desberdintasunak agerian geratzen dira eta horrek liskarrak sortzen ditu, emakumeek aurre egingen diotelako gizonezkoari eta gizonezkoek kontrola erakutsi nahi dutenean, indarkeria egoerak eman daitezke. Ongizate zerbitzuan horrelako egoeren berri sarriago izaten dituzte krisi garaietan.

Lan-ugalkorren banaketa orekatuak gizarte bazterketarako arriskua txikituko luke, gizarte egonkorrago eta indartsuagoa sortuz.

2.4- LABURBILDUZ

AHULGUNEAK

-Langabeziak gora egin du azken urtean krisi ekonomikoaren ondorioz, eta emakumeei gehiago eragiten die.

-Emakumeak lan-baldintza kaskarragoetan aritzen dira. Zerbitzu sektorean lan egiten dute askok; badaude lan batzuk gizartean bigarren mailako lantzat hartzen direnak eta hauek gehienak emakumeek egiten dituzte.

-Nekazaritzan oso jende gutxi aritzen da, eta emakumeak ere oso gutxi.

-Ezkituko ekonomia emakumeak aritzen dira gehienetan; gizarte segurantzaren babesik ez dute hauek.

-Zuzendari postuetan gehiengoa gizonetzkoak dira. Enpresetan zein sindikatu edo enpresa komiteetan gertatzen da.

-Soldata altuagoak dituzte batz bestez gizonetzkoek emakumezkoek baino.

-Lan erreproduktiboetan emakumeek gizonetzkoek baino denbora gehiago ematen dute.

-Adineko gizon batzuek, lan erreproduktiboak ez dituztenez egin inoiz, arazo larriak dituzte bizirauteko.

ARRISKUAK

-Eguneko ekonomia egoera globalak Oñatiko enpresen egoeran eragitea.

INDARGUNEAK

-Gipuzkoakoa baino langabezia tasa txikiagoa.

-Bigarren sektore indartsu eta osasuntsua. Enpresa sare indartsua.

-Industrian daude lanpostu gehien, eta ondoren nahiko parean zerbitzuak. Ekonomia sistema indartsua erakusten du horrek.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Enpresei berdintasunaren inguruko prestakuntza ematea.

-Enpresei berdintasunaren inguruko aholkularitza ematea.

-Langileei dituzten eskubideen berri emateko kanpainak egitea.

-Lan erreproduktiboaren inguruan kontzientziario kanpainak egitea, erantzunkidetasuna sustatuz.

-Enpresetan bateragarritasuna bermatzeko kontzientziario kanpainak egitea.

3- HEZKUNTZA

Hezkuntza, gizarte egiturak eta ohiturak aldatzeko beharrezkoa dela esan ohi da, hezkuntza beharrezkoa dela gizarte parekide bat lortzeko. Bost zentroz osatua dagoen Oñatiko hezkuntza sare-ofiziala aztertuko dugu, gizon eta emakumeei eskubideak eta aukerak modu berdinean gauzatzen diren ala ez ezagutzeko eta berdintasuna sustatze aldera zein ekimen eta programa dituzten ikastetxe hauek ezagutzeko.

Udalak legez hezkuntzan duen eskumena inbertsio obrak eta derrigorrezko eskolaratzea bermatzea da. Baina Oñatiko kasuan hemendik haratago egokiak iruditzen zaizkien zerbitzuak eskaintzeko konpromezua hartu du. Hezkuntza saila euskararekin batera doa eta azken hau izan da denbora eta diru kopuru gehien jaso izan duena azken urteetan. Dena den, hezkuntza arloan ere eskumen gehiago izatea garrantzitsutzat jotzen da, eta dagoeneko, baliabide gehiago zuzentzen ari dira udal aurrekontutik.

Aurten hasi dira ikastetxeekin elkarlanerako dinamikak burutzeko koordinazio taldeak biltzen. Bertan, udaleko, ikastetxeetako eta guraso elkarteetako ordezkariak elkartzen dira eta hiru koordinazio-mahai antolatu dituzte: ingurumena; euskera eta euskal kulturako gaiak lantzea; eta gurasoen formazioaren saioak. Hiru astean behin batzen dira azken bi taldeak udaberrietik hasita. Dena den, udalari dagokion hezkuntza arloko eskumenen atalean aztertuko dugu sakonean gai hau (5.6. atalean). Atal honetan, Oñatiko hezkuntza formalaren ideia orokor batzuk emango ditugu.

3.1- IKASKETA ESKAINTZA

Hezkuntza arautuko bost zentro daude Oñatin. Horietatik hiru publikoak dira, eta hiruek batera Bigarren hezkuntza amaitu arteko hezkuntza publikoa bermatzen dute udalerrian. Txiki Txoko Haurreskolen partzuergoko zentroak, 0 eta 2 urte bitarteko haurrak hartzen ditu. Errekalde Herri eskolak, 2 urte eta 12 urte bitarteko ikasleak. Eta Zuazola Larrañak 12 urtez gorakoak. Hauez gain, beste bi ikastetxe ere badaude: Txantxiku ikastola eta Elkar-Hezi ikastetxea. Bi ikastetxe hauek, 0 urtetik 18 urte bitartearainoko irakaskuntza eskaintza dute.

	Haurreskola	HH	LH	DBH	BH	Lanbide H	Ikastetxearen izaera
Txiki Txoko	X						Publikoa
Errekalde		X	X				Publikoa
Zuazola Larraña				X	X	X	Publikoa
Txantxiku	X	X	X	X	X		Ikastola, kooperatiba elkarte, kontzertatua
Elkar Hezi	X	X	X	X	X		Erljiosoa eta kontzertatua

HH- Haur Hezkuntzako

LH- Lehen Hezkuntza

DBH- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Lanbide H- Lanbide Hezkuntza Tx

13.taula: Oñatiko ikastetxeak eskaintza eta izaeraren arabera

Iturria: Oñatiko udala.

Egilea: Farapi S.L.

3.2- IRAKASLEEN DATUAK

Emakundek “Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak Euskadin” informean (2010) adierazten duen lez, 2008/2009 ikasturtean EAEn, 10 irakasletik 7 emakumeak ziren. Sexuaren arabera egindako sailkapenaren beste ezaugarri bat hezkuntza mailan gora egin ahala, emakumezkoen proportzioa pixkanaka murrizten dela izango litzateke.

Oñatin egoera antzerakoarekin egiten dugu topo; izan ere, haurreskolan eta haur-hezkuntzan ez dugu gizonezko bat ere aurkitu. Umeek, era honetan, zaintza eta besteen ardura emakume erreferente batekin lotuko dute, eta sozializazio-prozesuan barneratzen duten neurrian, nagusitan erreproduzitzeko joera izango dute.

Eskola mailetan gora egin ahala, gizonezko irakasle gehiago aurkitzen ditugu Oñatiko ikastetxeetan; izan ere, zenbat eta maila altuagoan (unibertsitate irakaslea da honen espresio gorena) gizarte mailan estatus gehiago eta soldata altuagoak edukitzen dira. Lanbide heziketan ere, gizonezko gehiago aurkitzen ditugu, industriarekin erlazionatutako sektoreetan bereziki, maskulinizatutako arloa baita.

Hurrengo tauletan Oñatiko lau ikastetxeetako irakasleen kopuruak ditugu sexuaren arabera sailkatuta. Elkar Hezi ikastetxeko datuak ez ditugu lortu, eta beraz, badakigu informazio hau hurbilpen moduan kontsideratu daitekeela.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haurreskola	7		7

14.taula: Txiki Txokoko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.
Iturria: Oñatiko Udala
Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haur-hezkuntza	9		9
Lehen-hezkuntza	15	4	19

15.taula: Errekaldeko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.
Iturria: Oñatiko Udala
Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Bigarren hezkuntza	13	6	19
Batxilergoa	8	4	12
Lanbide heziketa	4	8	12

16.taula: Zuazo Larrañako irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.
Iturria: Oñatiko Udala
Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haur-hezkuntza	21		21
Lehen-hezkuntza	16	3	19
Bigarren hezkuntza	16	8	24
Batxilergoa			

17.taula: Txantxikuko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.
Iturria: Oñatiko Udala
Egilea: Farapi S.L.

3.3- ERABILTZAILEAK (MATRIKULAZIO DATUAK)

Derrigorrezko hezkuntzan neska eta mutilen kopurua oso berdintsua mantentzen da, baina umeak hazten doazen neurrian, eta ikasketa alor desberdinen artean aukeratu ahal duten neurrian, euren generoari atxikitako rolaekin bat egiteko joera hazten da.

Goi-mailako ikasketak askoz feminizatuago daude, eta beraz, unibertsitatera joateko sarbide izango den batxilergoan emakume gehiago daude. Batxilergoan eskaintzen diren ikasketak ere oso generizatuak ageri zaizkigu: Gizarte zientzietan emakume askoz

gehiago eta Zientziak eta teknologian gizonezko gehiago. Lanbide heziketan, ordea, mutil askoz gehiago daude, mutilek egiten dituzten lanak arlo hauei baitaude lotuago. Oñatiko kasuan, gainera, industri sektore indartsua dugu, eta beraz, mutilen lanesku asko bertara bideratzen da.

Hurrengo tauletan biltzen ditugu ikastetxez ikastetxe matrikulatuta dauden ikasle kopurua, egiten dituzten ikasketetan sailkatuta, eta sexuaren arabera. Hemen ere Elkar Hezi ikastetxeko datuak falta zaizkigu.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haur-hezkuntza	214	230	448
Lehen-hezkuntza	210	236	446
Bigarren-hezkuntza	139	137	276
Batxilergoa	51	62	113
Gizarte zientziak	23	14	37
Zientziak eta teknologiak	28	48	76
Lanbide heziketa			
Erdi-mailako zikloak	5	74	79
Goi-mailako zikloak	5	29	34

18.taula: Oñatiko ikastetxeetan matrikulatuako ikasle kopurua (Elkar Hezi gabe) sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.

Iturria: Oñatiko Udala

Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haurreskola	18	14	32

19.taula: Txiki-txokon matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.

Iturria: Oñatiko Udala

Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haur-hezkuntza	60	70	134
Lehen-hezkuntza	62	82	144

20.taula: Errekalden matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.

Iturria: Oñatiko Udala

Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Bigarren hezkuntza	46	59	105
Batxilergoa	21	16	37
Gizarte Zientziak	15	4	19
Zientziak eta teknologiak	6	12	18
Lanbide heziketa			
Erdi-mailako zikloak	5	74	79
Sarbide-probak prestaketa	5	29	34

21.taula: Zuazola Larrañan matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Haur-hezkuntza	154	160	314
Lehen-hezkuntza	148	154	302
Bigarren hezkuntza	93	78	171
Batxilergoa	30	46	76
Gizarte Zientziak	8	10	18
Zientziak eta teknologiak	22	36	58

22.taula: Txantxikun matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.

Iturria: Oñatiko Udala

Egilea: Farapi S.L.

3.4- GENERO IKUSPUNTUA ETA HEZKIDETZA PROIEKTUAK

Hezkidetza bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik kanpo egiten den “pertsonen hezkuntza” litzateke. Irizpide sexitak jarraituz, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaera etabarrak kontuan hartu gabe haztea da. Pertsona autonomoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak ahalbidetzeko helburuarekin.

Ikastetxeak oso leku aproposak dira hezkidetza lantzeko, sozializazio prozesuan duten eraginagatik eta baita umeei bertan pasatzen duten ordu kopuruagatik ere. Horregatik, eskolek genero zein sexu aldetik aukera berdintasuna bermatzen duen hezkuntza eredua lantzea ezinbestekoa da.

Oñatiko ikastetxe batzuek euren aldetik hezkidetza sustatzeko programak landu dituzte, baina udaletik zuzenean ez da bideratu berdintasun politikarik. Dena den, gurasoei formakuntza emateari lotutako koordinazio mahian (guraso, ikastetxe eta udaleko

ordezkariak biltzen dira) hezkidetzaren gaia lantzea komenigarria izan daitekeela azpimarratzen du hezkuntza teknikariak. Duela gutxi hasi diren arren formakuntza hauek aurrera ateratzen eta balorazio oso positiboa egiten da udaletik; beraz, espazio aproposa izan daiteke genero gaia mahai gainean ipintzeko.

3.5- GURASO ELKARTEAK

Oñatiko ikastetxe bakoitzean guraso elkarte bat dago. Ikastetxe kontzertatuetan guraso elkarteak integratuago daude ikastetxearen funtzionamenduaren barruan, eta ikastetxe publikoan eskolatik bereiztuago dago, autonomia gehiagorekin funtzionatzen dutelarik. Eskolari zuzenean lotutako arduretaz gain, herrian eragile ere badira; izan ere, umeentzako ekitaldiak, herri kirolak, jaialdiak, etabar antolatzen dituzte, Errekaldeko guraso elkarteak bereziki.

Gurasoen ardura hartzeari dagokionez, ama zein aiten esku gelditzen da guraso elkarteko betebeharrei erantzutea, eta alde honetatik nahiko orekatuta dago.

*“Guraso elkarteen dinamika horretan emakumeak oso nagusi izatetik, poliki poliki azkeneko bileran hiru gizon etorri ziren. Pixka bat orekatzen edo behintzat bideratzen badoala uste dut”.-
Hezkuntza teknikaria-*

3.6- ESKOLA KIROLA

Astean zehar burutzen diren kirol jarduerak ikastetxetik bideratzen dira, kiroldegiarekin elkarlanean; asteburuetan egiten diren partiduetan gurasoak arduratzen dira antolakuntza eta entrenamenduaz. Hemen ere gizonen presentzia gero eta nabariagoa da.

Hurrengo taulan eskola kiroleko jarduera eta neska eta mutil kopuruak biltzen dira. Datu adierazgarria da adina guztietan mutil gehiagok praktikatzen dutela kirola neskek baino. Oñatiko kasuan umeen matrikulazio datuak begiratuta, mutil gehiago daude, eta beraz, normala da adin txikietan mutil gehiagok kirola praktikatzea. Dena den, joera ohikoa da neskek kirol gutxiago praktikatzea, eta eskola kirol hauetan egiten den kirol eredu printzipioz neska zein mutilek era berean praktikatuta ahal duten arren, neskak ez dira hain eroso sentitzen. Honen atzean dauden arrazoiak anitzak dira, genero rolek baldintzatuta, eta norberaren gorputzarekiko dugun ideia edota kirola, mutilentzat, gizartean estatusa lortzearekin erlazionatuta egotea, besteak beste.

Joera ohikoena neskak hazten doazen neurrian gero eta kirol gutxiago praktikatzea izaten da, eta neraberazaroan neska askok uzten diote kirola egiteari. Oñatiko kasuan, 12 urte

arteko umeen datuak besterik ez ditugu, eta adina honetara heldu arte neskek gero eta kirol gehiago praktikatzeko dutela ikus daitekeen arren, ez dakigu nerabegarotik aurrera zer gertatzen den. Izan ere, oso ohikoa da kirol federatuan hastean emakumeek kirola uztea.

	NESKAK	MUTILAK	JARDUERA
5 urte	7	20	psikomotrizitatea
1. maila	14	23	psikomotrizitatea
2. maila	11	25	jolasak
3. maila	38	39	multikirola
4. maila	30	38	multikirola
5. maila	41	53	multikirola
6. maila	45	47	multikirola

23.taula: Eskola kirola egiten duten umeak sexua eta burutzen duten jardueraren arabera.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

3.6- LABURBILDUZ -Hezkuntza-

AHULGUNEAK

- Udalak ez du ikastetxe guztietarako baliagarria izan daitekeen berdintasuna sustatzeko planik.
- Orain arte Euskera eta hezkuntza sailak ez du hezkuntzan ia esku hartzerik izan.
- Kirolari dagokionez, nerabegarotik aurrera emakumezkoen egoera zein den ez da ezagutzen.

INDARGUNEAK

- Ikastetxe, guraso eta udaleko ordezkariak osatutako koordinazio taldeak daude, eta bertan formakuntza programak burutzea helburuetako bat da. Genero gaia hemen txertatu daiteke.

ARRISKUAK


- Hezkuntza formalaren kudeaketa ikastetxe bakoitzaren esku gelditzen da nuerri handi batean, udalak ez baitu eskumen asko.
- Hezkuntza formala oraindik oso feminizatuta dagoen arloa da.
- Kirolaren inguruko diagnostiko zehatza egin gabe behin eta berriro akats berdinak errepikatuko dira.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Koordinazio taldeen bitartez generoaren inguruko formakuntza ematea.
- Emakumeen kirol jarduerak bultzatzen dituzten klubak saritu, diru-laguntzak edo baliabide material eta espazioaren erabileran erreztasun gehiago emanez, besteak beste.



UDALAREN
FUNTZIONAMENDU
OROKORRA



4.ANTOLAKETA POLITIKOA

Udalaren antolaketan eta funtzionamenduan, emakumeen eta gizonezkoen egoeraren berdintasuna bermatzea ezinbestekoa da. Etxeko lanak eginez gero, herrira begira antolatzen diren proiektuek ere emaitza hobek emango dituzte ezberrik gabe. Antolaketa politikoa, Udaleko sailen osaera eta langileen lan-mailak eta baldintzak, Udalak dituen araubide, ordenantza eta prozedurak eta Udalarari lotutako erakundeen osaerak eta funtzionamenduak berdintasun printzipioa jarraitu beharko lukete.

Udal gobernua bi talde politikok osatzen dute. Bi kasuetan, nahiko parekatuak daude emakume eta gizonezko kopuruak. Guztira, bederatzi gizonezko daude eta zortzi emakume. Interesgarria da datu honi arreta jartzea. Izan ere, Udal gobernuko kidea izateak, botere gune bateko partaide izatea esan nahi du. Botereguneetan historikoki gizonezkoak kokatu izan dira. Emakumeak ere hauen artean egoteak, emakumeei ere boterea izateko aitortza egitea esan nahi du, eta honenbestez estatusaren eskubidea errespetatzea ere bai.

TALDE POLITIKOA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Bildu	5	6	11
EAJ	3	3	6
Guztira	8	9	17

24. taula: Gobernu taldearen osaketa taldeka eta sexuaren arabera. 2011-2015.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Aldagai gehiago ere kontuan hartu behar dira berdintasun maila zenbatekoa den baloratzeko. Udalean dauden batzordeetako lehendakarien sexuak boterea Udalaren barnean nola banatzen den erakusten du. Alkatea gizonezkoa da, eta honenbestez da bera Udaleko burua. Beste hamabi batzorde ere badaude: hauen batzordeburuen artean lau emakumezkoak dira, eta beste zortziak gizonezkoak.

Ohikoa izaten da batzorde batzuetan generoak baldintzatutako batzordeburua izatea. Hau da, gai batzuk emakumeenak direla eta beste batzuk gizonezkoenak direla jotzen denez, eta horietan dihardutenean gehiengoak gizonezkoa edota emakumezkoa izaten dela kontuan harturik, batzorde lehendakari postuak banatzerakoan gai horren inguruan jantzia dauden pertsonak aukeratzeko direnez, gizarteko ohiko rol banaketak agertzen dira. Ongintza, berdintasuna eta hezkuntza batzordeak Udal askotan emakumeak izaten dituzte batzordeburu. Hirigintza batzordeak berriz gehienetan gizonezkoak ditu buru. Oñatiko Udaleko kasuan aldiz, Ongintza batzordeko burua gizonezkoa da. Berdintasuna, euskara eta hezkuntza eta kiroletako batzordeko lehendakariak ere emakumeak dira. Gainontzekoak gaietan gizonezkoak daude. Botere postua duten gehiengoak gizonezkoak dira; eta aurrekontu handienak dituzten sailak ere gizonezkoenak dira.

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
Batzordeburua	Kirolak Ingurumena Euskara eta hezkuntza Berdintasuna	Hirigintza eta zerbitzuak Partaidetza, komunikazioa eta antolamendua Auzoak eta landa garapena Kultura Ogasuna Gazteria Ongizate zerbitzuak Sozioekonomia
Kopurua Guztira	4	8


25. taula: Batzorde lehendakariak sexuaren arabera. 2011-2015.
 Iturria: Oñatiko Udala.
 Egilea: Farapi S.L.



6. irudia: Oñatiko Pleno Aretoa.
 Iturria: Oñatiko Udala.

Batzordeetako partaideen sexuaren araberako kopuruak, batzordean lantzen den gaiaren feminizazio maila edo maskulinizazio maila erakusten dute. Ez dago gizonetzkoek bakarrik osatutako batzorderik, batzordeen erditan gizonetzkoak dira gehienak, bi batzordetan denak emakumezkoak dira, eta beste bitan emakumezkoen eta gizonetzkoen partaidetza parekoa da.

Berdintasunean eta Euskara eta hezkuntzan denak emakumeak dira. Hezkuntzaren gaia emakumeen gaitzat hartu izan da; emakumeei ematen zaien zaintzaren rolaekin lotua dago. Berdintasuna berriz emakumeen borrokatzat jo izan da. Ongizate eta Kultura batzordeetan gehiago dira emakumezkoak. Ongintzako lanak zaintzarekin eta laguntzarekin lotzen dira, eta hauek ere emakumeen egitekotzat jotzen dira. Parean daude Gazterian eta Auzoak eta landa garapenean. Eta aldiz, boterearekin zerikusituzuzena duten Sozioekonomia, Ogasuna, Hirigintza eta zerbitzuetan eta Partaidetza, komunikazioa eta barne antolamendua batzordeetan, eta gizonen aisialdirako modutzat ulertu izan diren kirolaren inguruko Kirolak batzordeko lehendakariak gizonetzkoak dira. Hurrengo grafikoan udaleko batzorde bakoitzeko kide kopurua azaltzen da, sexuaren arabera sailkatuta.



19. grafikoak: Batzordeen osaketa sexuaren arabera. 2011-2015.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

4.1- UDAL SAILAK

Udala sailen arabera banatua dago. Bere organigraman maila desberdinetan eta batzorde desberdinen arabera kokatzen dira hauek. Sail bakoitzean izaera eta gai desberdinen inguruko zerbitzuak ematen dira. Batzordeen atalean aipatu bezala, gai batzuk feminizatuago edo maskulinizatuago egon ohi dira. Sexuaren arabera desberdintasunik ematen den sail batzuen eta besteen artean jasoko dugu. Horrekin batera, langileen mailak eta soldatak aztertuz, sexuaren arabera bereizkeria bertikalik eta horizontalik ematen den aztertuko dugu. Bereizkeria bertikala emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasuna da euren lanpostuaren maila eta ardurak kontuan hartu gabe. Bereizkeria horizontala maila eta ardura bereko postuetarako sexuaren arabera dauden desberdintasunak dira.

4.1.1- LANGILEEN ANTOLAKETA

Hamasei sail desberdinetan banatua dago Oñatiko Udala. Guztira 82 langile ditu, sail desberdinetan kokatuta. Sail batzuetan sexuari begira emakumezkoak zein gizonezkoak antzera badaude ere, badaude emakumeak gehiengoak diren zein gizonezkoak gehiengoak diren arloak. Lan administratiboekin lotutako postuetan gehienak emakumeak dira: kontuhartzailletza eta pertsonala dira horren adibide. Gizarte zerbitzuetan denak emakumeak dira, lehen esan bezala zaintzari lotutako lanak egiten dituzte eta horiek emakumeek betetzen dituzte gehienetan. Kultura arloan ere gehienak emakumezkoak dira. Bestelakoa gertatzen da udaltzainen eta hirigintza arloaren kasuan. Kasu honetan gehiengoak gizonezkoak dira. Biak gehienbat gizonak betetzen dituzten eginkizunekin lotuak.

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Udaltzaingoa	4	10	14
Udal sarrera		2	2
Euskara		2	2
Pertsonala	3		3
Euskaltegia		3	3
Nekazaritza		1	1
Gazteria		1	1
Artxiboa	1		1
Eplegua		1	1
Kultura	6	3	9
Informatika		1	1
Gizarte Zerbitzuak	5		5
Idazkaritza	3	2	5
Kontuhartzaitza	6	1	7
Hirigintza	3	10	13
Kiroldegia	8	5	13
Guztira	39	42	81

26. taula: Langileak sexuaren eta sailaren arabera. 2012ko uztaila
 Iturria: Oñatiko Udala.
 Egilea: Farapi S.L.

4.1.2- LANGILEEN MAILAK ETA SOLDATAK

Udal langileen mailak nola banatzen diren eta maila bakoitzerako zenbat emakume eta zenbat gizonezko dauden jakiteak, botere mailaren arabera emakumeen eta gizonezkoen artean desberdintasunak dauden ala ez ezagutzen laguntzen du. Oñatiko Udalean maila bakoitzean gizon eta emakumeen kopuru antzekoa dagoela ikus dezakegu. Ardura handieneko maila dutenen artean zertxobait gehiago dira gizonezkoak (A mailan gizonen kopuruak emakumeena bikoizten du).

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
A	3	6	9
B	8	7	15
C	14	12	26
D	9	13	22
E	2	2	4
Guztira	36	40	76

27. taula: Lanpostuaren mailaren araberako langileak sexuaren arabera. 2012ko ekaina.
 Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Soldatei dagokienez, batz besteko gizonak emakumeek baino soldata altuagoak dituzte. Soldatak mailaren arabera ezartzen dira. Dena den, maila berean soldatak ez dira berdinak, eta hemen ere, emakumeenak bajuagoak dira. Hurrengo taulan maila bakoitzean emakume eta gizonak irabazten duten batz-besteko soldatak ditugu, eta C maila kenduta, beste guztietan gizonak emakumeak baino soldata altuagoak. Emakumeak beraz, botere postuetara heltzea lortzen duten arren, normalean estatus eta soldata aldetik gutxiago baloratzen diren arloetan izaten da.

	EMAKUMEAK	GIZONAK
A	3223	4033
B	2676	2907
C	2460	2394
D	2077	2264
E	1420	1966

28. taula: Batz besteko soldatak lanpostuaren mailaren eta sexuaren arabera. 2011-2015.
Iturria: Oñatiko Udala. Egilea: Farapi S.L.

Aurretik esan dugun bezala, departementuak oso generizatuta egoteaz gain, departamentu bakoitzaren barruan gizon eta emakumeek ez dituzte maila berean dauden postuak betetzen. Hurrengo taulan, udaleko langileen batzbesteko soldata 100 indizea dela kontuan hartuz ($2537=100$), kopuru honekiko departamentu bakoitzeko langileek zenbat kobratzen duten adierazten da. Hau da, udal langileen batzbesteko soldataren ginetik edo azpitik, eta zein neurritan dauden ikus dezakegu.

Agerikoa da udaltzaingoan izan ezik (zeinetan udaltzainburua emakumea den), besteetan gizonen soldatak batz-bestekoaren ginetik daudela, eta emakumeak nagusi diren lanpostuak gutxiago ordaintzen direla. Idazkaritza eta kontuhartzaitza, feminizatutako arloak dira, baina bietan A mailan gizonak dugu, eta beraz, bere soldata departamentuko altuena da. Hirigintza eta kiroldegian ere, emakumeak eta gizonak egon arren, bakoitzaren batez-besteko soldatan alde nabaria dago.

Departamentuak	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
Guztira	97,7	114,5
Udaltzaingoa	101	93
Udal sarrera		99
Euskara		113
Pertsonala	121	
Euskaltegia		103
Nekazaritza		116
Gaztedia		103
Artxiboa	112	
Enplegua		110
Kultura	96	110
Informatika		116
Gizarte zerbitzuak	103	
Idazkaritza	91	146
Kontuhartzailtza	90	185
Hirigintza	90	97
Kiroldegia	76	98

29.taula: Udal departamentuetako langileen soldata indizearen arabera kalkulatuta (2537=100) eta sexuetan sailatuta. 2011-2015.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi.

4.2- UDALARI LOTUTATAKO ERAKUNDEAK

Udalari lotutako erakundeek ere berdintasuna kontuan hartzea beharrezkoa da. Izan ere, erakunde publikoei dagokie legea betetzea eta eredia ematea. Udalak parte hartzen duen erakunde eta elkarteetan Udalean bezala berdintasuna eskubide moduan kontuan hartu behar da eta desberdintasun egoeren aurrean emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzeko mekanismoak jarri behar dira martxan.

Oñatiko Udalaren kasuan 20 elkarte eta erakundeetan parte hartzen du. Batzuk enpresa publikoak dira, beste batzuk Udal desberdinen artean osatutako elkarteak, eta badira bestelako izaera dutenak ere. Horien inguruko informaziorik ez dugun arren, etorkizunean berdintasun arlotik zein beste Udal arloetatik egin daitezkeen esku-hartzeetan hauek ere kontuan izatea komeni da, erantzukizuna eskatuz gai honetan ere. Aparteko azterketa bat beharko litzateke hauen egoera ezagutzeko.

Hurrengo taulan entitate hauek ageri dira emakume eta gizonen kopuruak kontuan hartuta eta guztiaren %22a besterik ez dira emakumeak.

Oñatiko emakumeen eta gizonen egoeraren berdintasun diagnostikoa

ENTITATEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
San Martin Egoitza	3	4	7
Deba Garaiko Udal Elkarte	2	4	6
Oñatiko Industrialdea	0	2	2
Oñatiko Ur jauziak	1	4	5
Bidebarri S.L.	1	4	5
Oñargi S.L.	1	4	5
Merkañoña S.L.	1	4	5
Suradesa	0	2	2
Mendi Nekazaritza	0	1	1
Ur Kontsorzioa	0	1	1
Zubillagako Hiltegia S.L.	0	1	1
Ur Zerbitzuak	0	1	1
EUDEL	0	1	1
HABE	1	0	1
Elkarkidetza	0	1	1
Gurutze Gorria	0	1	1
Oñatiko Garapen eta Turismo Ajerzia S.A.	1	4	5
Oñatiko Unibertsitate Teknologji Hiria S.A. (OUTHSA)	1	2	3
GOIENA-ko Kontseilua	0	2	2
Anaitze Komitea	1	3	4
GUZTIRA	13	46	59

30. taula: Batzorde lehendakariak sexuaren arabera. 2011-2015.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

4.3- LABURBILDUZ -Udalaren funtzionamendu orokorra-

AHULGUNEAK

- Batzordeko kideak zein udal langileen lanpostu motak oso generizatuta daude, eta beraz, genero rolak erreproduzitzen dituzte.
- Emakumeek, soldata bajuagoak dituzte, departamentu eta batzordeetako buru izateko zailtasun gehiago dituztelako.
- Udalari lotutako erakunde gehienak gizonen kudeatzen dituzte.

INDARGUNEAK

- Udal parekidea da, eta honek emakumeak botere postuetara iritsi direla esan nahi du.
- Udalak parte hartzea sustatzeko hartutako konpromezuak emakumei aukerak zabaltzeko ahal dizkie udal erakundeen inguruko erabakietan era aktibo baten parte hartzeko.

ARRISKUAK

- Ez da arriskurik topatu.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Udal parekidea izatetik haratago, batzorde eta departamentuen barruan boterea nola dagoen banatuta aztertzea beharrezkoa da eta horretarako ibilbide orri bat prestatu daiteke.

5. BERDINTASUNA UDALAREN ZERBITZUETAN

Udal mailako zerbitzu desberdinetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako hartu diren neurriak ezagutzea da atal honen helburua. Eta neurririk hartu ez den kasuetan, zerbitzuaren funtzionamendua ezagutzea, hutsuneak topatu eta irizpide horiek txertatu ahal izateko.

Oñatiko Udalean sail gehiago badaude ere, Udalaren oinarrizko funtzionamendutik kanpo dauden zerbitzuak jasoko ditugu. Hau da, zerga bilketa, kontuhartzailletza, giza baliabideak eta idazkaritza aparte utzita, herritarrei zuzendutako zerbitzuak aztertuko ditugu.

- Berdintasun zerbitzua.
- Auzoak eta landa garapena.
- Enplegua, merkataritza eta landa garapena.
- Euskara.
- Haurrak eta Gazteria.
- Haurrak eta Hezkuntza.
- Hirigintza eta lurralde antolamendua.
- Kirola.
- Ongizate zerbitzuak.

Berdintasun ikuspegitik sailaren funtzionamendua baloratuko da. Berdintasun ikuspegiak, emakumeen eta gizonezkoen berdintasun eskubidea bermatzeko bitartekoak jartzea esan nahi du. Aukera berdintasuna bermatzeko beharrezkoa da emakumeen eta gizonezkoen egoera baloratzeko etengabeko neurketa egitea eta zerbitzuen eskaintza horren arabera birpentsatzea, sexu bien parte-hartzea sustatzeko ekimenak sustatzea, genero desberdintasunaren inguruko kontzientzia hartzeko ekintzak bultzatzea eta erantzukizuna sustatzea.



6. irudia: Oñatiko Plaza.

Iturria: Munibe.

Egilea: Felix Sanchez Arrazola.

5.1- BERDINTASUNA

Oñatin Berdintasun Saila dago. Bertan, berdintasun teknikariak egiten du lan, nahiz eta Gizarte Zerbitzuetako egituraren barruan sartzen den. Berdintasun diagnostikoa egiten ari garenez, atal berezi moduan aurkeztuko eta aztertuko dugu.

Berdintasun zerbitzuaren izaera transbertsala da: hau da, esparru, arlo eta sail guztietan eta hauen jardunean berdintasuna bermatu dadin osatutako batzordea da, eta berdintasun egoera normalizatu batera iristea du helburu eta horrekin du amaiera. Udaleko funtzionamendurako zein herri mailako normalizazioa eragiteko bitartekoak jartzean eta baliabideak eskaintzea da bere egitekoa.

Esan bezala berdintasun batzordean hartzen dira erabakiak, baina berdintasun sailik ez dago. Berdintasun teknikari bat dago, baina ez da lanaldi osoz honetara egoten; gizarte langilea ere bada, eta bi zereginak uztartzen ditu.

Berdintasun batzordea, batzorde jaioberria dela esan daiteke. 2011ko ekainean sortu zen gorberru aldatzarekin batera, eta urte beteko ibilbidea du une honetan. Urte bete honetan, kontzientziazio lanean jardun dute bereziki, Oñatiko emakumeen taldeekin harreman estua lortu da eta horrekin batera, hainbat ekintza egin dira, egun seinalatuetan aldarrikapenak egiteko eta emakumeen ahalduntzerako ikastaro eta tailerrak antolatu dira. Gizarte zerbitzuek genero indarkeria jasandako emakumeen arretaz ardura dira; lehenik ere egiten zen lana da hau.

5.1.1- UDAL SAILEKIN HARREMANA

Berdintasun arloak Udaleko sail guztietan berdintasunezko harremanak egon daitezen eta kudeatzen dituen zerbitzu eta programa guztietan berdintasuna bermatu dadin baliabideak eskaini behar ditu. Diagnostiko hau zerbitzu desberdinen egoera baloratu eta horren arabera neurriak proposatu ahal izateko egiten da. Diagnostikoaren ostean egingo den emakumeen eta gizonen berdintasunerako planean jasoko da sail bakoitzarekin egin beharreko jardunaren berri. Etorkizunerako helburu eta egitekoen artean dago beraz.

5.1.2- HERRIKO TALDE ETA ELKARTEEKIN HARREMANA

Herritarren eta herriko taldeen artean berdintasuna sustatzea ere badu helburutzat berdintasun arloak. Izan ere, egoera aldatzeko beharrezkoa da esparru guztiekin lan egitea. Aldaketa kolektiboa eskatzen du berdintasuna lortzeak. Herriko taldeetan ere berdintasun irizpideetan antola daitezen sustatzea garrantzitsua da, baina oraindik ez da taldeekin harremanik egin zentzu honetan. Bestetik, herriko talde feministekin batera lan egiten da; guztien helburua berdintasuna izanik, eta hau oso interesgarria da indarrak batzeko eta jende gehiagorengana iristeko aukera izateko. Egun bi emakume talde feministekin du lotura berdintasun arloak eta berdintasun batzordeak: Andraitz emakume taldearekin eta Txantxikuar feministak taldearekin.

5.1.2.1- Ekintzen antolaketa eta sailaren funtzionamenduan

Berdintasun batzordea berdintasunean Oñatiko Udalaren inguruko politikak erabakitzeko gune garrantzitsuena da; herriko elkarte feministek erabaki horietan duten zerikusia ere kontuan hartu behar da, ordea. Berdintasun gaietan inplikazioa eskatzeaz gain, herrian parekidetasunaren alde egin daitezkeen lanen inguruan proposamenak egiten dituzte talde hauek. Hauek akuilu lana egiten dutela esaten duenik bada Udalean, ondorioz.

Berdintasun batzordean eta berdintasun arloan hartutako erabaki askotan parte hartu dute Oñatiko bi feminista taldeek: Andraitz eta Txantxikuar feministak. Parte-hartze handia dute eta konpromisoa erakutsi dute. Aldarrikapen egunetan, ekintza batzuk elkarlanean antolatu dituzte gainera. Herrijorran, Oñatiarren parte-hartzea sustatzeko egitasmoaren barnean, herrijorran-berdintasuna ekimenean modu aktiboan jardun zuten, eta hortik atera ziren ostera antolatutako ekintza batzuetarako ideiak. Hala ere, Udaletik antolatzen diren ekintza guztiak ez dira elkarlanean antolatzen. Talde bakoitzak bere idiosinkrasia mantentzea nahi da.

Antolatzen diren ekintzen artean daude:

- Genero indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak: ikastetxeekin ekintzak, jaietan pegatinak banatzea, eskuorriak, etab.
- Emakumeen ahalduntzerako ikastaroak.
- Hezkidetza ikastetxeetan.
- Nazioartean urtean zehar berdintasuna aldarrikatzeko egun seinalatuetan antolatutako ekintzak (martxoak 8, maiatzak 28, ekainak 28, azaroak 25): elkarretaratzeak, bideo-emanaldiak, antzerkiak, etab.



7. irudia: Berdintasunaren inguruko kartela Oñatiko Ongintza Saileko bulego tabloian.
Egilea: Farapi S.L.

5.1.2.2- Diru-laguntzak

Egun, diru-laguntzarik banatzen ez bada ere, 2013. urtean diru-laguntzen deialdia egin nahi da. Udalak modu honetan herriko taldeek, berdintasunaren aldeko taldeek zein beste edozeinek, euren taldean berdintasuna bultzatu nahi du horrela. Horregatik, diru-laguntza hori jasotzeko eskubidea izango dute berdintasuna sustatu nahi eta ekintzak proposatzen dituzten taldeek.

5.1.3- Genero indarkeria jasan dutenentzako arreta zerbitzua

Berdintasunaren arlotik, sentsibilizazio kanpainak egitea bada ere funtzio nagusia, Oñatiko Udalean gizarte zerbitzuak eta berdintasuna praktikan lanerako garaian bat bera direnez, arreta zerbitzuaren inguruko informazioa ere atal honetan azalduko dugu.


Sentsibilizazioaren aldetik, azpimarratzekoa da, ikastetxeetan azken urteetan pegatina txapelketa egiten dela. Ikasleek tratu onen aldeko edota tratu txarren aurkako mezua duten pegatinak diseinatzen dituzte eta hauek aurkezten lehiaketara. Pegatina irabazlearen 10.000 kopia egiten dira eta Oñatiko jai nagusietan banatzen dira.

Genero indarkeria tarteko arreta gizarte langilearen bitartez egiten da. Zerbitzura inguratzen denari aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaio: Horren barruan sartzen dira, besteak beste:

- Informazioa eman.
- Jarraitu beharreko protokoloaren berri eman.
- Laguntza juridikoaren berri eman eta zerbitzua eskaini.
- Laguntza psikologikoaren aukeraren berri eman eta zerbitzua eskaini.
- Beste hainbat laguntza moten inguruko informazioa eman (diru-laguntzak, etxebizitza aukerak, adin-txikikoentzako laguntzak, zerbitzu bereziak, etab.)

Oñatin, 2011n 5 emakumek jaso zuten arreta genero indarkeria tarteko. Azken sei urteetan urte bakoitzean arreta jaso dutenen kopurua antzekoa izan da. Emakume hauek bide desberdinetatik iristen dira zerbitzura; borondatez, ertzaintzak bideratuta, osasun zentroaren gomendioz, etab.

“Gehienetan etortzen dira ertzaintzaren bidez, edo medikuak esan dielako: “joan zaitetz eta informatu eta eurak emango dizue, eta egingo dituzte beharrezko gestioak”, eta beno, egiten da laguntza arlo guztietan.” -Gizarte langilea-



20. grafikoa: Genero-indarkeria kasuak tarteko hartutako Oñatiarrak. 2011.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Arreta jasotzen dutenen artean egoera oso desberdinak antzematen dira eta gizarte sare zabala ez duten emakumeentzako oraindik ere zailagoa dela indarkeria inguruetik ateratzea ikus daiteke.

*“Kasu mota asko daude, eta ezin ditugu denak berdin tratatu. Ez da iguala Oñatiko emakumea izan, familiaren babesak eduki edo tratatu txarren aurrean atzerritarra izatea, familiaren laguntzarik ez edukitzea, hizkuntza ez menperatzea... Kasu batzuetan edo besteetan erabili beharreko errekurtsoak eta egin beharreko gestioak oso diferenteak dira”- **Gizarte langilea-***

Kontuan hartu behar da, kasu batzuetan, epaileak hala agindu duelako normalean, tratatu txarren emale izan diren gizonetako ere arreta jasotzen dutela. Arreta psikologikoa izan ohi da. 2012ko uztailan oraindik ez da egon gizonik zerbitzu hau jaso duenik. 2011n gizon batek jaso zuen.

Arreta emateko barne protokolo ez-ofizial bat sortuta dute gizarte langileek, Emakunderen eta Eudelen gomendio giden arabera egin zutena. Funtzionamendua ona dela uste dute.

5.1.4- SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK

Oñatin orain arte egin diren sensibilizazio programa batzuen inguruko datuak emango ditugu atal honetan, arlo honetatik egiten diren lanen inguruko ideia bat egiteko. Puntualki egin diren ekintzak dira, batzuk arloa abian jarri aurretik ere egiten ziren ongizate zerbitzuaren ekimenez, eta beste batzuk 2011ko ekainetik gauzatu dira.

5.1.4.1- Emakumeen ahalduntzerako ikastaroak

Emakumeentzako ikastaroak aspaldidanik antolatzen dira. Azken urteetan, berdintasunaren beharraren inguruko kontzientzia handitzen joan ahala, ikastaro eskaintza dibertsifikatu eta zabaldu egin da. Emakumeek emakume izate hutsagatik bizi duten menpekotasun egoera sistematikoaz jabetu eta horrek aurrean jarrera aktibo bat lortzea oso garrantzitsua da eraldaketa emateko. Bizitzako aspektu guztietan, alde indibidualenetik taldekoenera, topatzen diren desberdintasunen inguruan hausnartu eta egin daitekeenaren gainean birpentsatzea bultzatu nahi dute ikastaro hauek. Antolatutako ekintzen artean daude:

-Autoestima ikastaroa 45 urtetik gorako emakumeendako:

“Gure eguneroko harremanetan jakin dezagun zer den tratu on eta tratu txar fisiko eta psikologikoa”.

-Informatika ikastaroak Oñatiko Ikas Hiru akademian.

-Autodefentsa tailerra.

-Emakumearen osasunarekin lotura duten hitzaldiak, adibidez, bularreko minbiziaren gainekoak.

5.1.4.2-Hezkidetzak ikastetxeetan

Hezkidetzak, berdinen arteko tratu onak bultzatzea du helburu. Generoa estereotipo, rol eta aurreiritziak alde batera uzteko, haur eta nerabeengan iritzi kritikoa sustatu nahi du. Sexuen arteko berdintasunean eta sexualiterako aukera askatasunean oinarritzen den heziketa espezifikoa da. Hezkidetzak berdintasun balioetan oinarritutako etengabeko hezkuntza proiektu bat izatea da helburua; eta horrez gain, berdintasunaren gaia espezifikoki lantzeko aukera ematen dute berariazko programa hauek. Hezkuntza komunitate osoari, hau da, ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutako programak izatea litzateke egokiena.

Ikastetxeetako ikasleekin aurrera eraman zen *Equala* programa 2008-2009 ikasturtean: hezkidetzak lantzen zen 4-5 orduko saioak eginez bi egunetan, 3. eta 4. DBHko ikasleekin. Ez zuen arrakasta handiegirik izan. Egutegi eta ordu kopuruen arazoa izan zela uste da. Horregatik, beste modu batera antolatuta 2012-2013 ikasturtean beste programa bat lantzea aurreikusten da.

5.1.4.3-Jaietan

Jai eremuak, eraso sexistak gertatzeko probabilitate handiko guneak izaten dira. Jende pilaketak zein alkoholaren eta drogen kontsumoak gora egiten duten eremuak izan ohi dira, eta emakumeekiko objetualizazioa bistakoa izaten da halakoetan. Herritar guztiek horien aurkako jarrera izateko, hainbat ekimen antolatu ohi dira.

Oñatiko jai nagusietan kontzientziazio lana egiteko, pegatinak ateratzen dira. Ikastetxeetako ikasleek aurkeztutako pegatinen artean lehiaketa bidez bat aukeratzen da

eta 10.000 kopia ateratzen dira banatzeko. Harrera ona izaten dute.

Jaietan indarkeria sexistaren aurkako beste kanpainaren bat egitea ere bada helburua, tabernariei eta herritarrei, eraso sexista zer den eta hauen aurrean nola jokatu altzeko. Aurreragorako utzi den ekimena da hau.



8. irudia: Oñatiko 2011ko jaietan ateratako pegatina.

Iturria: Oñatiko Udala.

5.1.4.4-Aldarrikapenak

Nazioarte mailan egun zehatzetan aldarrikapen bereziko egunak zehaztuta daude. Horietako batzuk, genero desberdintasunaren aurkako eguna direla esan daiteke. Aldarrikapen horiek urte osoan eta egun guztietan egiten badira ere, egun horiei esker oihartzun handiagoa hartzen dute. Horregatik, sentsibilizazioan eta herritarrengan eragiteko egun aproposak dira.

Oñatin 2011 ezkeroko egun hauetan Udala eta herriko talde feministen artean egitarau bateratua osatzen da. Ekintza batzuk elkarlanean antolatzen dira eta beste batzuk, talde baten edo Udalaren ekimenez. 2011ko ekainetik 2012ko uztailean bitartean aldarrikapenerako erabili diren egunak honakoak dira:

- Azaroak 25, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.
- Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna.
- Maiatzak 28, emakumeen osasunaren nazioarteko eguna
- Ekainak 28, LGTB (Lesbiana, Gay, Trans eta Bixesualen) duintasunaren nazioarteko eguna.

Egun hauetan, elkarretaratzeak, film emanaldiak, hitzaldiak, antzerkiak, tailerrak, erakusketak eta antzerakoak antolatzen dira.

Oñatiko emakumeen eta gizonen egoeraren berdintasun diagnostikoa



9. irudia: Berdintasun sailak eta Kulturak 2012an ateratako kartel desberdinak. Iturria: Oñatiko Udala.

5.1.5- LABURBILDUZ -BERDINTASUN ZERBITZUA-

AHULGUNEAK

-Berdintasun arloaren baliabideak mugatuak dira, bai pertsonal aldetik eta baita diru aldetik ere.

-Ez dago arloaren funtzioen zerrendarik, ez eta lan-plangintzarik ere.

-Orain arte ez da egon Udaleko beste arloekin lanerako harreman zuzenik. Beste arloetatik gizarte zerbitzuekin lotzen da, eta bere izaera transbertsala ez da ezezaguna da.

INDARGUNEAK

-Herriko talde feministekin harreman zuzena dago.

-Berdintasunaren arloko lanak batzordea sortu aurretik ere egiten zirenez, lan-dinamika bat badago.

ARRISKUAK

-Berdintasun zerbitzuaren helburuak betetzeko, beste Udaleko arlo, beste erakunde publiko, ikastetxe, kultur eragile edota enpresen inplikazioa beharrezkoa da. Ondorioz, hauen harreraren araberakoa ere izango da emaitza.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Lan-ardatzak sendo finkatzeko aukera dago. Baliabideak ezarri horretarako.

-Udal funtzionamendu orokorrean berdintasun irizpideak modu arautuan jaso eta aplikatzea.

-Udaleko sailekin harremana estutu eta bakoitzerako berdintasun irizpideak ezartzea: hizkuntza eta irudi ez sexistak, kontratazioetan eta diru-laguntzetan kontuan hartzea, pertsonen datuak sexuaren arabera banatuta jasotzea, etab.

-Genero indarkeria jasandako emakumeen arretarako protokoloa modu arautuan jasotzea; ofizialtzea.

-Herriko talde eragileetan, ikastetxeetan eta enpresetan berdintasuna bultzatzeko ekimenak abian jartzea.

-Sentsibilizazio ekintzak burutzea egutegi bat jarraituz.

-Emakumeen lanak ikusarazteko ekimenak gauzatu

-Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko ikastaro, tailer eta bestelakoak antolatzea.

5.2- AUZOAK, LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA

Izaera desberdinetako lanak bateratzen dituen saila da auzoak, landa garapena eta ingurumena sailarena. Langile bakar bat arduratzen da gai hauek eramateaz. Saitetik kudeatzen diren zerbitzuak honakoak dira.

- Auzoetako azpiegiturak.
- Landa garapena: Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea laguntzea.
- Parke naturala eta basoak.
- Ingurumeneko gaiak eta horren barnean, agenda 21 programaren kudeaketa.

Erabaki guneak bi batzordetan banatzen dira. Auzoak eta landa garapeneko batzordea dago batetik, eta ingurumen batzordea dago bestetik. Lan taldeei dagokienez, hirigintza eta lurralde antolamendua, zerbitzuak, auzoak, landa garapena eta ingurumenak osatzen duen batzordean dago.

Gai guztiak aurrera ateratzeko, baliabide pertsonalaren urritasuna dagoela, eta hori edozein proiektu aurrera eramateko oztopoa dela azaltzen da sailetik.

Horrez gain, berdintasun irizpideak gai hauetan nola landu jakiteko, zerbitzuan prestakuntza jaso beharra dago.

5.2.1- GENERO IKUSPEGIA SAILAK KUDEATZEN DITUEN ZERBITZUETAN

Sailaren jardunean berdintasunaren gaia ez dela mahai gainean egon esan daiteke. Agenda 21eko plana da salbuespen bakarra. Baina kontuan harturik planak arrakastarik ez duela izan eta ez dela aurrera eraman hainbat arazo tarteko, esan daiteke, erronka berri bat dela emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako bidean neurriak hartzea gai hauetan.

Diru-laguntzaren bat kudeatzerakoan ere, baldintza pleguetan berdintasun irizpideren bat sartu izan da, baina ez da modu kontziente batean egin. Hauek egiteko ereduetan berdintasunaren puntua agertzen zelako baizik.

5.2.2- LAN ARDATZEN AZTERKETA

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren egoera desberdina da arlo bakoitzean. Hori ezagutzea beharrezkoa da, dauden hutsuneak identifikatu eta aldaketk bultzatzeko neurriak diseinatu ahal izateko. Horregatik atal honetan, gai bakoitzerako egiten diren lanak aztertuko ditugu.

5.2.2.1- Landa Auzoak

Oñatin 16 landa auzo daude. Udalak zerbitzu honekin, auzo horiek azpiegitura mailan (saneamendua, argiteria, errepideak, pistak, ekipamenduak) ondo hornituta egotea bilatzen du, landa eremuko bizilagunen bizi-kalitatea bermatzeko asmoz. Europatik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzak garrantzia handia dute. Hirigintzarekin eta zerbitzuen departamenduarekin elkarlanean egiten dira honenbestez lan askoz. Bi departamenduek elkarlanean aritzen direnean ez dute berdintasunaren inguruko aspekturik kontuan hartzen.

Berrikuntzen artean dago 2012an abian jarri den ekimena: auzokideekin aurrekontu parte-hartzaileak lantzen ari dira. Honen helburua, auzoei diru-kantitate bat ematea da, auzokoek eurek kudeatu dezaten hau. Kudeaketa zuzena bilatzen da modu honekin. Parte-hartze prozesuan zehar ez da kontuan hartu prozesu parekidea izatea. Hau da, emakumeek parte-hartzeko ahalegin berezirik ez da egin, prozesuan zehar ez da gai hau kontuan hartu eta parte hartzaileen perfilaren inguruan ere ez da daturik jaso. Ondoren sortu daitekeen lan-modurako berdintasun irizpideak oraingoz ez badira sortu ere, aukera bat litzateke hori.



10. Irudia: Oñatiko Murgia auzoa.

Iturria: EITB.

Egilea: Roberto Plazaola.

5.2.2.2- Landa garapena.

Landa garapenaren helburua, lehenengo sektorea bultzatzea da. Horretarako hainbat diru-laguntza ematen dira, bertako produktuak kontsumitzeko eta bertako baserriar eta artzainei bultzada emateko kanpainak eta azokak antolatzen dira, eta artzain eskolakoekin ere lan egiten da. Lehenengo sektorea ordea, oso egoera larrian dago. Ekonomikoki zailtasun handiak dituen sektorea da, eta ondorioz jende gutxi erabakitzen du lanbide hori izatea. Jende oso gutxi bizi da Oñatin nekazaritza eta abeltzaintzatik. Horien artean gehiago dira gizonezkoak. Kontuan izan behar da familia bat abeltzaintzatik edota nekazaritza-tatik soilik bizi izan denean, askotan gizonezkoak izan direla gizarte segurantzaren izen eman dutenak. Horrek ez du esan nahi emakumeek ez dutenik lan egiten. Emakumeak lehenengo sektorean ezkutuko ekonomian egon dira beraz. Horrek esan nahi du, lehenengo sektorean diharduten gizonezkoen lan egoera larria bada, kotizatu ez duten emakumeena are larriagoa dela.

Lehenengo sektore indartsuak, elikadura subiranoa eta eramangarria esan nahi ditu. Baina egoera ikusita inork gutxi aukeratzen du bizibide. Gizonezkoak animatzea zaila bada, emakumeak animatzea ere halaxe da.

“Produktoreek etekinik ezin badute atera, itxi egingo dute, eta honenbestez lana egin behar da zentzu askotan. Ni gaztea banaiz eta nekazaritzan sartzeko gustatu egin behar zaizu, pega pila bat daude, inbertsio handiak eta errentabilitate txikia. Komertzializazioan lan egin behar da, eta hor Udalak egin dezakeena. Nik pleguetan jartzeagatik 5 puntu gehiago emakumea izateagatik ez dugu emakumerik erakarriko. Beste zerbaitekin egin behar da.” -Landa garapeneko teknikaria-

Nekazaritza bultzatzeko, eta horretan jarduten dutenen errekonozimendu gisa, San Migel jaietan 'herri eguna' bezala ezagutzen dena ospatzen da. Azoka egiten da eta bertan baserriko produktu desberdinak saritzen dira. Artzainek euren artean, omenaldiak ere egin izan dituzte baina Udaletik aparte antolatu izan da. Asteroko azokan ere, baserriarrei eta artzainei bultzada ematearren, diru-saria ematen zaie azokara joateagatik. Azokaren inguruan egin diren ekimenetan, emakumeen lana ez da errekonozitu inoiz.

5.2.2.3- Natur parkeak eta basoak

Natur parkeaz eta basoaz Gipuzkoako Foru aldundia arduratzen da. Udala aldundiarekin elkarlanean behar denean, auzoak, landa garapena eta ingurumena sailaren bidez.

Basoen inguruko gai batzuetan udalak ere badu zeresanik, ordea. Horren baitan kokatzen da, 2012. urtean egin den basoari buruzko parte hartze prozesua ere. Herri-jorran izenarekin parte-hartze prozesu desberdinak jarri dira abian; horien artean basoari buruz aritzeko 'Basogintza herri-jorran' prozesua aurrera eramane da. Parte hartze prozesu hauetan ez da kontuan ez da kontabilizatu zenbat parte-hartzaile egon diren ezta sexua ere.

5.2.2.4- Ingurumena

Ingurumenaren inguruko jarduerak izaera desberdinetakoak dira. Eramangarritasuna bermatzea da helburua: hau da, egungo belaunaldiak duten beharrak asetzeko moduak, hurrengoei euren beharrei erantzuteko aukera eman behar die, eta horretarako beharrezkoa da gizarte, ekonomia eta ingurumen mailan oreka lortzea. Berdintasun printzipioa barneratzen du beraz ikusmolde honek: eskubide berdintasuna generoari, etniari, kulturari, ekonomiari, erlijioari, mugikortasunari, irisgarritasunari eta beste hainbat aspekturi dagokionean.

Ikuspuntu hori aurrera eramateko Agenda21 ingurumen plana egin zen. Udalsarean, Agenda21 duten udalerrien sarean, dago Oñati. Plana egin zenean, genero berdintasunaren irizpidea kontuan hartu zen bada. Hainbat arazo tarteko, plana ez da betetzen ari, ordea.

“Agenda 21 landu ezkerro berdintasuna lantzea beharrezkoa da. (...) Plan hau egin zen horretan sinetsi gabe, beste arloekin kontatu gabe, eta horrenbestez ekintzak ez dira egiten. Eremu sozialean ekintza plan berria egitean, Udal sareak gida bat egina dauka, eta horren barnean berdintasuna, generoa egongo da.” **-Ingurumen teknikaria-**

Ingurumena lantzeko ezinbestekoa da udaleko sail desberdinekin eta herriko taldeen inplikazioa. Ingurumenaren baitan, oso izaera desberdineko elkarrekintzak gerta daitezke, eta horregatik interesgarria da harremanak mantentzea. Ingurumenetik horrelako ekimenetan parte hartzeko aukera egon da, eta positibotzat jotzen da. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailaren 'Tipi-tapa proiektua' horren adibideetako bat da: auzuneen artea hirugarren adinekoen kirola eta gizarteratzea bultzatzeko hiru ibilaldi egin ziren, eta azkenean gizarte zerbitzuek eta kirol arloak antolatu bazuten ere, ingurumenak ere parte har zezakeela ikusi zen.

2009an egin zen Bizikleta Plana da ingurumen zerbitzuaren beste proiektuetako bat. Oñatiko bizilagunen bizikletaren erabilera aztertu eta bizikletaz eginiko mugitzeko ohituren inguruko diagnostikoa egin ostean, bizikletaren erabilera sustatzeko Plan bat ezarri zen. Bertan, emakumeen eta gizonezkoen ohiturak bereziturik ez ziren jaso.

Mugikortasunaren inguruan beste ekimen bat ere aurrera eraman zen. 'Lanbusa' bezala izendatutako zerbitzua: herrigunetik industrialderako ibilbidea egiten zuten autobusak jarri zituzten lanera sartu eta irteteko irteeretan. Hiru urteko hitzarmena 2012an amaitu da, eta balorazio negatiboa egin ostean bertan behera geratu da. Zerbitzuaren kostua enpresek bere gain hartzea zen helburua hiru urteak pasatzean (ordura arte Udalak ere ordaintzen zuen zati bat), baina zerbitzua mantentzea oso garestia dela erabaki da. Ez da egin erabiltzaileen ohituren eta ezaugarrien inguruko azterketarik, eta honenbestez ezin daiteke baloraziorik egin generoaren ikuspuntutik.




mugikortasuna



11. irudia: Oñatiko mugikortasun iraunkorreko logoa.
Iturria: Oñati-iraunkorra web orria.

Oñatiko garraio publikoaren eskaintzaren inguruko eta Oñatiarren garraio ohituren inguruko azterlan bat egitea egokia litzateke, beti ere emakumeen eta gizonezkoen ohitura eta arazoak jasoz, garraio jasangarriaren plan bat diseinatu ahal izateko. Izan ere, zenbait ikerketek erakusten dute, garraio publikoaren eta garraio pribatuaren erabilera, eta egiten diren ibilbideak desberdinak direla emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan. Emakumezkoek mugitzeko traba gehiago izaten dituzte, eta lana eta familia bizitza bateratzeko garraio aukerak muga moduan bizi direnean, badirudi, emakumeek familiari denbora gehiago eskaintzeko lana uzten dutela edo baldintzak txarragoetako lan bat hartzen dutela familiatik gertuago egoteko. Aldiz, orokorrean, gizonezkoek ez dute horrelako aukerarik egiten, zaintza eta familiako ardurak ez dituztelako euren egitekotzat bizi⁶. Gizarte aurreratuetako joera orokorra baina ez da hau, eta horregatik tokian tokiko azterlana egin beharko litzateke Oñatin ere horrela dela esateko.



12. irudia: Oñatiko autobus zerbitzuen ibilbideen mapa
Iturria: Mugipuzkoa.

Zabor bilketarako sistemaren inguruko parte-hartze prozesua da laster ingurumen sailak martxan jarriko duen ekimen berria. Atez ateko sistema jartzeko helburuarekin egingo dira bilerak herritarrekin. Aurreikusia dagoenez, herritarrei zabalik egingo dira parte-hartzeko deialdiak. Komenigarria litzateke, Udalean egiten diren prozesu guztietan parte hartzailen kopuruak sexuaren arabera eta hauen ezaugarriak jasotzea, parte-hartzearen inguruko azterketak egiteko materiala edukitzeko eta hauetan generoaren arabera desberdintasunik dagoen ezagutzeko.

6 Farapi (2007): *Mugikortasuna eta generoa. Gipuzkoan, garraio publikoa emakumeen beharrei egokitzeari buruzko azterlana*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

5.2.3- LABURBILDUZ.-Auzoak, landa garapena eta ingurumena-

AHULGUNEAK

- Baliabide pertsonal eskasa eta lan karga handia.
- Ez dira parte-hartze prozesuetako eta ekintzetako parte-hartzaileen datuak sistematizatzen.
- Egin diren azterketa guztietan ez da berdintasuna irizpidea kontua hartzen.
- Lehenengo sektorearen egoera larria da.

INDARGUNEAK

- Agenda 21 plana osatzean berdintasuna irizpidea kontuan eduki zen, eta planeko ekintzetan aurreikusten da.
- Harreman ona dago beste sailekin, eta lan taldeetan.
- Udalsareako partaide izatean, babesa eta esperientzia trukerako guneak daude.

ARRISKUAK

- Lehenengo sektorearen egoera merkatuaren eta ekonomia sistemaren araberakoa da.
- Diru-laguntzen dependentzia handia dute landa esparruko ekimen askok: horiek jarraitzea edo bukatzea ez dago Udalaren esku.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Sailen arteko elkarrekintzarako guneak sortu eta horietan parte-hartu.
- Berdintasunaren inguruko prestakuntza jasotzea.
- Parte-hartze prozesuetako eta ekintzetako parte-hartzaileen datuak sistematizatu.
- Lehen sektoreko emakumeen lana errekonozitzeko ekintzak gauzatzea.
- Parte-hartze prozesuetan emakumeen partaidetza bermatzeko baliabideak jarri.
- Ingurumen azterketak eta planak egitean, gizarte joerak aztertzerakoan generoaren araberako azterketa egin, eta horiek kontuan izan planak egiterakoan.

5.3- ENPLEGUA

Enplegua sailaren helburua Oñatin lan-merkatua suspertzea da eta horretarako behar diren baliabideak eskaintzea: banakoei zein enpresei aholkularitza ematen zaie horretarako, eta programa espezifikokoak garatzen dira, langileentzat, enpresak sortzeko gogoz dabilzanentzat eta baita martxan dauden enpresa txikientzat ere.

Udalaren helburua gaur egun epe motzean Oñatiko langabezia tasak behera egitea da. Izan ere, mundu mailako krisi ekonomikoak Oñatin ere izan du eraginik. Beste herri batzuk baino hobeto mantendu da duen industria ehun indartsua dela-eta, baina hala ere langabezia %8koa da.

Hiru ardatzetan lan egiten da nagusiki gaur egun zerbitzutik:

- Informazioa eta aholkularitza zerbitzua.
- Formazioa eskaintza: informatika eta autonomo izan nahi dutenentzako prestakuntza ikastaroak.
- Enpresa gunearen kudeaketa: hasi berri diren enpresentzako 6 bulego eta 8 tailer daude Zubillagan.

Orain sei urte arte, langileen eta langabeen prestakuntza berritzeko ikastaroak antolatzen ziren. Ordutik, ikasketen homologazioak behar zirelako, zerbitzu hau Zuazola-Larraña ikastetxean eskaintzen dira. Duela 20 urtetik soldadura eta kaldererian espezializatutako zerbitzua ematen zen Udalaren enplegu zerbitzutik. Makinaria eta ekipamenduz hornitutako tailer bat egin zen. Espezialitate hauetako langileak eskatzen zituzten bertako enpresak eta jende askok ikasi nahi zuen; hori zela eta urte osoan zehar ikastaroak ematen ziren. Ikastaro hauek orain Zuazola-Larraña ikastetxeak kudeatzen ditu.

Enplegu zerbitzua eskaintzeko langile bat dago. Erabakiak sozioekonomia batzordean hartzen dira. enplegua, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta turismoa arloek osatzen dute.

Debagoienako mankomunitatetik bideratzen dira lan batzuk. Izan ere, enplegu sustapenaren inguruko programa batzuk mankomunitate mailan bideratzen dira.

5.3.1- BERDINTASUNA LANERAKO IRIZPIDE MODUAN

Udalak, lan eremuan dituen eskumenen barnean, Oñatiko emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko ekimenak bultzatzeko aukera du. Eskubideaz ari garen heinean, hori sustatzeko ardura duela esan dezakegu. Lan produktiboen eta erreproduktiboen arloan Udalak dituen baliabideak eta orain arte egin duena aztertzea interesgarria da hortaz, etorkizuneko jarraibideak zehazteko.

Lana eta langabezia ez dira Udalen zuzeneko ardura, beste erakunde batzuetatik bideratzen diren jarduerak dira (Lanbide, Gizarte Segurantzza). Dena den, lanarena

Udalaren eskumena izan ez arren, Oñatiko Udalak hori sustatzeko programak bultzatzea erabaki zuen. Horietan, kontuan hartu izan dute emakumeek lan-merkatutarako dituzten aukerak txikiagoak direla eta lan baldintza eskasagoetan lan egin izan dutela oro har. Lan banaketa genero rolen arabera izan ez zedin, emakumeek zenbait lanbidetan ere sarbidea izan zezaten estrategia bereziak erabili dira programa desberdinetan. Genero berdintasun sustatzea ez da arautua egon den zerbait: lanaren dinamikak berak sortu dituen beharrei erantzuterakoan eman diren irtenbideak baizik.

“Nik uste dut beti kontuan izan dela. Ez bakarrik detailetan, grafian edo idatzietan. (..) batez ere praktikan. Nori zuzendu programak, bermatu partaidetza berdin berdin eta horrelakoetan. Detaileak garrantzitsuak dira. Nahiz eta ez egon ezer araututa. Ez daude pausuak jarrita baina, praktikan irizpide batzuk jarraitu dira”.

-Enplegu teknikaria-

Inem-ek edo gaur egun Sepe-k zein Lanbidek finantzaturako lanetan adibidez, baldintzak erakunde hauetatik jartzen ziren eta kasu askotan emakumeen lan-munduratzeari sarritzen zen:

“Kontuan eduki hori finantzatzen duenak ere markatzen duela. Adibidez Inemek finantzatzen duen edo lanbidek. Eta orduan beti egoten zen diskriminazio positiboa kolektibo berezientzat. Kolektibo bereziak ziren langabezia denbora asko daramatenak edo 45 urtetik gorakoak, eta emakumeak ere hor sartzen ziren formazio arlo berezietan; normalean emakumeak joan ez diren sektoreetan hor saiatu gara emakume gehiago sartzeko”. **-Enplegu teknikaria-**

Ikastaro batzuetan, soldaduran esaterako, apuntaturako emakumeek lehentasuna izaten zuten. Ikasleen artean gehiengoa ziren gizonezkoak, baina diskriminazio positiboari esker izen emandako emakume guztiek egiten zuten ikastaroa. Batzuetan zaila izaten da, ordea, emakumeak erakartzea. Izan ere oztopoa ez da soilik oztopo kultural bat. Lana bilaa ere bada. Emakume batzuk ikasi arren, gero ez dute lanik aurkitzen. Enpresariak nahiago dute gizonezkoak kontratatzea zenbait lanetan.

“Eraikuntzako espezialitateak ziren: elektrizitatea., arotza, iturgina eta igeltseroa (enkofradorea). Hor neskak eta mutilak zeuden. Neskak elektrizitatean eta arotz. Gero zer gertatu zen? Irten zirela merkatura, eta ez zituzten inork hartzen. Eta frustrazioa sortzen zien. Bi urte ikasten lan pila bat eginez eta, gremioek ez zituzten hartzen. Emaitzak ez badira ikusten oso zaila da erakartzea emakumea horrelako espezialitate batera”. **-Enplegu teknikaria-**

Udalak ez du nahi izan emakumeentzako soilik diren ikastaroak antolatzea lan arloan. Lanak ez duela generorik ulertzen dute, eta emakumei diskriminazio positiboa egin behar zaiela defendatzen dute. Modu horretan, gizonezkoen lantzat jotzen ziren lanpostuetan emakumeak sortzea lortu da, sexu biak lan horietan ikustea normalizatuz. Horren adibideetako bat dira kale garbitzaileak.

Aldiz, emakumeen lan egoeraren inguruko sentsibilizazio kanpainarik ez da egin inoiz: hala nola akoso laborala, lanaren banaketa, bateragarritasuna, lan-baldintzen arteko desberdintasuna, etab.

Erreproduktzio lanari dagokionez, sail honetan Oñatiko Udalak ez du emakumeen eta gizonen arteko desorekak zuzentzeko kanpaina berezirik egin. ezta programarik martxan jarri. Ez du familia eta lan bizitzaren bateratzea ahalbidetzeko neurririk hartu, ezta herriko enpresak horretaz kontzientziatzeko kanpainarik abian jarri ere.

5.3.2- SAILAK EMATEN DITUEN ZERBITZUETAN BERDINTASUNA

Gaur egun sailak ematen dituen zerbitzu nagusietan berdintasuna sustatzea kontuan hartzen den ala ez aztertzea interesgarria da, egun berdintasunak zein garrantzia duen sailean ikusteko. Ikusi dugu, enplegu sailaren historian zehar, emakumeen lan-munduratzeko ekimenak jarri izan direla martxan. Egungo datuek informazio erreala eskaintzen dute, eta horregatik, eskaintzen diren zerbitzuak banan banan jaso dira.

5.3.2.1- Informazioa eta aholkularitza

Udal ematen aholkularitza herritarrei zuzendutako zerbitzu pertsonalizatua ematen da, prestakuntza eta enpleguarekin loturiko gaiez, hala nola:

- Herriko eta inguruko enpresetako lan aukerak.
- Oñatin eta eskualdean antolatutako prestakuntza.
- Enplegu arloan dauden programak eta baliabideak.
- Autoenpleguaren aukera.
- Eskualdeko programa komunak.
- Beste entitateetatik jaso litezkeen laguntzak.

Hauetan emakumeentzako aholkularitza espezifikorik ez da ematen.

5.3.2.2- Informatika ikastaroak

Informatika ikastaroak langileen eta langabeen prestakuntza hobetze aldera antolatzen dira. Hauetan emakumeek zein gizonetako parte hartzen dute. Mota desberdinetako ikastaroak izaten dira.

Kasu honetan ez da ikasleen sexuaren araberako jarraipenik egiten, eta erabiltzen diren materialetan berdintasuna kontuan izatea ez da inoiz irizpidetzat hartu.

5.3.2.3- Autonomo izateko prestakuntza ikastaroak

Udalak, Oñatin enpresak sortu daitezkeen eta horrela herriko ekonomia maila ona izatea lortzeko bitartekoak ematen dizkie herritarrei. Beraien enpresa propioa sortu nahi duten herritarrei enpresen gestioaren inguruko ikastaroak ematen dizkiete. Eta nahi izan ezker, Zubillagan dagoen enpresen inkubategian, bulegoa edo tailerra eskaintzen zaie enpresa

sortu eta lehen urteetarako.

Ikastaro hauetan, gizonezkoek eta emakumeek parte hartzen dute. Azken hiru urteetan, emakumeak gehiago dira. Azkenekoan hamahiru parte-hartzaitetik zortzi izan dira emakumeak. Beste lan esperientzia batzuk izan dituzten emakumeak izaten dira gehienetan. Emakumeentzako krisia gogorragoa izaten ari da orokorrean, eta beren enpresa propioa sortuz euren egoera ekonomia egonkortzea eta euren helburu profesionalak betetzea bilatzen dute.

“Zergatik? Igual motiboa izan daiteke zailtasun gehiago dutela enpresetan sartzeko finko moduan eta beste irtenbide baten bila dabiltzalako. (...) Batez ere behar gehiago dutelako. Ez dira hain gazteak, lehen lanean ibilitakoak dira edo beste baten kontura aritutakoak, edo enpresetan hor bueltaka, nazkatu egin dira, finko egin ez dituztenak, eta igual horrek eraginda gehiago saiatu edo atrebitu dira”. -Enplegu teknikaria-

Berdintasunaren inguruko eta lana eta emakumeen inguruko formakuntzarik ez da jasotzen prestaketan zehar.

5.3.2.4- Bestelakoak

Noizbehinka bestelako programak ere gauzatzen dira enplegu sailetik. Ez dute jarraikotasunik eta ondorioz ezin daiteke esan enplegu sailaren zerbitzu propioak direnik. Beste erakundeekin elkarlanean, lan-munduko sektore desberdinei programa bereziak eskaintzen zaizkie. Normalean Debagoienako mankomunitatearekin batera lan egiten da. Eusko jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaren bidez esaterako, enpresa txikiekin kudeaketari eta elkarlanari buruzko prestakuntza saioak egin ziren. Nazioarte mailan lan egiteari buruzkoak ere egin dira. Prestakuntza hauetan ez dakigu berdintasuna sustatzea kontuan izan ote den.



13. irudia: Olaburuko enpresa zentruaren argazkia eta Bidebarri enplegu zentroaren irudia.
Iturria: Oñatiko Udala.

5.3.3- LABURBILDUZ -Enplegu zerbitzua-

AHULGUNEAK

- Berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea ez dago arautua.
- Berdintasunaren inguruko sentsibilizazio lanik ez da egiten.
- Enpresa ertain eta handiekin ez da lanik egiten.

INDARGUNEAK

- Laneratze programetan eta prestakuntza ikastaro batzuetan emakumeen parte-hartzea sustatu izan da.
- Azpiegiturak daude: enpresa zentroa.
- Debagoienako mankomunitatearekin elkarlana.

ARRISKUAK

- Enpresek programa desberdinetan parte hartu nahi ez izatea edo ezin izatea.
- Enpresek emakumeak kontratatu nahi ez izatea.
- Enpresek emakumeak diskriminatzea lan baldintzetan.
- Enpresek bateragarritasuna ez kontuan hartu nahi izatea.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Laneratze programetan zein prestakuntza ikastaroetan berdintasuna kontuan izatea.
- Programa bakoitzeko parte-hartzaileen datuak jaso sexuaren arabera bananduta.
- Lan mundua eta berdintasunaren inguruko gai desberdinen inguruko kontzientziazio lana egin.
- Enpresetan bateragarritasunaren inguruko garrantziaz kontzientziazio programak gauzatu.
- Lanak generorik ez dutela ikustarazteko lan egin.
- Lan erreproduktiboen garrantziaz kontzientziatu herritarrak, eta horretan diharduten emakumeei prestakuntza eman euren eskubideen gainean.
- Lanbiderekin, Debagoienako mankomunitatearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean lan egin.
- Zuazola-larraña ikastetxearekin lan egin beren prestakuntza ikastaroetan berdintasuna kontuan har dezaten.

5.4- EUSKARA

Euskara zerbitzuak eta berdintasun zerbitzuak izaera bera dutela esan dezakegu. Biek euren gaiaren normalizazioa bilatzen dute; eta horretarako Udaleko eta herriko esparru guztietan, normalizazioa lortzeko ekimenak antolatzen dituzte. Baliabideak eskaintzen dituzte bide horretan aurrera egin nahi duenari lanak erraztuz, sentsibilizazio ekintzak egiten dituzte, ikastaroak antolatzen dituzte, aldarrikapenak egiten dituzte egoera gutxitu batean dauden eskubideak bermatzeko eskatuz, etab. Zeharkako izaera dute arloak direla esaten da horregatik.

Euskara zerbitzuaren helburua, eremu guztietan euskararen erabilera eskubidea bermatzea eta hau sustatzea bada, berdintasunaren kasuan sexu eta sexualitate arrazoiak tarteko diskriminaziorik ez egon eta guztien eskubideak eta aukerak bermatzea da. Hori horrela, euskara zerbitzuari eskatzen dio, bere antolamenduan eta aurrera eramaten dituen ekintzetan berdintasuna kontuan hartzea. Atal honetan, euskara zerbitzuren funtzionamendua aztertuko dugu.

Euskara zerbitzuak, bi lan-eremutan jarduten du: Udalaren jarduneko eremu guztietan euskararen erabilera normalizatzeko, eta Oñatiko herri-bizitzan euskara arlo guztietan normaltasunez erabili dadin sustatzeko, sentsibilizazioa, plangintza zehatzak eginez eta hizkuntzaren transmisioa babestuz. Jardun horren barnean daude:

- Oñatiko euskararen iraupen eta transmisiorako ekintzak gauzatzea.
- Udalaren funtzionamendua hizkuntza normalizatorako ekintzak gauzatzea.
- Sentsibilizazio eta bilarako zerbitzuak ateratzea: ongi etorri katalogoa, euskararen transmisioa, udalekuak euskaraz eta lan munduan euskararen normalkuntza bultzatzeko ekintzak.
- Dendetan eta elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eskaintzea.
- Udaleku irekien antolamendua.
- Bedita Larrakoetxea euskaltegiaren kudeaketa.
- Euskara sustatzeko diru-laguntzak (Oñatiko bertso-eskolari, Goienari eta Euskal Herriko besteak) banatzea.

Oñatiko euskara zerbitzuan langile bat dago lan honetarako. Euskara eta hezkuntza sailean kokatzen da. Euskara eta Hezkuntza batzordean hartzen dira zerbitzuaren inguruko erabakiak. Lan taldeei dagokienez, hiru lantaldeetan parte hartzen du.

- Kultur zerbitzuak: kultur etxea, liburutegia, gazte-lekuko zerbitzuak, euskaltegia, komunikabideak eta hezkuntza.
- Hezkuntza aisialdian: euskara, haur eta gazteria, hezkuntza, kultura, berdintasuna eta prebentzioa.
- Euskararen ingurukoak: euskara zerbitzua, euskaltegia eta hezkuntza.

5.4.1- GENERO IKUSPEGIA EUSKARA ZERBITZUAN ETA ESKAINITAKO PROGRAMAZIOAN

Euskara zerbitzuan bi zerbitzu mota daudela esan dezakegu. Batetik, Udaleko beste sailei, herriko elkarte, merkatari eta enpresei zuzendutako zerbitzu teknikoak daude: euskara baliabideak alegia. Bestetik, programa espezifikoak daude. Hau da, erabiltzaile jakin batzuei zuzendutako programak. Atzerrian jaiotako haurrentzako euskalduntze programak, udal euskaltegia, eta udalekuak daude hor.

Lehenengoetan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzea komeni da. Eta bigarrenagoetan horrez gain, erabiltzen diren ekintzetan eta materialetan eta hauetan lantzen diren gaietan arreta berezia izatea komeni da, berdintasuna sustatu dadin eta diskriminaziorik gertatu ez dadin.

Dena den, ez dugu lortu Oñatiko euskara zerbitzutik genero ikuspegi hau kontuan hartzen den edo berdintasuna sustatzeko programa espezifikorik dagoen jakitea. Arduradunekin harremanetan jartzen saiatu garen arren, ez dugu erantzunik jaso. Bai udaletik zuzendutako beste elkarte, enpresari eta merkatariari zuzendutako zerbitzu teknikoei dagokionez, eta baita programa espezifikoetan ere, genero ikuspegia txertatzea garrantzitsua dela uste dugu. Izan ere, hezkuntza erakundea den nuerrian, espazio egokia da berdintasuna oztopatzen duten genero rola ez erreproduzitzeko.

5.4.2- EUSKARA PROGRAMAK

Euskarako programa espezifikoetan, zerbitzu teknikoan eman daitezkeen baino egoera eta aukera gehiago gerta daitezke. Horregatik, horietan erabiltzen diren materialen eta oro har baliabideetan arreta berezia eduki behar da.

5.4.4.1- Udal euskaltegia

Udal euskaltegiko ikasle eta irakasleen datuak baliagarriak izan daitezke emakume eta gizonen euskara ikasterako orduan dituzten oztopo eta erreztasunak ikusteko. Datu hauek ere ez ditugu lortu, eta beraz, diagnostiko honetatik kanpo geldituko da informazio hau.



14. irudia: Oñatiko Udal Euskaltegia.
Iturria: Oñatiko Udala.

5.4.4.2- Diru-laguntzak

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen lagundu dezaketen ekintzak eta erakundeak bultzatzen eta diruz laguntzen ditu udalak. Herriko elkarteei, eskualdekoei zein Euskal Herri mailakoei ematen dizkie laguntzak. Laguntza horiek ematerakoan ez da orain arte kontuan hartu berdintasuna bermatzen ote duen onuradunak, bai bere izaeraz, baita egiten dituen ekintzetan ere.

5.4.4.3- Atzerrian jaiotako haurren euskalduntze programa

Atzerrian jaiotako haur eta gaztetxoentzako programa bat dago. Bi begiralek euskara erakusten diete. Hezkuntza sailarekin batera antolatzen denez programa hau, hezkuntzaren atalean aztertzen da programa hau.

5.4.4.4- Haurren euskalduntze programa

Ikastetxeen eta Udalaren artean, hainbat ekintzak eta programak modu bateratuan egiteko, koordinazio mahaiak sortu dira. Horietako mahai baten helburua ikastetxeetan euskara eta euskal kultura bultzatzea da. Hori dela-eta, euskara arloak ere bertan parte hartzen du. Hezkuntza arlotik egiten direnez koordinazio lanak, hezkuntza zerbitzuaren atalean aztertu da berdintasuna nola lantzen den kasu honetan.

5.4.4.5- Udalekuak

Udan haur eta gaztetxoentzako udalekuak antolatzen ditu euskara eta hezkuntza sailak. Euskarazko udalekuak izaten dira, eta beste helburu batzuen artean euskararen erabilera sustatzea da helburua. Honi buruzko informazioa hezkuntza sailaren atalean topa daiteke.

5.4.3- LABURBILDUZ -Euskara zerbitzua-

AHULGUNEAK

INDARGUNEAK

-Udaleko eta herriko eragile askorekin elkarlan zuzena dago.

-Lan taldeen sistema sendoa.

ARRISKUAK

-Ez da ikusten kasu honetan sailez kanpoko mehatxurik egon daitekeenik.

AUKERAK

-Programa, ekintza eta ikastaroetako parte-hartzaileen kopurua sexuaren arabera bananduta jaso.

-Erabiltzen diren materialak ez sexistak izan daitezzen bultzatu, eta talde dinamiketan ere zaindu aspektu hau. Berdintasuna sustatzen duten ereduak erabili.

-Gabonetako euskarazko katalogoa banatzean, jostailu ez-sexisten gidarekin batu, berdintasun arloarekin elkarlanean.

5.5- HAURRAK ETA GAZTEAK

Gazteria zerbitzuaren helburua, Oñatiko haur eta gazteei euren aisialdian egoteko, hezteko eta elkarbizitza errazteko guneak eta jarduerak eskaintzea da.

Gazteria, 'haur eta gazteria' sailaren barnean dago kokatua, eta batzorde horretako kidea da honenbestez. Teknikari bat dago lanaldi osoz lan horretarako, eta honen bulegoa Gazte-lekuan kokatua dago. Horrez gain, azpikontrataturako lau langilek lan egiten dute gazteria zerbitzuetan hezitzaile lanak eginez. Udal mailan bi lan-taldetan parte hartzen du:

-Kultur zerbitzuak: kultur etxea, liburutegia, gazte-lekuko zerbitzuak, euskaltegia, komunikabideak eta hezkuntza.

-Hezkuntza aisialdian: euskara, haur eta gazteria, hezkuntza, kultura, berdintasuna eta prebentzioa.

Adin desberdinetako haurrei eta gaztetxoei ematen diete zerbitzua. Zerbitzu guztiak eraikin berean kokatuta badaude ere, gunea banatuta daude, erabiltzaileen adinaren eta gunearen izaeraren eta funtzionamenduaren arabera.

GUNEA	ERABILTZAILEAK ETA FUNTZIONAMENDUA
Gazte Informazio Puntua	-Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua da. Haur, nerabe eta gazteen sustapen zerbitzua. -Asteartetik ostiralera arratsaldez. -Informazio Puntuan langile bat dago.
Topalekua	-12-17 urte bitartekoei zuzendua. -Elkargunea eta adin tarte honetakoei zuzendutako egitasmoak egiten diren tokia. -Egunero arratsaldez irekita. -Hezitzaile bat egoten da.
Informatika gela	-12-17 urte bitartekoei zuzendua. -10 ordenagailu txandaka erabiltzeko eta Topalekuak edota herriko beste elkarteek antolatutako ikastaroetarako. -Asteleheneretik ostiralera arratsaldez irekita. -Arduradun bat egoten da gelan.
Sotoa	-0-7 urte bitarteko haurrei zuzendua. -Asteburu eta jaiegunetan goizez eta arratsaldez irekita. -Gurasoekin joateko gunea da.

Kuboa	-8-11 urte arteko hurrei zuzendua. -Elkargunea eta hilean behin adin-tarte honetakoei zuzendutako txapelketa. -Asteburu eta jaiegunetan goizez eta arratsaldez irekita. -Hezitzaile bat egoten da.
Argazki gelak	-Ilunpetan argazki taldeak kudeatzen ditu bi gela. -Ikastaroak antolatzen dituzte.
Zu zeu egitasmorako gela	-Haur eta gazteekin prebentzioa lantzen dute. -Gizarte zerbitzuek kudeatzen dute.
Ume etorkinen hizkuntz integratzaileko gela	-11-18 urte bitarteko gazte etorkinei zuzendua, euskara ikasteko. -Hezkuntza eta euskara batzordeak kudeatzen du. -Astelehenetik ostiralera arratsaldez.
Kontzertu aretoa	-Musika, argi ekipoa eta barra dago.
Taldeentzako bi gela	-Herriko elkarteek edo gazte-lekuko erabiltzaileek erabiltzen dituzte gela hauek ekintza konkretuetarako.

Zerbitzu hauez gain, lagapen zerbitzua ere badago. Herriko elkartei guneak edota materiala uzten zaizkie beraien jarduerak egin ahal izateko.



15. irudia: Oñatiko Gaztelekua. Iturria: Oñatiko Udala.

5.5.1- GENERO IKUSPEGIA PROGRAMAZIOAN

Gazteria sailak ez du berdintasuna irizpidetzat izan orain arte. Eguneroko informazioaren sistematizazioan ez dituzte adibidez erabiltzaileen datuak sexuaren arabera berezitatea jasotzen. Ekintzak, ikastaroak, lehiaketak, irteerak edo bestelakoak antolatzen direnean ere ez da kontuan hartzen horietan genero rola nola eragin dezaketen eta desberdintasunak ekiditeko biderik.

“Programazio barruan hezkidetzak edo berdintasuna helburu duen ekintzarik ez da egin oraindik.” -Gazteria teknikaria-

Emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak nola antzeman jakiteko, eta hauei aurre egiteko prestakuntza beharko luketela diote gazte-lekuko langileek.

“Nik uste dut gure indargunea lokalak eta jarduerak ematen duen aukera dela. Gertutasuna monitoreen partetik, kriston tratu ona daukate gazteekin.” -Gazteria teknikaria-

Izan ere, gazteekin gai hau lantzeko aukera dutela ikusten dute. Hezitzaileek gazteekin duten harreman onak emaitzak lortzen lagundu dezake.

5.5.2- GAZTERIAK ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Gazte-lekuan gazteria sailak kudeatuta eskaintzen diren zerbitzuek izaera desberdina dute; hau da, programa desberdinak garatzen dira hauetako bakoitzean, eta hauen erabiltzaileak ere desberdinak dira. Horregatik hauetako bakoitza aztertuko dugu, programa bakoitzak parekidetasuna kontuan hartu duen ezagutzeko eta erabiltzaileengan genero rola nola eragiten duten jakiteko.

5.5.2.1- Gazte Informazio Puntua

Gazte informazio puntua asteartetik ostiralera arratsaldean egoten da zabalik. Foru Aldundiaren zerbitzua da; jendaurreko leihatila dela esan daiteke. Bertan, haur, gazte eta nerabeek, arlo desberdinetan dituzten abantailen eta aukeren berri jaso dezakete, eta baita horiek egin nahi izanez gero izena eman ere. Bertan egin daitezkeen izapidetako batzuk, txartelak lortzea (gazte-, ikasle-, irakasle-, albergista-, etab.), bidaiatzeko informazioa eta gidak, diru-laguntzen inguruko informazioa jaso edota lan eskaintzen eta beken berri jasotzea da besteak beste.

Gazte Informazioaren programazioa ez da bertan erabakitzen eta beraz, horretan gutxi dago egiteko. Gazte Informazio Puntua erabiltzen duten erabiltzaileen inguruko informaziorik ere ez dago, eta beraz, ezin daiteke hauen gaineko irakurketarik egin.

5.5.2.2- Topalekua

Topalekua, 12 eta 17 urte arteko gazteentzako txokoa da gaztelekuaren barnean. Egoteko leku bat da. Bertan jolaserako eta elkarrekintzarako hainbat material daude: futbolinak,

pin-pona, saskibaloia kanasta, Play Stationak, mahai jolasak, prentsa, musika, malabareak, pantaila erraldoia eta proiektorea, etab.

Horrez gain, egun konkretuetarako ekintzak antolatzen dira, eta hezitzaileek gauzatzen dituzte erabiltzaileekin batera. Ekintza batzuk Topalekuan bertan, Gazte-lekuan dauden taldeentzako geletan nahiz kanpoan gauzatzen dira. Mota desberdinetako ekintzak egiten dira.

EKINTZA MOTA	EGIN DIREN JARDUERAK
Txapelketak eta lehiaketak	Ping-ponga, argazkiak, futbolina, basket, toka, paperezko hegazkinak, xakea, bertso-paperak, dardoak, frontenisa, txapak, musa, ...
Irteerak	Gabonetako Gazteentzako Parkera (PIN), saskibaloia ikustera, patinatzerak, Kutxaespaciara, paint-ballean aritzera, cartinga eta gidaketa arduratsua, Senda Vivara, hondartzara, Kayakean ibiltzerak, Akuariumera, museo ezberdinetara, Arrikruzera, ...
Saio didaktikoak	Blues musika (Belceblues taldea), Magia (Chan magoa), Munduko instrumentuak (Pablo Mezzelani), Hip-hop eta Rap musika (Revolta Permanent), Zientzia eroa, Buah Txabal!, Senegalgo musika (Kataia talde senegaldarra), Kantu bat etxean nola grabatu (Mikel Fernandez eta Iker Martinez de Zuazo), Dj.ak eta platoak (Esne Beltza), Bateria (Jimmy Irizar eta Iban Idigoras), Perkutsioa eta trikitia (Iñaki Plaza eta Jon Garmendia), Gitarra elektrikoa eta bere sekretuak (The Covers taldea), ...
Ikastaroak eta tailerrak	Argazkigintza (Gorka Salmeron), Zen margogintza (Andy Kay), Stop Motion animazioa (Koke Rioboo), Automakilaia (Dor estetika), Bitxigintza (Edurne Ugarte), Zaborra eta artea (Ruben Fuentes), Larrugintza (Txatxilipurdi), Komikigintza (Pernan Goñi), Antzerkigintza, Futbolina (Miguel Angel Martín), ...
Erakusketak	Batetik Bestera (urtero egiten da argazki lehiaketari lotuta), De Saldo (artista latinoamerikarrak), Punk erakusketa (Hollidays in Bardulia), Rockaren mundua argazkitan (Juxe), Fotomaton argazki erakusketa (Ubeda), komikia, Amazonasen zehar Ekuadorreraino argazkitan (Juxe), ...
Festak	Bertso paper lehiaketako sari-banaketa festa (Iaz Maialen Lujanbio etorri zen sariak banatzera), Kubotik Topalekura salto egiten duten gazteei ongietorri festa urtero, Diskofesta hilero, ...
TTB (Topalekuko telebista)	TTB Zinea, TTB Kirolak (futbola, pilota, saskibaloia, txirrindularitza, eskubaloia, ...).

Erabiltzaileei dagokienez, eguneko 50 gaztetxo inguratzen dira bertara gutxi gora-behera. Erabiltzaile kopurua ez da jasotzen modu sistematiko batean, eta honenbestez, ekintza guztietarako sexuaren arabera berezitutako daturik ere ez dugu, erabiltzaileen perfilean sexuak eragiten ote duen jakiteko.

Zenbait kasutan datu horiek jaso dira, eta horien gainean irakurketa egin daiteke. Gainera Topalekuko egunerokoaren zati diren hezitzaileek, antzematen dituzte generoaren araberako desberdintasunak. Ikusten da:

- **Gazteak gazte-lekura iristen direnean neska taldean edo mutil taldean iristen dira.** Gazte koadrila bat bakarrik joaten da neska eta mutilez osatua dagoena. Gazteek berdinen artean duten harremantzeko moduan neskak alde batetik joan ohi dira eta mutilak bere aldetik. Elkartzeko espazioak bilatu behar izaten dituzte. Lagun taldeen antolamendu hau, belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta gizarteko idatzi gabeko arau baten moduan funtzionatzen du.

“Atetik sartzean igartzen duzu koadrilak direla edo denak mutilak edo denak neskak. Nere garaian ere hala zen. Gero barnean, jolas desberdinekin, espazio berean egotean eta ekintzetan parte hartuz, nahastu egiten dira.”-Topalekuko hezitzailea-

Belaunaldi berekoak izan arren, nesken eta mutilen artean banaketa bat dagoela erakusten du horrek; gizarteak nolabait ezartzen du nesken lagun sarea nolakoa izan behar den eta mutilena nolakoa. Ondorioz, elkartzeko mekanismoak bilatzen dituzte. Dena den, pentsatzekoa da berdintasuneranzko pausoak eman ahala desagertzen joango dela banaketa hori.


- **Topalekuan egunerokoan, hau da, ekintza berezirik ez dagoenean, nesken eta mutilen rola argi bereizten dira:** neskak eserita eta hitz egiten egoten dira; mutilak berriz aktiboagoak dira eta jolasean ibiltzen dira gehiago. Genero rolen banaketa tradizionalarekin nolabait lotutako jarrerak dira honakoak.

“Neskak gehiago dira jesarrita egotekoak eta berba egiten.”-Topalekuko hezitzailea-

Jolas batzuk mutilek erabiltzen dituzte neskek baino gehiago: Play Stationa edo pin pon-a adibidez. Gizartean mutilen jolas bezala ulertu izan dira hauek. Lehiarekin zerikusia dutelako agian. Dena den, badira beste antzerako ekintza batzuk, futbolina esaterako, eta hauetan neskek ere mutilek adina parte hartzen dute.

- **Topalekuak antolatutako ekintza batzuetan nagusiki neskek parte hartzen dute eta beste batzuetan nagusiki mutilek.** Genero rola agerian gelditzen dira ekintzak antolatzen direnean. Ekintzaren ezaugarriaren arabera, emakumeen rola edo gizonen rola dela uste badute, genero horretakoak sentitzen ez direnetako batzuk, parte hartzeari uzten diote. Hau da, ekintza batzuk mutilentzat direla, eta beste batzuk neskentzat direla ulertzen dute, eta beren burua ekintza horietatik aparte uzten dute.

Irteeren kasuan aipagarria da, dauzkagun datuak ikusiz, autoaren inguruko irteerara ez zela neskarik joan. Guztiak mutilak izan ziren. Autoa, emakume zein gizonezkoek erabiltzen duten arren, elementu maskulintzat ulertzen da. Are gehiago automobila aisialdiarekin lotzen bada. Automobilak maskulinitate hegemonikoaren ereduak dituen ezaugarriak eta sinbolikotasuna bateratzen ditu: indarra, ausardia, arriskua, lehia, teknologia... azken batean boterea.



21. grafikoa: Topalekuak antolatutako irteeretan parte hartutakoen kopurua sexuaren arabera (%).
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.


Bestelako ekintzen ere nabarmentzen dira desberdintasunak. Bitxigintza ikastaroa antolatzen bada esaterako, izena ematen duten guztiak emakumeak izaten dira:

“Bitxigintza tailer-ikastaroa antolatu genuen. Denak neskek ziren”
-Topalekuko hezitzailea-

Horrek erakusten du, ekintzek ez dutela generorik barnera dezaten gazteekin landu beharra dagoela berdintasuna zer den. Ekintzak edonork egin ditzakeela; berdintasunak aukeratzeko askatasuna esan nahi duela; eta gizarteko arauak sexuaren arabera parte hartzea mugatzen badute desberdintasun egoera bizi dugulako dela. Izan ere, genero rolak hain daude barneratuak kasu batzuetan, oharkabean horiek betetzen direla planteatu ere egin gabe ekintza horretan parte hartzeko aukera dagoela. Horregatik, muga ezikusi hori gainditu eta zertan parte hartu nahi duten modu kontzientean erabakitzea litzateke berdintasunean bizitzea. Horrez aparte, posible da gazteek beste generoari egozten dizkioten ekintzetan parte hartuz gero, berdinen taldean gutxietsia izateko beldurra izatea. Ekintza batzuetan parte hartzea lagunen taldean baztertua izateko arrisku moduan ulertu baitezakete, eta horregatik ez dira ausartzen parte hartzen.

– **Neskek oro har ez dute lehia eta txapelketetan parte hartu nahi izaten.** Txapelketak antolatzea ohikoa da Topalekuan. Nesken parte-hartzea lortzea zaila ziaten da, mutilen kasuan ez bezala. Gizarteko maskulinitate eredu zabalduenak mutilen lehiakortasuna sustatzen du. Aldiz, eredu femeninoan lehiakortasunerako lekurik ez dago. Esan liteke, mutilek elkarrekin harremanak izaterakoan lehiakortasuna oinarrian izaten dutela. Neskek, ordea, nesken taldean ez dute horrelakorik behar.

Txapelketen inguruko datuak ikusiz, gorputz mugimendu handia eskatzen duten ekintzetan neskek ez dutela parte hartzen ikus daiteke. Aldiz, geldirik, eta pentsatzearekin zerikusia duten kontuetan zertxobait gehiago animatzen dira.



22. grafikoa: Topalekuak antolatutako lehiaketetan eta txapelketetan parte hartutako kopurua sexuaren arabera (%).

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Topalekuko hezitzaileek gainditu beharreko mugatzat ikusten dute:

“Saiatzen gara, koadriletara joan eta esatea neskei, txapelketa dago, eta saritxo bat dago... (...) Baina askok ez dute gura izaten. Txapelketetan ez. Beste ikastaroetan edo irteeretan bai. (...) Gero eurak dabilta eskubaloian, igeriketan eta badituzte hor txapelketak eta parte hartzen dute, baina hemen ez.” -Topalekuko hezitzailea-

Neskek lehiaketetan ez parte hartzeko arrazoi bat baino gehiago egon daitezke. Oñatiko kasura, arrazoi zehatzak ezagutzeko gazteekin landu beharko litzateke hori, eta kasu partikular bakoitza baloratu beharko litzateke. Genero rola eta emakumetasunaren eta gizentasunaren ereduak nola ulertzen dituzten ezagutzea premia da horretarako. Eredu hegemonikoak kontuan hartuz, lau aspektuk eragin dezakete:


- a. Proposatzen diren txapelketetan egingo den ekintzarako **erreferente emakumerik ez** dago edo oso gutxi daude. Eredu hori ez dagoenez, ez dira identifikatzen ekintzarekin, eta ez dute bere burua horretan ikusten.
- b. **Beldur dira** parte hartzen badute lagunen artetik baztertuak izateko.
- d. **Emakumeen gorputzaren gainean dauden presioak eta betebeharrak** direla eta, gorputzaren gehiegizko erakusketa direla kontsideratzen duten ekintzetan ez dute parte hartzen, bere gorputzaren inguruan egon daitezkeen epaiketak ekidinez.

e. **Lagunen artean harremanak izateko modutik kanpo ulertzen dute lehia.** Aisialdian, ez dute lehiarik egin nahi.

5.5.2.3- Informatika gela

Informatika gela astean zehar arratsaldez egoten da, nahi duten 12 eta 17 urte arteko gazteek ordenagailuetan ibiltzeko aukera izan dezaten. Noizbehinka ikastaroak antolatzen dira, bai gazteria zerbitzuaren ekimenez, eta baita herriko beste elkarteek antolatuta ere. Arduradun bat egoten da honen zaintza lanetan.

Erabiltzaileei dagokienez, 2012ko martxoa ezkerro hasi dira hauen datuak sexuaren arabera berezita jasotzen. Datu hauek erakusten dutenez, neskek zein mutilek antzera erabiltzen dutela gazte-lekua esan daiteke. Hiruhilabetekoan informatika gela erabili zuten 1.043 pertsonetatik 554 mutilak ziren eta 489 neskek.



23. grafikoa: Gaztelekuklo informatika gelaren erabiltzaileak sexuaren arabera. 2012ko martxoaren 1etik maiatzaren 18ra.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

5.5.2.4- Sotoa

Sotoa 0-7 urte arteko haurrentzako eta hauen zaintzaileentzako gunea da. Asteburu eta jaiegunetan goiz eta arratsaldez egoten da irekita urritik aste santuak arte. Haurrentzat jolas-gune bat dago koltxonetekin eta jostailu ezberdinekin. DVDa erabiltzeko aukera ere badago, eta kafe makina zaintzaileentzat. Bertako jostailu, liburu, DVD edo bestelako materiala aukeratzeko ez da berdintasun irizpiderik kontuan izan.

Erabilerari dagokionean, erabiltzaileen datuak ez dira jasotzen sistematikoki, ez eta sexuaren arabera ere. 17 haur eta 14 guraso edo zaintzaile pasatzen direla egunero batz bestea kalkulatu da.

“Astebarrukoan amamak, eta amak dira gehienak, eta asteburuetan zapatu eguerditik aurrera, nire sentsazioa denetarik. Nire sentsazioa da.” -Gazteria Teknikaria-

Zaintzaile lanetan ohikoa da emakumeek ordu gehiago ematea. Sotoaren kasuan astebarrukoan nabari da hori.

5.5.2.5- Kuboa

Kuboa asteburu eta jaiegunetan goiz eta arratsaldez egoten da zabalik 8 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek erabil dezaten. Espazioa bera da eta bertako ekipamendua erabiltzen dute gazteek: futbolinak, pin-pona, mahai jolasak ... Horretaz gain, hilean txapelketa bat antolatzen da: Pin-pona, kanikak, futbolina, toka, paperezko hegazkinak, xakea, bertso-paperak, dardoak, frontenisa, txapak edo beste gairen baten inguruan gazte hauek parte har dezaten. Txapelketaren gaia aukeratu eta nola izango den antolatzerakoan ez da berdintasuna kontuan hartzen.

Erabiltzaileei dagokienez, datu hauek modu sistematizatuan eta sexuaren arabera bereizita jasotzen ez diren arren, eguneko 42 pertsona inguratzen direla kalkulatu da. Txapelketetako parte-hartzari dagokionez, daturik ez dagoen arren pentsatzekoa da, genero-rolen araberakoa izango dela ekintza desberdinetan nesken eta mutilen parte-hartzea. Topalekuko txapelketetako joerak errepikatzen dira.

5.5.2.6- Kontzertu aretoa

Kontzertuen aretoan, musika eta argi ekipoa daude. Ez dago bertan egindako ekintzen eta hauetako erabiltzaileen zerrendarik, eta honenbestez ezin da areto honen gaineko azterketarik egin.

5.5.3- PROIEKTU BERRIAK

18 urtez gorako gazteentzat egon daitekeen eskaintzaren inguruko hausnarketa prozesuan ari dira Oñatiko Udala eta Oñatiko gazteak. Parte hartze prozesu horretan emakumeen presentzia ere bermatu beharko litzateke, ikuspegi feminista txertatuz. Prozesu horretan eta hortik eratorri daitezkeen proiektuetan emakumeen eta gizonezkoen aukera berdintasuna eta eskubidea bermatzeko bideak jarri beharko lirateke.

5.5.4- LABURBILDUZ -Gazteria zerbitzua-

AHULGUNEAK

-Erabiltzaileen inguruko datuak ez dira sistematizatzen.

-Egiten diren programetan berdintasun ikuspuntua ez da oinarrietako bat.

-Jostailuak, liburuak, bideoak... ez dira aukeratu berdintasun irizpideak kontuan izanda.

INDARGUNEAK

-Hezitzaileen eta gazteen arteko harreman estu eta ona.

-Ekipamenduak eta baliabideak.

-Udaleko beste sailekin harreman lantaldean bidez.

ARRISKUAK

-Gazteek gazte-lekutik kanpo emakumeen eta gizonezkoen desberdintasuna bultzatzen duten ereduak jaso ditzakete.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Erabiltzaileen inguruko datuak sistematizatu.

-Ekintzak antolatzerako orduan generoak izan dezakeen eragina kontuan hartuz, berdintasuna bermatuko duten ekintzak sustatu.

-Berdintasun irizpideen arabera aukeratu materiala.

-Gazteek berdintasunaren inguruan hausnartu dezaten guneak sortu.

-Sotoko erabiltzaileak diren zaintzaileekin berdintasuna eta hezkidetza lantzeko ekimenak egin.

-18 urtez gorako gazteekin berdintasunaren inguruko lanketa egin.

-Erabiltzen diren kalera begirako mezu eta irudietan berdintasun irizpideak kontuan hartu.

5.6- HEZKUNTZA

Udalak hezkuntzaren arloan dituen legezko betebeharrak bi direla esan daiteke: lehena, udalerriko haurren eskolaratzea bermatzea. Eta bigarrenik, hezkuntza zentroyen mantenuaz arduratzea. Horrek ez du esan nahi, Udalak hezkuntza arautu edo ofizialean bestelako egitekorik ez duenik. Udal desberdinek hezkuntza zentroekin lankidetzan dihardute gai desberdinen inguruko programak eskainiz, koordinazio baliabideak eskainiz, eta zerbitzu osoagoa eskaintzeko aukera emanaz. Hezkuntza arautuan ez ezik, hezkuntza ez formalaren alorreko egitasmoak ere gauzatu ohi dira. Oñatiko Udalean hezkuntza zerbitzua dago, izaera desberdinetako lan horiek bideratzeko; legez behartutakoak zein Udalaren edota herritarren ekimenez sortutakoak gauzatzeko.

Hezkuntza, 'Haurrak, hezkuntza eta euskara' sailaren barnean dago, eta teknikari bat dago lanaldi osoz hezkuntzaz arduratzeko. Hezkuntza zerbitzuak Udaleko beste sailekin harreman zuzena du. Izan ere, hezkuntzako zenbait gaietan beste sail batzuek ere badute zer esanik, eta elkarlana bultzatzeko elkargune interesgarriak dira:

- Kultur zerbitzuak: kultur etxea, liburutegia, gazte-lekuko zerbitzuak, euskaltegia, komunikabideak eta hezkuntza.
- Euskararen ingurukoak: euskara zerbitzua, euskaltegia eta hezkuntza.
- Hezkuntza aisialdian: euskara, haur eta gazteria, hezkuntza, kultura, berdintasuna eta prebentzioa.

Oraingoz Udalak ez duenez bereganatu berdintasunaren gaia lanerako irizpide moduan lan-talde hauetan ez da kontuan hartzen. Sail honetako langileek berdintasunaren inguruko prestakuntza jaso beharko luketela uste dute.

5.6.1 - HEZKUNTZA ZENTROEKIN LOTURA

Esan bezala, Udalak, eta konkretuki hezkuntza departamenduak, duten loturarik estuena obra eta mantenu eginkizunetarako da. Izan ere, Udalaren aurrekontuko zati handi bat hezkuntza zentroetako eraikinak eta ekipamenduak konpondu, berritu eta berregiteko erabiltzen da.

Horrez gain, Udalak diru-laguntzak ematen dizkie hezkuntza zentroyei beren programak aurrera eramateko. Diru-laguntzak emateko prozedura arautua dago. Horregatik, ikasturte hasieran proiektu bat aurkeztu behar dute, eta ikasturtearen amaieran diru-laguntzaren bidez egindako ekintzen memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztu behar izaten dute. Orain arte lagundu diren hezkuntza proiektuetan, ez da egon, sexuen arteko berdintasunerako edota sexualitatearen ingurukorik. Horrek ez du esan nahi ikastetxeek beren aldetik landu ez dutenik.

Hezkuntza sailaren egitekoa ikastetxeen eta Udalaren arteko elkarlana bultzatu eta lan-sare indartsu bat osatzea da. Ikusirik, ikastetxe desberdinetan programa berdina edo antzekoak lantzen zirela, esfortzuak bateratu, eta programa horiek batera lantzea

proposatu zen. Hortik, koordinazio mahaiak jaio ziren. Hauen helburua, Oñatiko hezkuntza sarearen elkarlanaren bidez hezkuntza eskaintza hobetzea da. Hezkuntza zentroek, hauetako guraso elkarteek eta Udalak parte hartzen du hauetan. Gaur egun, hiru koordinazio mahai daude:

-Ingurumenari buruzko koordinazio mahaiak: eskolarako ibilbideak koordinatzeko helburuarekin sortua.

-Euskara eta euskal kultura elkarlanean lantzeko koordinazio mahaiak: ikastetxe guztietako haurrekin lantzeko.

-Gurasoentzako formaziorako koordinazio mahaiak: ikusirik ikastetxe desberdinetan gurasoentzako gai berdinen inguruko formazioa eskaintzen zela, indarrak batu eta gai horiek batera lantzeko asmoz sortutako taldea.

Koordinazio mahai horiek sortu berriak dira, eta oraingoz, hezkidetzak edo sexuen hezkuntza lantzea ez da proposatu.

5.6.2- BESTELAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA


Oñatiko Udalak hezkuntza zentroekin batera gauzatzen dituen lanez gain, bestelako zenbait ekintza ere antolatzen ditu. Uda sasoiari, uztailean zehar, udaleku irekiak antolatzen ditu 4 urtetik 10 urtera arteko haurrei zuzendua. Bestalde, erabilgaitzak ugari duen informatika gela ere kudeatzen du. Txaloka ludoteka, urte osoan zabalik dagoena 4 eta 10 urtera bitarteko haurrentzat ere, hezkuntza sailaren ardura da.

5.6.2.1- Udalekuak

Oñatiko Udalak udan, uztailean zehar, udaleku irekiak antolatzen ditu. Astegun goizetan 10:00etatik 13:00etara egoten dira. Gurasoen lan bidez eta familia bidez erraztearen, hau da, bateragarritasunaren alde, Udalak zaintza zerbitzua eskaintzen du nahi duenarentzat goizeko 7:30etatik goizeko 10etara. Udalekuen helburua haurrek elkarbizitzaren ikastea, taldeetan balioak bultzatzea, jolastuz ikastea, ondo pasatzea eta beste zenbait badira ere, horrekin batera kontuan hartu behar da gurasoen bateragarritasunari ere ekarpena egiten diola. Gurasoek lan egiten duten bitartean, haurren zaintzaz arduratzen da Udala udaleku zerbitzua eskainiz. Zaintza-lana erakundearen egiteko moduan ulertzearen ondorio ere bada beraz egitasmo hau; zaintza etxeko esparrutik atera, arazo indibidual izateari utzi, eta ardura kolektiboa dela aitortzen da modu honetan.


2012ko udan 344 umek parte hartu zuten udalekuetan. Neska eta mutilen arteko kopurua nahiko antzekoa zen. Bestalde, udalekuez 36 hezitzaile edo begirale arduratu ziren. Horietatik gehiengoa emakumeak ziren. Haurren zaintza emakumeei lotutako eginkizuntzat hartua izan da historian zehar, eta horren erakusle da datu hau. Zenbait lan-sektore nagusiki femeninoak edo nagusiki maskulinoak direla esan ohi dugu, horietan aritzen direnen gehiengoa neskak direnean, edo gehiengoa mutilak direnean. Zaintzari eta

haurren heziketari lotutako lan esparruan gehiengoa emakumeak izaten jarraitzen dute; eta emakume gehiagok jasotzen dute lan hauek burutzeko prestakuntza, gizonezkoek baino. Gizartearen isla da honakoa. Orduan eta gizonezko gehiago haurren heziketaz eta zaintzaz arduratzen hasi, orduan eta gizonezko gehiago aurkeztuko dira lanpostu hauek betetzeko ere.



23. grafikoa: Udalekuetako haur kopurua sexuaren arabera

Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.



25. grafikoa: Udalekuetako begiraler kopurua sexuaren arabera

Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Udalekuak zerbitzu kontratazio bidez ematen dira. Hau da enpresa bat azpikontratatzan da zerbitzua eman dezan. Kontratazio prozesu horretan Udalak orain arte ez du berdintasunaren inguruko baldintzarik eskatu. Enpresa honek kontratatutako begiraleek, derrigorrez hiru eguneko formazio saioa jaso behar izaten dute.

Udalekuetako programazioa neska-mutilei zuzendua dago, eta honenbestez guztiek ekintza berberak gauzatzen dituzte. Urteak dira, hezkuntza berezitua amaitu zela. Horrek ordea ez du zertan bermatu berdintasunean oinarritutako heziketa. Berdintasunean oinarritzen den heziketak, aukera berdintasuna bermatu behar du, eta alde batera utzi behar ditu genero-rolak eta estereotipoak, berdinen arteko harremanak eskubide berdintasunean oinarrituz. Egun, Oñatiko udalekuetan ez dago hezkidetzari buruzko ikuspegi eta lan-ildo definiturik, eta honenbestez honen lanketa langileen esku geratzen da, norberaren berdintasunaren inguruko kontzientzia mailan, alegia.

5.6.2.2- Txaloka ludoteka

Oñatin Txaloka ludoteka ireki zenean, beste udalerrietan ez bezala, hezkuntza departamendutik kudeatzea erabaki zen. Honen arrazoia, ludoteka ulertzeko moduan zegoen:

“Ikuspuntu hezitzailea eman nahi zitzaion ludoteka zerbitzuari, ez delako umeak uzteko leku bat izan behar. Horregatik, kulturatik baino hezkuntzatik bideratzea erabaki zen.” -Hezkuntza teknikaria-

Egun 4 eta 10 urte bitarteko hurrek, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara erabil dezakete zerbitzua. Programazio berezi bat ere egoten da, eta garrantzia berezia ematen zaie egun batzuetan guraso eta hurrei batera zuzendutako ekintzei. Familiaren inplikazioa bilatzen da.

Datu zehatzik ez badago ere, ludotekara hurrekin gerturatzen direnen gehiengoa emakumeak izan ohi dira: amak, amonak, zaintzaileak edo ahizpa zaharragoak. Egunerokoan hurrei laguntzean zein ekintza konkretuetarako familiak gonbidatzean gertatzen da hori.

“Bi urtean behin antolatzen dugu 'kantuak eta jolasak transmisioari begira', aspektu ludikoan eskaraz egiteko bitartekoak eskaintzeko. Hiru edo lau urtez antolatu dugu, eta uste dut bi aita izan direla guztira etorri direnak. Eta beste guztiak amak.” -Hezkuntza teknikaria-


Zaintza lanak eta hurren ardura emakumeei lotuta ageri da gure gizartean, eta ludotekan gertatzen dena, gizartearen isla baino ez da.



16. irudia: Txaloka ludotekaren logoa.
Iturria: Oñatiko Udala

Hezkuntza sailak informatika gelaren ardura du. Herritarrei zabaldua dagoen gela da hau. 2012ko martxoa ezkerro, informatika gelaren erabiltzaileen (Kzguna?) inguruko datuak sexuaren arabera berezituak jasotzen dira. Horren ondorioz, egun badakigu, erabiltzaileen sexuak ez duela baldintzatzen zerbitzuaren erabilera. Hilabete batzuetan gehiago dira emakume erabiltzaileak, eta beste batzuetan gizonezko erabiltzaileak.

5.6.2.3- Informatika ikastaroak



26. grafikoa: Informatika gelaren erabiltzaile kopurua hilabeteke sexuaren arabera. 2012ko martxotik ekainera. Iturria: Oñatiko Udala. Egilea: Farapi S.L.

5.6.2.4- Ume etorkinentzako hizkuntza integrazio programa

Hezkuntza zerbitzuak, euskara zerbitzuarekin batera, etorkinak diren familietako haurrek eta gaztetxoek euskara barnertzeko programa bat dute martxan. Bi taldeetan banatuta daude haurrak: 11 eta 12 urte bitartekoak, eta 12tik 18 urte bitartekoak. Talde bakoitzean euskara irakasle bat dago.



17. irudia: Oñatiko hizkuntza integrazio programako haurrak. 2007. Iturri: Goiena. 2007/10/25.

5.6.3- LABURBILDUZ -HEZKUNTZA ZERBITZUA-

AHULGUNEAK

- Berdintasuna ez da zerbitzuaren lanean irizpidetzat hartzen.
- Antolatzen diren udalekuetan hezitzaile taldea nagusiki feminizatua dago.
- Udalekuetarako zerbitzua kontratatzean berdintasun irizpideak ez dira kontuan izaten.
- Udalekuetan hezkidetzak ez da lanerako printzipio bezala lantzen.
- Ludotekako erabiltzaileen kasuan (haurrak eta hauekin datozenak) ez dira datuak sexuka bereizita jasotzen. Interesgarria litzateke rol banaketan irakurketa egin ahal izateko.

INDARGUNEAK

- Hezkuntza teknikari bat dago lanaldi osoz Udalean.
- Udalean lan-talde sare indartsua dago.
- Ikastetxeen arteko koordinazio mahaiak daude, eta dinamika positiboa dute.
- Bateragarritasuna bultzatzeko ekimenak antolatzen dira uda-sasoian: zaintza zerbitzuak eta udalekuak.
- Ludotekan familiekiko gertutasuna dago; programa berriak lantzeko oso garrantzitsua da inplikazioa.
- Informatika gelako erabiltzaileen datuak sexuaren arabera bereizita jasotzen dira.

ARRISKUAK

- Gizonezkoak ez aurkeztea zaintza eta hezkuntzarekin zerikusia duten zerbitzuetara.
- Ikastetxeek hezkidetzan parte hartzeko trabak jartzea, denbora arazoak direla-eta.
- Familien inplikaziorik ez egotea.

AUKERAK

- Berdintasuna lanerako irizpide eta oinarri moduan erabiltzea. Horretarako prestakuntza jasotzea zerbitzuan.
- Zerbitzuko erabiltzaileen datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea.
- Ikastetxeekin hezkidetzak edo sexuen hezkuntza lantzea.
- Udalekuetako zerbitzua kontratatzean berdintasunerako legea kontuan hartzea eta hezitzaileei hezkidetzako formakuntza emateko eskatzea.
- Ludotekan familiekin berdintasunaren gaia lantzea.
- Haur etorkinentzako programako materialean berdintasun gaiak lantzea.

5.7- HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Hirigintza eta lurralde antolamendua sailetik eginiko proiektuek zuzenean eragiten diete Oñatiarrei. Izan ere, espazioaren erabilera lurraldearen antolamenduak eta hauetan jarritako ekipamendu eta elementuek baldintzatzen dute. Hortaz, emakumeei eta gizonezkoei eragiten diete. Berdintasunaren ikuspegitik espazioa diseinatzeak, ingurune seguruak, gizon-emakumeentzako elkartzeko guneak sustatzea, erreferente maskulino zein femeninoak biltzea, eta rol banaketa tradizionalak gainditzea sustatzea esan nahi du.

Espazioaren identitatea erabiltzaileek sortzen dute: espazioen identitatea dinamikoa da, aldatuz joaten dira eta aldi berean identitate bat baino gehiago izan dezakete. Etengabe ber-asmutzen dira. Alabaina, espazio horien antolaketak eta horietan jartzen diren elementuek, ingurua helburu batzuetarako erabiltzea bultzatu dezakete: saskibaloia kantxa batek, kirol izaera izatea eragingo dio guneari, nahiz eta momentu batzuetan beste zerbaiterako ere erabili daitekeen gune hori, eta aldi berean ekintza bat baino gehiago egiteko. Kontuan izan behar da, elementu horiek gizonen eta emakumeen elkarrekintza sustatu behar dutela eta ahal den neurrian espazioei eta ekintzei egozten zaizkien genero rolen banaketarekin amaitu behar dela. Aldi berean, segurtasunaren aldetik, leku degradatu, ezkutu eta ilunak ekidin behar dira. Eta azkenik, kalean ageri diren elementuek artistiko eta sinbolikoek, hala nola, eskulturek eta kale izenek, emakumeen presentzia ere bermatu behar dute; gizonezkoen erreferentziak soilik dituzten inguruneek, sinbolikoki emakumeen partaidetza ez dute aitortzen, eta honenbestez, gizarte parekide baten islak gizonen zein emakumeen erreferentziak jaso beharko lituzke, emakumeen kolektiboaren ikusezintasunarekin amaituz.

Oñatiko Udalaren egitekoen artean aspektu horiek kontuan hartzen ote diren jasotzen atal honetan. Hirigintza eta lurralde antolamendua sailaren funtzioak arlo honetan honakoak dira:

- Hiri planeamenduaren kudeaketa.
- Obra baimenak.
- Jarduera eta irekiera baimenak.
- Trafikoaren antolamendua.
- Etxebizitza publiko eta babestuak bultzatzea.
- Herri lanak.
- Udal zerbitzuak.

Hirigintza eta lurralde antolamendua saila arduratzen da era berean, hirigintzarekin zerikusia duten eta Oñatiko Udala parte den hainbat enpresa publikorekin harremanak izaten:

- Oñargi: Oñatiko argindar zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den enpresa publikoa.
- Suradesa: Debagoienako mankomunitatearen barnean, etxebizitza ondarearen birgaitze eta erabilera sustapenerako elkarrekin.
- Ur zerbitzuak: Gipuzkoako ur kontsortzioko partaidea da Udala.

Egun, urbanizazio lanetan ari dira buru-belarri. Baina bada honekin batera, proiektu berritzaile bat ere: Oñatiko espazio publikoaren erabileraren inguruko azterlan bat egiten ari da. Azterketa horren helburua, herritarrek espazio desberdinak, noiz, zertarako, nola, nortzuk... erabiltzen dituzten ezagutzea da, ondoren espazio horiek herritarren ohituren arabera edota aldaketak eragiteko birdiseinatzeko. Azterketa honetan, ez da kontuan hartu emakumeen eta gizonezkoen erabilera eta ohiturak kontuan hartzea.

“Aurten espazio publikoen azterketa eskatu da, erabileraren inguruan, herriko hainbat espazioren erabilera, ikusteko erabilera egokia ote duten, ea erabilera bakarra edo desberdinak dituzten, eta horren arabera ikusteko zer behar dagoen. (...) Ikusiko dute espazio batzuk gazteek erabiltzen dituztela, baina gazteek orokorrean, ez mutikoak ala neskek, baizik eta orokorrean” -Hirigintza teknikaria-

Hirigintza eta Zerbitzuak batzordean hartzen dira sailaren egitekoen inguruko erabakiak. Horrez gain, lan-taldeei dagokienez, lan-talde batean dago: hirigintzak, ingurumenak, auzoak eta landa garapenak, eta zerbitzuek osatzen dute. Hirigintzak ordea, beste lan talde baten beharra sumatzen du. Izan ere, hirigintzarekin lotura dute Udaleko departamendu guztiek, Udal eta herri ekipamenduak guztiek kudeatu edo erabiltzen baitituzte. Proiektu konkretuetarako sortzen da hartu-emana, baina ez dago hirigintza eta beste sailen artean komunikazio zuzenik.

“Kiroletako helburu batek, adibidez, ziurrenik hirigintzarekin ez bada, zerbitzuekin harremana izango du. Hori nolabait denon artean nola bideratu? Hori oraindik ez dugu ongi egiten. Badaude proiektu batzuk garrantzitsua dena talde desberdinetako partaideak egotea, eta harreman minimorik taldeen artean oraindik ez dago.” -Hirigintza teknikaria-

Berdintasunaren alde egiteko, guztien egitekoa den heinean, zerbitzuen arteko koordinazioa egotea indargune bat litzateke, emaitza positiboak lortzeko bidean.

Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna lanerako oinarri moduan hartzeko, eta eguneroko lanean aplikatu ahal izateko, departamenduko langileek berariazko prestakuntza jasotzea beharrezkoa dela uste dute.

5.7.1- GENERO IKUSPEGIA HIRIGINTZA SAILEAN

Hirigintza eta zerbitzuak departamenduan 13 langile daude. Horietatik seik hirigintzako lanak egiten dituzte eta beste zazpiak zerbitzuetako lanetan jarduten dira. Hirigintzako proiektuetarako orain arte ez da egon berdintasuna lantzeko asmoz egindako egitasmorik, ezta beste helburu batekin eginda ere berdintasuna zeharka kontuan hartu den proiekturik. Genero ikuspegia lantzeko hirigintza antolamenduz antolatzen diren langile guztiek prestakuntza jasotzea interesgarria litzateke, horrela, modu integral batean, bakoitzak dituen funtzioak dituela ere, berdintasuna sustatzeko baliabideak eskaini daitezten sailetik.

5.7.2- GENERO IKUSPEGIA LAN ARDATZEN ARABERA

Hirigintzan eta lurralde antolamenduari dagokionez, lan ildo batzuk garrantzia berezia izaten dute. Herri antolamenduaren, eta sortu daitezkeen elkarrekintza ekonomiko zein sozialetan garrantzia handia izaten dutelako. Horietako batzuk bildu ditugu jarraian. Lurralde antolamendurako araudiak, garraio sistemak eta egitura sinbolikoak ezartzerakoan Oñatiko kaleetan berdintasunezko irizpideak kontuan hartu ote diren aztertuko ditugu.

5.7.2.1- Lurralde antolamendua

Oñatiko Arau Subsidiarioak egin zirenean, ez zen kontuan hartu genero ikuspegia. Aurre-diagnostikoa egin zenean, populazioa arlo desberdinetan orokorrean aztertu zen; hau da, emakumeen eta gizonezkoen gaineko irakurketa espezifikorik ez zen egin. 2006an onartu ziren arauok ez zuten bada, emakume eta gizonezkoak kontuan hartuz, hiri-antolamendu inklusibo bat lortzeko, berriazko neurririk eta lan-estrategiarik zehaztu.

Horrez gain, lurralde antolamenduari begira, lehentxeago aipatutako espazioen erabileraren inguruko azterlan aurrera eramaten ari da une honetan, baina ez du emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak identifikatzeko helbururik jasotzen.

Hauetz gain, ez da hirigintzaren lanik egin. Berdintasunaren gaia edozein azterketaren barnean txertatu daitezkeen ikuspuntua da, eta etorkizunean sortu daitezkeen proiektuetan kontuan hartzea interesgarria da. Izan ere, azterlan hauek hiri-arauak, -ordenantzak eta lan-irizpideak sortzeko eta berritzeko oinarrikoak izanik, berdintasuna oinarrian edukitzea beharrezkoa baita.



18. irudia: Oñatiko ortoargazkia.

Iturria: Gipuzkoako foru aldundia. Ingurumeneko eta lurralde antolaketako departamentua.

5.7.2.2- Garraioaren antolaketa

Garraio sarearen antolaketa, eta garraibideen inguruko lurralde antolamendua hiri-arautegiaren barnean joan ohi da. Hainbat azterketek erakusten dute, erabiltzen diren garraibideak aukeratzeko, sexuen arabera desberdintasunak topatzen direla faktore desberdinak medio. Udalak ez du horrelako azterketarik egin, eta mugikortasunaren inguruko azterketa eta planak egin ditueneko generoa ez dute aldagai moduan kontuan hartu.

Udaleko ingurumen zerbitzua arduratzen da eramangarritasuna lantzeaz, eta horrenbestez garraioari dagozkion azterketa eta hartu beharreko neurriek hirigintza zerbitzuaren eta ingurumen zerbitzuaren elkarlana eskatzen dute. Etorkizuneko proiektuetan generoa aldagai kontuan hartzea interesgarritzat jotzen da.

5.7.2.3- Adierazpide sinbolikoak

Kaleetan presentzia duen adierazpen sinboliko orok, autorearen eta erreferentzia egiten dionaren presentzia bermatzen du. Kaleak komunikatzeko gune dira, eta ondorioz, suposatzen da, kalearen erabiltzaileen errealitatearen isla direla kalean topa daitezkeen elementu sinbolikoak. Kontua da, kalearen erabiltzaile den orok ez duela errepresentazioa izaten; horrela, kolektibo batzuk ezkutatuago geratzen dira beste batzuk baino.


Kaleko elementu sinbolikoez ari garenean, kale izen, eskultura, aldarrikapen kartel edo margo, eta halakoez ari gara. Erakunde publikoen eskumenekoak diren elementu sinbolikoetan generoen arteko berdintasuna bermatu beharko litzatekeela esan ohi da, berdintasunaren eskubidea defendatu behar duten entitate moduan.



19. irudia: Oñatiko Santa Marina Plazako izenarekin plaka.
Iturria: Farapi S.L

Emakumeen erreferentziak kaleetan topatzea zaila izaten da. Kaleetan dauden eskulturen artean, gehienak gizonetzkoenak izan ohi dira. Kaleen izenen artean, pertsona izena duten kale gehienek gizonetzkoen izenak dituzte erreferentzia. Botere lekuetan egon diren pertsonen izenak jarri izan dira historikoki, eta emakumeak esfera horretatik kanpo geratu izan direnez, kaleetan ere ez dute lekurik topatu.

Oñatiko kasuan hala ere, kaleen izendegia aztertuz, kaleen gehiengoak ez dietela pertsonen erreferentzia egiten ikus daiteke. 58 kale eta auzo daude, eta horietatik 40k toponimia edota bestelako arrazoiren bat hartu dute erreferentziatzeko. Beste hemezortzi kaleetatik hamalauk gizonetzkoekin lotutako izenen erreferentziak dituzte. Eta lau dira emakumezko izenekin lotura dutenak. Erljio kristauarekin lotutako izenak dira izen gehienak.



26. grafikoa: Oñatiko kale eta auzoen izenak izenaren izaeraren arabera.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Hirigintzatik, kaleen izenak jartzean edota arte elementuak jartzean ez da kontuan izan emakumeen erreferentziak jasotzen diren aztertzea. Emakumeen ekarpena jasotzeko ahalegina egitea interesgarria da, eremu guztietan, emakumeek zein gizonen presentzia lortu dezaten.

5.7.3- LABURBILDUZ -Hirigintza eta lurralde antolamendua-

AHULGUNEAK

-Berdintasun irizpideak hirigintzan izan dezaketen aplikagarritasunaren ezagutza falta.

-Indarrean dauden arau, plan eta ordenantzetan genero berdintasunak ez du tokirik.

-Udaleko beste zerbitzuekin harreman gutxi.

INDARGUNEAK

-Lan taldeetan eta modu koordinatuan lan egiteko gogoia.

-Berdintasuna lanerako printzipio moduan hartzeko prest egotea.

ARRISKUAK

-Eragin dezaketen kanpo faktore negatiborik ez dago kasu honetan.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Berdintasun irizpideak hirigintzan eta lurralde antolakuntzan aplikatzeari buruz prestakuntza jasotzea.

-Berdintasunerako irizpideak kontuan hartzea, azterketa, plan, ordenantza, arautegi eta bestelako lanetan.

-Udalaz gaindiko erakundeek eskainitako aholkularitza laguntzak zein laguntza ekonomikoak erabiltzea.

-Departamentuen arteko harremana indartzeko eta elkarren proiektuen berri izateko dinamikak sortzea.

-Adierazpide sinbolikoen inguruan hausnartu eta irizpideak jartzea.

5.8- KIROLA

Kirola gizonezkoek zein emakumeek egin dezaketen ariketa fisikoa da. Gizonezkoek egiten dituzten kirol motak eta emakumeek egiten dituztenak desberdinak izaten dira aldiz, eta kirol egiteko modua, denbora eta lekua ere aldatu egiten da. Generoaren desberdintasunak kirolaren arloan nabarmen antzematen dira. Oñatiko kasuan, kirol zerbitzuaren egitekoa da herritarrei kirola egiteko guneak eskaintzea, gune hauen erabileraren inguruko kudeaketa lanak egitea eta ohitura osasuntsuak bultzatzeko bitartekoak jarri eta kanpainak egitea. Horregatik, instalazioen kudeaketaz gain, ikastaroak antolatzen dira, ekintza bereziak egiten dira eta herriko kirol talde eta elkarteei babesa ematen zaie.

Berdintasunaren arlotik, emakumeek kirola egiteko oztoporik ba ote duten eta gizonezkoen aukera berdina dituzten ikusiko dugu. Horrez gain, genero estereotipo eta rolek, emakumeek aukeratzen dituzten kirol jardueren eta gizonek aukeratzen dituztenen artean zer nolako aldea dagoen aztertuko dugu, eta horrek harremanetan eta azpiegituren espazioaren erabileran nola eragiten duen.

Kirol zerbitzuan, 13 langile daude. Horietatik zazpi emakumeak dira eta sei gizonezkoak. Kirol teknikaria gizonezkoa da. Kirol zerbitzuaren inguruko erabakiak Kirol batzordean eztabaidatu eta erabakitzen dira. K2 emocionando-rekin egindako prozesuaren ondorioz sortutako lantaldeen artean Agenda taldea – Gidaritza taldean kokatzen da.

Polikiroldegiaren mantenua da diru partida gehien gastatzen duena. Futbol zelai berria, nahiz eta oraindik ez den plana exekutatu, kirol arloko gastu handiena izatea aurreikusten da. Bestalde, kirol elkarteei ere dirulaguntzak bideratzen zaizkie, eurek antolatutako kirol jardueretan gastatu dezaten.

Kirola praktikatzeko azpiegitura desberdinak daude: Zubikoa kiroldegia, Azkogain futbol zelaia, Olaiturri kirol gunea, Larrañagako frontoia eta aisialdirako gune publiko irekiak. Hurrengo tauletan agertzen dira espazio bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak.

Zubikoa kiroldegia

- | | |
|---|--|
| -Bi kirol kantxa (horietako bat 3 zatitan banatu daiteke) | -Igerilekua klimatizatua (txikia eta handia) |
| -Aerobic gela | -Kirol medikuntza zerbitzua |
| -Fitness gela | -Sauna |
| -Karate gela | -Tenis pistak (2) |
| -Pilates gela | -Rokodromoa |
| -Pilotalekua | -Berdegunea (uda partean) |
| -Squasha (3) | -Taberna |

Azkogain futbol zelaia

- Belar artifizialeko zelaia
- Aloña Mendi futbol taldeko

Olaiturri kirol gunea

- 3 Saskibaloia kantxa
- Eskubaloia kantxa.

maila guztietako partiduak
-Beteranoen txapelketa
-Eskola kirola

Larrañako frontoia

Aisialdirako guneko publiko irekiak

-Olaitturri.
-Plazako frontoia.

Ekintza desberdinak antolatzen dira. Taldeek erabili ditzakete instalazioek, eta modu indibidualean ere erabili daitezke ekipamenduok. Eta horretaz gain, urtean zehar eta uda sasoiari ikastaro eskaintza zabala du kirol zerbitzuak.

Kiroldegiko Instalazioak

Instalazioak	Ikastaro eta kirol motak
Ur instalazioak	-Igeriketa ikastaroak ikasturtean zehar (6-12 hilabete, 12-24 hilabete, 2-3 urte, 3-4 urte, 4-8 urte, gazteak, gelduak). -Aquagym light, Aquagym eta Aquatraining ikastaroak. -Udaran igeriketa ikastaroez gain Waterpolo, Aquaerobik eta ur jolasak.
Fitness gimnasioa eta	-Ikasturtean zehar, gimnasia terapeutikoa, 3. adineko gimnasia, Pilates eta Pilates terapeutikoa, Mantenimenduko gimnasia, Fit-Bike, Aerobic, Gimnasia harmonikoa, Bosu tonifikazioa, Dance class, Gimnasia egokitua, Erditze osteko gimnasia eta Street dance. -Udaran urtean zehar eman diren ikastaroei Gimnasia Abdominal Hipopresiboa eta Dantza afrikarrak bezalako ikastaroak gehitzen zaizkie.
Kantxak	Eskubaloia, pilota, saskibaloia, tenisa, squasha, areto futbola, etab.

Horiez gain urtean zehar ekintza puntualak antolatzen edota babesten ditu kirol zerbitzuak

Ekintzak

-Areto bizikleta maratoia
-Udaberriko tennis txapelketa
-Eskola kiroleko udaberriko txapelketa (DBH). Kirol eta ekintza desberdinak nahasita.

Txapelketak

-Arku tiraketa (Gipuzkoako txapelketa eta jaietakoa)
-Atletismoa (San Pedro lasterketa eta San Silbestre, Mendi lasterketa, eta korusetakoa)
-Duatrloia (Oñati Saria)
-Futbola (Beteranoen txapelketa)
-Eskubaloia (haurrena – Euskadiko)

- txapelketa)
- Tennis txapelketa (Udaberrikoa eta jaietakoa)
- Trialsina (Gipuzkoako txapelketa)
- Mendi bizikleta
- Arrantza (Pago Usoren txapelketa)



20. irudia: Eskola Kiroleko kartela
Iturria: Oñatiko Udala.

Eskola kirolarekin ere lotura zuzena du kirol-zerbitzuak. Talde hauek ere azpiegiturak eta materiala erabiltzen dutenez koordinazioa ezinbestekoa da. Eskola kiroleko informazioa hezkuntzako atalean topa daiteke.

Beste eskiatzetako bat, Berdintxiketan lasterketa da. Mondragon Unibertsitatearena den Oñatiko enpresagintza fakultatean dagoen berdintasunerako taldeak antolatzen duen lasterketa. Emakume batez eta gizonezko batez osatutako taldeen arteko korrika lasterketa da. Oñatin egiten da eta Udalak lagundu egiten du. Baina antolatzaile zuzena ez denez, ez dugu atal honetan sartu.

5.8.1- GENERO IKUSPEGIA KIROL PROGRAMAZIOAN

Kirol batzordetik ez da neurri zehatzik hartzen kirol arloan gizon eta emakumeen aukera berdintasuna bermatzeko. Elkarreei ematen zaien dirulaguntzetan ere ez zaie inolako baldintzarik ipintzen genero ikuspegia kontuan hartu dezaten. Dena den, kirol teknikariaren esanetan, ekintza konkretu batzuetan emakumeen kolektiboko ezaugarri espezifikoak aintzat hartzen dira. Adibidez, jarduera gidatuen erabiltzaile nagusiak emakumeak direla kontuan hartuz, emakumeen berezitasunak kontuan hartzen dituzte.

Kirol zerbitzuen erabiltzaileei dagokienez, zaila da jakitea zenbat emakume eta gizonek hartzen duten parte jarduera bakoitzean, ez baita sistematikoki jasotzen emakume eta gizonen kopurua. Kirol teknikariaren esperientzian oinarrituta, badaude desberdintasunak emakume eta gizonen profiletan kirola praktikatzerako orduan.

“16 urterarte ez. Hortik aurrera hasten dira bereizketa eta ezberdintasun handixenak. Neskek kirol federatua lagatzen dute hein handi batean, eta Udal zerbitzuetara adin hortik aurrera hurbiltzen hasten dira gehiago, edo praktika lagatzen dute denbora batez, edo bestela beraien kontu egiten dute praktika irregular bat. Mutilek kirol federatuan jarraitzen dute ahal badute, edota hortik kanpo, lagun artean atsegin dute egitea.” -Oñatiko Kirol teknikaria-

Kontuan hartu beharrekoa da futboa dela diru gehien inbertitzen den kirola, klubaren bitartez kudeatzen dena. Oso maskulinizatuta dagoen kirola da eta emakumeak gehiengoaren diren edo kopuru parekideagoa duten kirolak diru partida gutxiagorekin gelditzen dira. Dena den, futbolearen aritzen diren oñatiar emakumeen kopurua hazi egin da azken urteetan, gaur egun hiru talde femenino daudelarik. Emakumeak partaide izatetik haratago, futbolearen aritzeko dituzten erreztasunak eta estatusa moduko baloreak oso desberdinak izan daitezke gizonekin konparatuz.

Dena den, Kirol arloaren parte-hartze prozesuan ia emakumerik ez dela egon konturatu dira udaletik, eta garrantzitsua ikusten dute zentzu honetan neurriak hartzea; izan ere, eztabaidetan biltzen diren oñatiarrak, biztanleria osoarekiko ordezkari maila altua izatea da aurrekontu parte-hartzaileek bilatu behar duten helburuetariko bat. Eta emakumeen presentzia hain txikia baldin bada, badago heltzen ez diren herritarren sektore bat.

5.8.2- LABURBILDUZ -Kirol zerbitzuak-

AHULGUNEAK

-Sexua ez da kontuan hartzen datuan jasotzerako orduan.

-Berdintasun irizpideak kontuan hartzea ez dago araututa, ez udalaren programazioan, ezta elarteei ematen zaien diru-laguntza kudeatzerako orduan.

INDARGUNEAK

-Emakumez osaturiko taldeak daude kirol desberdinetan (futboleak, saskibaloian).

- Emakumeak gehiago diren kiroletan berain behar espezifikoetara egokitzeko saiakera egiten da.

ARRISKUAK

-Emakumeekin lotutako gizarte rola oztopo bat dira emakumeak kirola egiten eroso sentitu daitezen.

-Nesken partaidetza ez da erregularra, adinaren, taldearen, momentuaren arabera da, eta beraz, zailagoa da epe luzeko neurriak ezartzea.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Kirol azpiegituretako erabiltzaileak sexuaren arabera jaso.

-Emakumez edo gizonez soilik osatutako taldeetan ordutegi, espazio, aukera aldetik berdintasuna bermatzen dela ziurtatu.

-Diru-laguntzak ematerako orduan berdintasunerako ahaleginak egiten dituzten elkarteak saritu.

5.9- KULTURA

Kultura zerbitzuaren helburua herritarrei aisialdian kultur jarduerak egin ahal izateko bitartekoak eskaintzea da. Kultura bere zentzu zabalean guztiena den patrimonio bat dela esan dezakegu. Kultur jarduerak herriarentzat eta herritarrentzat patrimonio hori aberastea dakar; aspektu espiritual eta materialetan, intelektual eta afektiboetan eragiten du indibiduoari ekarpena eginez, eta aldi berean gizarte kohesioa eta taldeetasuna lortuz. Erakunde publikoetatik bultzatzen den kulturak, gizarte kohesioa bilatu behar du, berdintasuna eta aniztasun kulturala bultzatuz, adierazpen askatasuna bermatuz, eta azken finean giza eskubideen defentsa eginez. Izan ere, kultur zerbitzuek kultur identitate desberdinen arteko elkar-ulertzea bilatzea dute helburu gizarte-sare sendoa osatzeko.

Berdintasuna, arlo guztietan eman beharreko oinarria da. Kulturak bizitzeko erak, balioak, tradizioak, pentsatzeko erak... jasotzen ditu. Guzti horiek oinarritzko eskubideen errespetutik burutu daitezkeen bultzatu behar da erakundeetatik zein herri-mugimenduetatik. Berdintasuna lortua ez dagoen gizarte batean, emakumeen eta gizonen egoeran eragiteko eta herritarrei pentsarazteko bitartekoak jartzea ere kulturaren egitekoa da bada.

Sailaren zeregina herriko kultura jarduera dinamizatzea da: kulturaren adierazpen forma desberdinak sustatu eta jakitera ematea, eta herriko kultur mugimenduari azpiegiturak eta baliabideak eskaintzea. Izaera orokorreko kultura ekintzak antolatzen ditu, hala nola, erakusketak, hitzaldiak, ikuskizunak, ikastaroak, besteren artean. Eta kultura taldeentzat diru-laguntzak banatzen dira, ohiko jarduerak egin dezaten. Horrez gain, Udal liburutegia, kultur etxeko bilerak gela eta hitzaldi aretoa, erakusketa aretoa, Santa Ana Udal Antzokia eta zinema kudeatzen dira kulturatik.

ZERBITZUAK	TOKIA
Jaien antolaketa	Herrian zehar
Udal liburutegia	Kultur Etxean
Zinema	
Ikastaroak	
Gelak	
Musika	Santa-Ana Antzokia
Arte eszenikoak	

Aretoak kultur zerbitzuak kudeatzen ditu. Dena den, herriko kultura taldeek antolatutako ekintza asko hauetan egiten dira. Hitzaldiak adibidez, kultura talde desberdinek antolatutakoak izan ohi dira.

Oñatiko Udaleko Kultura zerbitzuan, 7 langile daude eta horietatik bi gizonak dira eta 5 emakumeak. Erabakiak kultura batzordean hartzen dira. Lan-taldeen sisteman kultura, hezkuntza, gazteria, euskara eta euskaltegiarekin batera dago.

5.9.1- GENERO IKUSPEGIA KULTUR PROGRAMAZIOAN

Kultura zerbitzuak ez du modu sistematikoan generoa aldagaia bere lanean txertatzen; hau da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko egoera neurtzeko eta hutsuneak konpondu eta berdintasuna sustatzeko neurriak ez dira lan egiten diren lan bakoitzean sartzen. Sail moduan ez dago hori arautua, eta horrenbestez langile bakoitzaren kontzientziario mailaren eta erabakiaren esku dago. Kultura batzordean ere ez dago ikuspuntu feminista presente. Horrek ez du esan nahi, berdintasunaren aldekoak diren ekintzak egiten ez direnik, ez dagoela arautua baizik. Gainera, momentu puntaletan, berdintasunaren aldeko ekintzak egin izan dira, hala nola, martxoaren 8an ospatzen den emakumeen nazioarteko egunaren harira.

“Martxoan urtero eta historikoki emakume taldearekin batera, guk eramaten ditugun gauzetatik beraiek, egin izan dute arte eszenikoen programazioa eta hor beti saiatu gara martxoko oferta bideratzen, beno, martxoaren 8ko tematikaren inguruan, programatzea zerbait beti ere beraiekin adostasunean.” -Kultura teknikaria-

Kulturak, gizartearen aberastasun intelektual eta afektiboa, eta gizarte talde desberdinen arteko kohesioa bilatzea helburu izanik, berdintasun egoeran bizi ez den gizarte bati eragin nahi diolarik, berdintasuna lanerako ardatz moduan ulertu beharko luke.

5.9.2- KULTUR ETXEKO ZERBITZUAK

Oñatiko kultur etxean eskaintzen ditu kultura sailak zerbitzu gehienak. Kultur etxean hala ere badaude zerbitzu batzuk kultura zerbitzuak kudeatzen ez dituenak. Kultur etxean daude, erakusketa gela, haur liburutegia, zinea, nagusien liburutegia, zinea, taldeentzako gelak eta kultura zerbitzuen bulegoa kulturak kudeatutakoen artean eta Kz gunea, hezkuntzak kudeatutakoen artean. Horretaz gain, plazatik gertu dagoen Santana Antzokia ere kulturatik kudeatzen da; han musika eta arte eszenikoko emanaldiak egoten dira.

5.9.2.1- Ikastaroak

Ikasturtean zehar hainbat ikastaro antolatzen ditu Udalak, heldu nahiz gaztetxoentzat. 40 ordutako ikastaroak izan ohi dira, eta hauetan batz besterik 10-12 pertsonen parte hartzen dute. Antolatzen diren ikastaroak eskulanekin zerikusia izaten dute:

- Hari, Patchwork eta puntu lanak.
- Zeramika.
- Eskulan dekoratiboak.
- Bitxigintza.
- Pintura.

Ikastaroetako parte-hartzaileei dagokienez, haurren ikastaroetan neskek zein mutilak antzeko kopuruetan parte hartzen badute ere, helduetan askoz gehiago dira emakumeak.

Ikastaroen eskaintzak horretan zerikusi handia du: tradizionalki emakumeei egotzitako arteak edo lanak dira eskaintzen direnak, eta ondorioz, gizonezkoren batek parte-hartzen badu ere, zaila da gizonezkoak erakartzea, muga sozial bat baitago. Ikastaro hauetan berdintasuna, ez da kontuan hartzen: hau da, ez da diziplina hauetako bakoitzean emakumeek eta gizonek izan duten eta gaur egun duten parte-hartzearen, lortu duten oihartzunaren eta aitortzaren inguruko hausnarketarik egiten.

5.9.2.2- Erakusketak

Erakusketa gela, herri mailako profesional eta kultur taldeei aukera ematen die euren lan, aldarrikapen edo bestelakoak erakusteko, eta aldi berean, herritarrei horiek ezagutzekoa. Azken finean, erakusketak adierazpen modu bat dira beti, eta honenbestez kontalari eta eragile dira era berean. Astelehenetik igandera irekita egon ohi da arratsaldero.

Kultura zerbitzuak aretoaren programazioa kudeatzen du eta aretoaz arduratzen da. 200m²-ko aretoa, kultur etxeko sotoan dago, eta Udalaren ekimenez, sortzaile elkarte edo enpresa pribatuen ekimenez edo proposamenez, zein herriko eta bailarako sortzaileen bidez programatutako erakusketak topa daitezke bertan.


Erakusketak antolatzerakoan ez da emakumeen lanak erakusteko espezifikoki lan egin; inbisibilizazioarekin amaitzeko helburuz alegia. Sexua edo sexualitateagatik kolektibo batzuk bizi dituzten eskubideen urraketak salatzeke egon da inoiz erakusketa berezirik herritarren ekimenez. 2009An, ekainak 28aren bueltan, LGTB mugimenduaren eguna, Ehgamek sexu askapenaren aldeko erakusketa bat jarri zuen esaterako. 2012ko uztailean bitarte zazpi erakusketa egon dira, eta hauetako batek ere ez du kontuan hartu berdintasunaren inguruko gairik.

Erakusketak ikustera inguratzen direnen kopuruak jasotzen ez badira ere, emakumeak gizonak baino gehiago hurreratzen direla hauek ikustera uste da.

5.9.2.2- Liburutegia

Oñatiko Udal liburutegian, haurren liburutegia eta helduen liburutegia berezitu daiteke. Liburutegiak, guztira, 6.458 bazkide ditu. Horietatik 1.201 haurrak dira eta 5.254 helduak. Bazkide guztiak kontuan hartuta, zertxobait gehiago dira emakumeak (3.354) gizonezkoak (3.104) baino. Bazkideen artean %51,94 emakumeak dira eta %48,04 gizonak. Helduen artean emakumeak gehiago dira; aldiz, umeen artean mutil gehiago dago. Helduen artean, emakumeak dira %52,60a eta gizonak % 47,40a. Esan daiteke emakume gehixeago badago ere aldea ez dela oso handia. Haurren kasuan ere, ez da nabari alde handirik: neskek %49,04a dira, eta mutilak %50,96.

Bazkide kopuruak ez ezik, erabiltzaileen kopuruak ere informazioa ematen digu. Izan ere, ez da gauza bera bazkidea izatea eta liburutegiko zerbitzuak erabiltzea. 2011ko bazkideen datuek erakusten dute, erabiltzaileen artean gehixeago direla emakumeak. Erabiltzaileen %51,86 emakumeak izan ziren eta %48,14 gizonezkoak. Datu hauek erakusten dute, erabiltzaileen aldetik emakumeen zein gizonezkoen parte-hartzea liburutegian parekoa dela.



28. grafikoa: Liburutegiko bazkideak, bazkide kategoriaren eta sexuaren arabera. 2011.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Erabiltzaileak	3270	3035	6305

31. taula: Liburutegiko erabiltzaileak sexuaren arabera. 2011.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Oñatiko Liburutegia Euskadiko Liburutegien sarean sartuta dago. Ondorioz, datuen kudeaketa Absys programaren bidez bideratzen da. Programa horretan daude sartuta bazkide eta erabiltzaileen datuak, eta generoa jasotzeko aukera ematen du. Horri esker, posible da erabiltzaileen sexuen arabeko azterketa egitea.

Liburutegian liburuak, aldizkariak, egunkariak, ikus-entzunezkoak, datu baseak eta bestelako euskarriak kontsultatu daitezke. Horretaz gain, ipuin kontaketa ere antolatu izan dira. Berdintasuna ez da zehazki lantzeko kontuan izan den gaia, nahiz eta posible den saioen batean edo liburuak komentatzerakoan landu izana. Ez dago atalik, emakumeen lanen inguruan, edo feminismoaren inguruko lanak jasotzen dituenik.



21. irudia: Oñatiko Udal Liburutegiko logoa.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

5.9.2.2- Zinema

Oñatiko zinea kultur etxean dago. Ostiral, larunbat, igande eta astelehenetan egoten dira emanaldiak ikasturtean zehar. Astelehenetan ikusleen eguna izaten da. 2011n 53 pelikula bota ziren. Horien artean denetarik zegoen: generoari, lantzen zituzten gaiei eta zuzendutako publikoari dagokionez. Esan daiteke, pelikula horietan emakumeak eta gizonek zituzten paperak eta horiekin adierazi nahi dena aztertzen bada ere, denetarik topa daitekeela.

Zinea istorio narratzailea den heinean, gizarte prozesuen narratzailea da eta historia eta istorioen sortzailea ere bada hein batean. Gure gizartearen kontakizun bat bilakatzen da. Filmetan agertzen diren egoerek guk egiten dugun gizartearen irakurketan eragiten digute oharkabea eta kontzienteki. Gizarte balio batzuk irudikatzen dira filmetan, eta horiek transmititzen dizkiete publikoari. Horregatik, berdintasuna kontuan hartzea garrantzitsua da. Berdintasunezko egoerak agertzen badira pelikulan, berdintasun balioak transmititzen direlako, eta berdintasun eza salatzen egoerak ematen badira, aldaketa beharrezkoak balioa transmititzen delako. Horrek gure gizarteaz dugun irakurketa aldatzea eragin lezake.

Zinemara joaten direnen artean, saioaren, egunaren eta orduaren arabera aldaketak daude. Umeen saioetara haur gehienak gurasorik gabe joaten dira. Helduen kasuan, ostiral eta astelehen gaueko sesioetara gehienbat emakumeak joaten dira. Eta larunbatetan eta igandeetan, emakumeen eta gizonezkoen kopurua antzekoa izaten da, emakume eta gizonez osatutako bikoteak izaten baitira gehienbat.

5.9.3- SANTA ANA ARETOA

Santa Ana aretoa 1986. urtean inauguratu zen baina 2003. urtean berrikuntza eta birmoldaketak egin ziren. 273 eserleku ditu. Izaera balioanitz du: antzerki emankizunak eman daitezke, musika kontzertuak, dantza emanaldiak zein bestelako emanaldiak. Gainera, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek ere erabil dezakete (enpresa ekitaldiak, bilerak, aurkezpenak, kongresuak, e.a.) alokairu baten truke.

2012an, uztaile arte 8 antzerki egin dira. Antzezlanak kultur zerbitzuak kudeatzen ditu. Horietako bat Theatrola konpainiaren "Gona Gorriak" antzezlana izan zen: berdintasuna herri jorran batzordetik atera zen ideia, martxoaren 8aren bueltan antolatzen.

Antzerkia ikustera inguratzen direnak gehienak emakumeak izaten dira. Hala ere, antzerki motaren arabera aldaketak ere egon ohi dira.

"Oso formatu berritzailea, abangoardista, edo gazteei begirakoa ez bada hor zifrak pixka bat berdindu egiten dira (...) emakumeak goitik baina orekara goaz. Eskaintza tradizionalagoa bada, konpainia klasikoa edo traiektoria bat duen taldea euskal antzerkian edo kanpotik ekartzen dugunean, Madriletik, Bartzelonatik, emakumearen presentzia, handiagoa da." -Kultura teknikaria-

Antzerkian emakume gehiagok parte hartzeak, antzerkiak antolatzen diren eguna eta orduarekin zerikusia izan dezakeela uste dute antolatzaileek.

“Hor beste faktore bat dago baita ere, normalean antzezlanak programatzen direla, ostiral iluntzetan gaueko 10:30etan. Ohikoagoa da emakume heldu koadrilak joatea, bikoteak joatea baino, edo gizonezkoak bakarrik edo gizonezkoak bi edo hiru gizonezkoak joatea baino. Ostiralak beste ohitura batzuk ere badauzkalako, irtetekoa, poteoak, sozietatea... igual oso sinplea da analisia baina... Igande arratsaldetan batzuetan neguan programatzen dugunean, egin izan dugu, eta segur aski gehiago orekatzen da. Bikote gehiago joaten direlako.” -Kultura Teknikaria-

Antzerkiak, zinearen moduan ikusleen artean emakume gehiago izan ohi ditu. Gizonezkoen eta emakumezkoen aisialdi ohiturekin lotua dago neurri batean.



22. irudia: Santa Ana Antzokia.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

5.9.4- JAIK

Jaiak, gizarte balioak indartzeko guneak dira. Izan ere, festa giroan gertatzen diren ekintzak, aisialdian, besteekin eta ondo pasatzearekin lotzen dira: hortaz, ekintza horiei lotutako balioak balio positiboekin lotzen ditugu oharkabeen. Horregatik, berdintasunean oinarritutako balioak transmititzeak garrantzia berezia hartzen du festa giroan.

Kultura arloak antolatzen ditu herriko jai nagusiak eta beste hainbat jai ekintza. Auzoetako jaiak auzokideek antolatzen dituzte. Urtean zehar lau jai daude: Inauteriak, Korpus eguna (prozesioa egiten da eta dantzariak daude), jai nagusiak diren San Miguelak eta Gabonetako ekintzak.

JAIAK	
Inauteriak	Pazko Igandetik hasita 46 egun aurretik Errauts eguna da eta aurreko aste buruan lhauteriak ospatzen dira.
Korpus eguna	Pazko Igandetik hasita 60 egunera, Korpus eguna izaten da hurrengo Igandea ospatzen da.
San Migel Bixamona. Irailak 30. Jai Nagusiak	Haurren eguna, San Migel Aozaratzaren eguna, San Migel eguna, San Migel Bixamona, Herri eguna, Errosario eguna eta Errosario Bixamona egunak ospatzen dira besteak beste.
Gabonak	Abenduan zehar eta urtarrilak 6ra bitartean kultur egitarau berezia.

Festa horien antolamendurako, kultura batzordean aztertzen dira, jaietan burutzen diren ekitaldi guztiak. Herriko edozein talde edo elkarteak egin ditzakete proposamenak Kultur Sailera. Jaien inguruko batzorde espezifikoa antolatzen dira, eta interesa duten herritarrak eta herriko taldeak inguratzen dira. Jai batzordean elkarte desberdinetako ordezkariak parte hartzen dute. 2012an 12-15 kolektibo desberdinetako jendeak parte-hartu du; 60 gizona eta 40 emakume, gutxi gora behera. Deialdia orokorra egiten da.

Ez batzorde horien parte-hartzean ezta egitaraua osatzerakoan ere emakumeen presentziaren eta parte-hartzearen inguruko eta sexu jazarpenaren inguruko hausnarketarik, eskaerarik eta ekintzarik ez da kontuan hartu 2012ra arte. Urte honetan, herritarren eskaeraz, ekitaldietan emakumeen parte hartzea ekintza desberdinetan bermatu nahi izan da. Sektore batzuetan ordea, eskaintza mugatua da:

“Eta noski, esaten duzu, merkatua ikusi behar da, eskaintza zer dagon eta talde batean igual hirurak emakumeak dira, beste batzuetan bi eta bat, edo beste batzuetan bat eta bat. Eta beno, oferta musikalean berdina. Inklusio jai batzordearen eskariz horrelako kontratazio bi bideratu ziren, zorte txarra izan genuen pare bat talde jauzi egin zitzaizkigun kontratuak lotu eta gero. (...) Eta jai batzordeko eskaera bat ere izan zen ea zergatik ez genuen pilota partiduak emakumeekin planteatzen, baina hiru enpresa desberdinekin hitz egin ondoren, oferta profesionalean gaur egun ez dago herriz herri ibiliko den ofertarik. Herri kirolean, bai, badago, oraindik oso minoritarioa, baina bai, badaude harrijasotzaileak, aizkolariren bat edo beste, baina beno hamarretik bi edo hiru.”

-Kultura Teknikaria-

Udalak jaiak antolatzeko herriko elkarteei diru-laguntzak ematen dizkie. Bai lehen aipatutako jaiak antolatzeko, eta baita auzoetako jaiak antolatzeko ere. Diru-laguntza horiek ematerakoan ez da genero ikuspuntua sekula ez da faktore bat izan: taldearen izaeran edo egiten dituen ekintzetan diskriminaziorik dagoen edo ez, ez da aztertzen.

5.9.5- KULTUR ERAGILEEKIN HARREMANAK

Oñatiko kultur eta gizarte eragile desberdinekin harreman zuzena izaten du Udalak.

Izan ere, talde hauek beren funtzionamendurako eta antolatzen dituzten ekintzetarako behar dituzten azpiegiturak eta ekipamenduak Udalarenak dira askotan, eta Udalak utzi egiten dizkie. Kultura zerbitzuak dinamizatzaile eta koordinatzaile lanak betetzen dituela esan daiteke. Elkarte hauetako batzuk gainera, ekintzak antolatzeaz gain, Kultura batzordeetan parte hartzen dute; izan ere eurak dira herriko kultura bizitzaren oinarria. Udalak kultur eragile hauei laguntza eskaintzen dienean ez du kontuan hartzen sexuaren arabeko egoeraren parametrorik. Eta ez du eragile hauen artean, berdintasuna sustatzeko ekintza berezirik egin. 2012an eragileek antolatuta, uztaiera arte egin diren 39 hitzaldi, emanaldi eta antzekoetatik, sei genero berdintasunaren edota sexu eta sexualitate aukerarako askatasunaren ingurukoak izan dira. Guztiak emakumeen taldetik antolatutakoak izan dira.

Horrez gain, elkarten dinamika sustatzeko eta laguntzeko, diru-laguntzak eman ohi dira kultura sailetik. Hiru diru-laguntza mota daude:

- Ekintza konkretuak egiteko ematen direnak: azpiegitura mailako laguntzak izaten dira normalean. Horren barnean sartzen dira jaietan, auzoetakoetan zein herrigunean egiten direnetan, ekintzak antolatzeko taldeei diru-laguntzak ematen zaizkie
- Kultur-taldeen lana babesteko ematen direnak: urteko programa bat aurkezten da, eta horren arabera ematen dira. Ondoren justifikazioak aurkeztu behar dira.
- Diru-laguntza nominatiboak: elkarte independenteak izan arren aurrera egiteko Udalak erabat finantzatzen dituen taldeak dira: Udal Musika banda eta Musika eskola.

Diru-laguntza hauek ematerako garaian ez dute kontuan hartzen eskatzailea den taldearen izaeran eta egitea proposatzen duten ekintzetan berdintasun irizpideak betetzen ote diren, ezta alde horretatik betebeharririk eskatzen ere.

5.9.6- LABURBILDUZ -Kultura zerbitzuak-

AHULGUNEAK

- Sexua ez da datuak jasotzerakoan kontuan izaten.
- Berdintasun irizpideak kontuan izatea ekintzak antolatzerakoan edo diru-laguntzak ematerakoan ez dago arautua eta ondorioz ez da beti egiten.

INDARGUNEAK

- Liburutegia sarean dago eta horrek bai antolatzeko eran zein lortu daitezkeen baliabideari dagokionez aukera asko ematen ditu.
- Emakumeen taldeekin harremana badago, eta lanak egin dira aurretik.

ARRISKUAK

- Kultur ekintza batzuetan gizonezkoek parte hartzea zaila da. Faktore asko eragiten dute; gizartea eta honen funtzionamendua rolen banaketan arabera egituratua dago egun. Kanpo faktoreek eragin handia dute.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Erabiltzaile kopuruak sexuaren arabera banatuta jaso.
- Egiten diren ekintzetan eta emandako emanaldietan, hauen edukietan berdintasun balioak landu.
- Argitaratzen diren lanetan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabili.
- Emakumeen kultura adierazpenak ikustarazten direla bermatu.
- Liburutegian berdintasunaren inguruko atala sortu.
- Eragileekin lan-egin berdintasun irizpideen inguruan.
- Diru-laguntzetan berdintasun irizpideak txertatu.
- Ekintzak antolatzerakoan bateragarritasunerako aukerak aztertu eta hauek lantzen saiatu.

5.10- ONGIZATE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuetatik Oñatiko gizarte sektore ahulenean lan egiten da. Pobrezia, ezgaitasuna edo bestelako arazoak tarteko, gizarte bazterketan edo gizarte bazterketa arriskuan dauden kolektiboekin lan egiten da. Izan ere, zerbitzu honek helburutzat du:

- Gizabanakoen autonomia bultzatzea eta mendekotasunak dituztenei laguntzea.
- Babes eza dutenei laguntzea.
- Baztertzeko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien edo taldeen birgizarteratzea bultzatzea.
- Larrialdi egoeretan dauden pertsona eta familiei laguntzea.

Ongizate zerbitzuen erabilzaileen gehiengoa emakumezkoa izan ohi da. Izan ere, emakume gehiago daude egoera kaskarragoetan gizonen aldean, eta era berean, familian laguntza behar dutenen artean, laguntza eskatzera hurbiltzen direnak emakumeak izan ohi dira gehienetan.

Eskaintzen diren zerbitzuen artean, zabala da aukera. Laguntza edota zerbitzu mota desberdinak daudela esan daiteke: behar ekonomikoak dituztenentzako prestazio ekonomikoak, ezintasunak dituztenentzako era desberdinetako zerbitzuak, adinekoentzako zerbitzu espezifikoak, gizarteratze arazoak dituzten haur, gazte eta familiei zuzendutako zerbitzua, drogamenpekotasun arazoak dituztenentzako aholkularitza eta herri-mailako kontzientziario kanpainak, gizarte zerbitzuekin bat egiten duten ekintzak antolatzen dituzten elkarte eta herriko taldeentzako diru-laguntzak, eta nazioarteko lankidetzara bideratutako diru-laguntzak.

LAN ARLOAK	ZERBITZUAK
Prestazio ekonomikoak	-Oinarrizko errenta. -Goi larrialdietako laguntzak. -Kotizatu gabeko pentsioak dituztenentzako gizarte ongizateko fondoak.
Ezintasunak	-Ezintasun eta mendekotasun balorazioak. -Ezinduentzako txartela ibilgailuen aparkalekuetarako. -Ezinduentzako bono taxiak. -Ezinduentzako etxez etxeko laguntza (etxeko lanak, norbere burua zaintzekoak eta osagarriak eta bereziak). -Ezinduentzako eguneko zentroa. -Ezinduentzako egoitza. -Etxean programa. -Teleasistentzia.
Adinekoak	-Ezindu edo mendeko moduan baloratuentzako ezintasunak dituztenentzako laguntzak eta zerbitzuak. -Sendian programa. -Adineko ezinduen eta pertsona ezgaituen harrerarako familia

	<p>programa.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Etxebizitza tutelatuak. -Pentsiodunen oporraldiak.
Familiak, haurrak eta gazteak	<ul style="list-style-type: none"> -Familia tratamendurako laguntzak. -Gizarteratzeko arazoak dituzten 12 eta 16 urte bitartekoentzat gizarte hezitzaileekin modu indibidualean nahiz taldeka gauzatutako programak. -Arazoak dituzten familientzako gizarte hezitzaileekin egindako interbentzio programa.
Drogomenpekotasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Informazioa eta aholkularitza. -Prebentzio programak herri mailan eta hezkuntza zentroetan. -Jai eremuetan arriskuak gutxitzeko programak. -Sentsibilizazio programak.
Elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> -Laguntza teknikoak: aholkularitza. -Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburuekin bat egiten duten programentzako.
Nazioarteko lankidetzak	<ul style="list-style-type: none"> -Diru-laguntzak Gobernu Kanpoko Erakundeei.

Ongizate zerbitzuan bost langilek dihardute: horietatik lau gizarte langileak dira, eta bat harreragile lanetan aritzen da.

5.10.1- GENERO IKUSPEGIA ONGIZATE ZERBITZUAN

Berdintasun ikuspegiak hainbat faktore kontuan izan eta eguneroko jardunean lan egiteko modu bat izatea esan nahi du. Emakumeen egoera gizonezkoekiko aukera berdinean egon dadin kontuan izatea zerbitzu guztietan, eta ez dagoen kasuetan modu teorikoan zein praktikoan, zeharka zein zuzenean, hori lortzeko bitartekoak jartzea. Parte-hartzea bultzatzea eta kontzientziazioa sustatzea alegia. Ongizate zerbitzuan orain arte, ez da lan egiteko modu hau egon. Egoera konkretuetan egin dira kanpainak, eta zerbitzuan sortu izan dira honen inguruko kezka ere, gizarte zerbitzuen erabiltzaile gehienak emakumeak direlako eta emakume kategoriak baztertuago egotea esan nahi duela mahaigaineratzen delako sarri, eta gizonezkoen kasuan genero-rolak tarteko gizarte-zerbitzuekin duten harremana baldintzatua dagoela atzeman izan delako. Genero berdintasuna helburu duen lan egiteko modua bereganatzeko duen lana da oraingoz.

5.10.2- ZERBITZUAK ETA ERABILTZAILEAK

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen gehiengoa emakumea izan ohi da EAEn. 2008an pertsonen eta familien pobrezia-maila eta babesgabezia neurtzeko Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko

inkestak⁷ hori adierazi zuen; pobreziaren feminizazioa hazten ari den fenomeno da Euskadin. Txosten honetako datuak erabili zituen Emakunde emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak zifratu jasotzen dituen dokumentua egiteko. Dokumentu honetan eta beste dokumentu batzuetan egiten den argazki orokorrak Oñatiko egoera ulertzeko gakoak ematen ditu. Emakunderen 2010rako Zifra txostenean laburbiltzen da pobrezia nola eragiten dien emakumezkoen. Pobrezia arriskuan bizi direnen gehiengo emakumeak dira, eta emakumeek gizonen aldean pobrezia jasateko ere aukera gehiago dituzte.

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
Pobrezian dauden artean	82,9	17,1
Pobrezia-arriskuan daude	47,1	10,7

32. taula: Pobretasun-arriskuaren tasa eta banaketa, sexuaren eta norberaren diru-sarreraren arabera (%). 2008.
Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008
Egilea: Emakunde

Emakumezko bat soilik buru duten etxeetan pobrezia arriskua oso handia da, eta gizonetzkoak buru dituzten etxeekin konparatuz aldea oso nabarmena da. Honek esan nahi du, etxe horietan ez dagoela baliabide ekonomiko nahikorik oinarritzko beharrak asetzeko.

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	H	B	H	B
Pobrezia	32,00	8,20	68,00	3,30
Ongizate Gabezia	31,00	28,10	69,00	12,00
Ongizate egoera	13,50	71,90	86,50	88,00

33. taula: Pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia dakarten egoeren intzidentzia, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia etxebizitzetako biztanleria (%). 2008.
Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.
Egilea: Emakunde

Ondorioa argia da: txirotasunak gehiago eragiten die emakumeei. Emakumeak buru dituzten etxeen %13,5a dago ongizate gabezia egoeran. Txirotasunak edo gabezia ekonomikoak dimentsio ugari dituen arren, prekaritatea eguneroko gastuak eta bizi maila mantentzeko errenta nahiko ez izatearen ondorioa da. Lehen aipatutako *Txirotasun eta Ezberdintasun Sozialen inguruko Inkesta*-n jasotzen denez, txirotasuna bi mailatan bereizten dute.

a-Oinarritzko beharrak, elikadura, etxebizitza, arropak eta oinetakoak, asetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.

b- Oinarritzko beharrak aseta izan arren, gutxieneko ongizate eta erosotasun maila bermatzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.

⁷ Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, (2009). *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2008*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

Inkesta zabal eta sakona den arren, emakumeak txirotasun egoerak jasatera sentikorragoak direla frogatzen duten datuak soilik ekarri dira orri hauetara. Inkestaren ondorioetan txirotasuna jasateko arrisku egoeran dauden kolektiboak jasotzen dira (arrisku gehien dutenetik gutxien dutenera):


- Bakarrik bizi den 45 eta 64 urte bitarteko emakumea.
- 55 urtetik beherako emakumea, lan ezegonkorrekin eta familia monoparentaleko burua.
- Europar Batasunaz kanpoko nazionalitateko pertsona.
- Bakarrik bizi den eta lan ezegonkorra duen 65 urtetik beherako gizona.

Pentsatzekoa da Oñatin ere ezaugarri hauetako pertsonak diren pobrezia egoeran edo arrisku egoeran bizi direnak, eta hauek direla gizarte zerbitzuen erabiltzaile nagusiak.

5.10.2.1- Diru-laguntzen onuradunak

Pobrezia egoeran edo bazterkeria jasotzeko arriskuan eta babes gabe dauden gizarte kolektiboak ematen dira prestazio ekonomikoak. Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak dira, baina udalek kudeatzen dituzte eskaerak. Hiru diru-laguntza mota daude. Oinarrizko errenta -soldata minimo interprofesionala jasotzen ez dutenentzako diru-laguntza-, larrialdietako laguntza -gastu espezifikoei aurre egiteko ematen diren diru-laguntzak, jarraikortasunik gabeak-, eta kotizatu ez eta pentsio oso txikiak dituzten pertsonentzako diru-laguntzak. Azken kasu honetan geroz eta jende gutxiago dago.

Oñatiko kasuan, 96 pertsonak jaso zuten 2011. urtean oinarrizko errenta. Horien %69,80a emakumeak ziren. Larrialdietako laguntza berriz 29 pertsonak jaso zuten. Eta kasu horretan ere gehiengoa emakumeak (%68,97) izan ziren.



29. grafikoa: Diru-laguntzak jasotako Oñatiarrak laguntza motaren eta sexuaren arabera. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Diru laguntza eskatzera hurbiltzen direnen soslaia, emakumezkoek eta familia monoparentalek osatzen duten, eta erlijio musulmana dutenen kasuan gizonezkoek: baina kasu guztietan familia izaten da laguntzaren jomuga.

“Normalean familia dago tartean. Familia monoparentala, edo familia. Kenduta musulmanak direnak, hortan bai etortzen direla gizonak, baina beste danetan emakumeak. Eta bestela monoparentalak.” -Gizarte langilea-

Bada, gizonak zein emakumeak hurbiltzen dira zerbitzua eskatzera. Baina zenbakitan emakumeak gehiago dira: badirudi gizonak euren egoera onartzeko erreparatu gehiago izaten dutela. Larrialdietako laguntzetan zein oinarrizko errenta jasotzeko diru-laguntzetan gertatzen da hau.

5.10.2.2- Aniztasun funtzionala⁸ dituztenentzako zerbitzuak

Ezintasuna eta ezgaitasun balorazioa jasotzeko, lan-egoera aldatzeko, prestazio ekonomikoak jasotzeko zein laguntza sozialen erabiltzaile izateko aukera izatea dakar. Egungo ongizate sistemak, laguntza mota desberdinetara sartzeko balorazio bat eskatzen du: ezgaitasun eta mendekotasun balorazioak daude. Ezgaitasuna, fisiko, psikiko edo sensoriala izan daiteke eta ezgaitasunaren maila baloratzen da. Mendekotasuna baloratzean, adinaren ondorioz (adineko pertsonak), gaixotasun edo ezgaitasunaren ondorioz, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sensoriala galdu duten pertsonen mendekotasun iraunkorra dela egiaztatzen da, eta horregatik biziraupenerako norbaiten laguntza behar dutela.

Oñatiko kasuan, 2011n 54 pertsonak jaso zuten ezgaitasun balorazioa: horien artean emakumeak ziren gehiago (%58,84). Mendekotasun balorazio jaso zutenak gehiago izan ziren: 166 pertsona. Kasu honetan ere gehiago ziren emakumeak(%59,04). Kontuan izan behar da, ezgaitasun zein mendekotasun balorazioa jasotzen duten gehienak adineko pertsonak direla, eta adinduenen artean gehiago direla emakumeak. Hortaz, kontuz hartu behar dira datu hauek.

BALORAZIOAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Ezgaitasuna	34	20	54
Mendekotasuna	98	68	166

34. taula: Ezgaitasun eta menpekotasun balorazioak jasotako Oñatiarrak sexuaren arabera. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Mendekotasun balorazioak egiteko zuzeneko elkarlana egin zen osasun zentroarekin. Eta horrek gizarte zerbitzuetara jendea erakarri zuen. Balorazio horiek jasotako batzuek etxetik etxeko laguntza (ELZ) jaso zuten. 2011n 75

⁸ Hitz hau erabiltzea erabaki dugu ezintasun hitzaren ordez. Hitz honen erabilera bizitza independienteraren aldeko taldeek hobetzi dutelako. Testuan zehar ezgaitasun edo ezintasun hitza erabiliko dugu legeak eta laguntzek izen hau erabiltzen dutelako.

pertsonek jaso zuten laguntza. Horietatik, gehiengoa emakumeak ziren (%89,33). Etxez etxeko laguntza jasotzen dutenen artean, etxe bakoitzerako onuradun bat dagoela kontatzen da; posible da, ordea, laguntza baten izenean egon baina zerbitzua pertsona bat baino gehiagori ematea. Horregatik, datu hauek ez dute informazio osoa ematen.

ONURADUNAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Altak	67	38	75
Bajak	4	2	6


35. taula: Etxez etxeko laguntza jasotako Oñatiarrak sexuaren arabera. 2011.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

Zerbitzua eman ahal izateko Udalak etxez etxeko langileen zerbitzua kontratatzen du. Guztiak emakumeak dira. Etxeko lanak eta zaintza lanak, emakumeen lantzat hartuak izan dira, eta oraindik ere zaila da profesionalki horretan aritzeko prest dagoen gizonik topatzea. Horri gaineratu behar izaten zaio, lan-baldintzei dagokienez ere ordutegi partzialeko lanak izatean eta soldata kontuan izanda ere, bigarren mailako lantzat hartuak izaten direla oro har. Horren erakusgarri, egun, zaintza lanak emakume etorkinek egiten dituztela.

Telelaguntza zerbitzua eskaintzen den beste laguntzetako bat da. Lepotik zintzilikatzen den komunikazio aparatua da larrialdi egoeretan erabiltzeko prestatua; botoi bat du zapalduz zuzenean larrialdi zerbitzuarekin kontaktuan sartu daiteke erabiltzailea. Prebentzio neurri moduan bakarrik bizi diren, edo bakarrik ordu asko ematen dituzten adinekoek eta ezgaitasunen bat dutenen erabiltzen dute. Oñatin 145 pertsonek erabiltzen dute. Horien gehiengoa emakumeak dira kasu honetan ere (%84,83).



30. grafikoa: Telelaguntza jasotako Oñatiarrak laguntza motaren eta sexuaren arabera. 2011.

Iturria: Oñatiko Udala.

Egilea: Farapi S.L.

“Emakumearen pentsaera ere badago hor, ezta? Prebenitzea. Esaten dute: 'zerbitzua ikusita, zer kostatzen zait badazpada ere edukitzea'. Segurtasun neurri bezala hartzen dute. Gizonak horretarako...” -Gizarte langilea-

Gizonei telelaguntza zerbitzua eskatzea kostatzen da. Autonomia galeraren onarpena dakar horrek, eta gizonetzko gehiago kostatzen da pausu hori ematea. Maskulinitasuna ulertzeko modu tradizionalak, indartsua izatea eta guztiaren kontrola izateko gaitasuna erakusten du; eta ahuldadea eta kontrolaren galera irudikatuko luke haien telelaguntza onartzeak.

Antzekoa gertatzen da, egoitza zerbitzuak onartzerako garaian ere. Gizonetzko gehiago kostatzen da laguntza behar dutela onartzea. Emakumeak laguntza bila errazago joaten dira gizarte zerbitzuetara ere; aldiz, gizonetzkoentzat traba handiagoa da hori. Dena den, behin pausu hori ematen dutenean, emakumeek euren etxean geratzeko hautua egiten dute lehenik. Gizonetzkoek aldiz, etxean kanpoko norbaitek zaintzea baino nahiago izaten dute egoitza batetara joatea.

Egoitza mota desberdinak daude Oñatin: Eguneko zentroa, psikogeriatrikoa, zahar etxea eta tutoretzapeko etxebizitzak. Azken hauetan 4 etxebizitza daude eta 5 plaza. Etxebizitza indibidualak dira, eta denak eraikin batean daude. Etxez etxeko laguntza eta bestelako laguntzak jasotzen dituzte bertan bizi direnek. Autonomia maila nahikoa duten pertsonak dira erabiltzaileak, une honetan denak emakumeak, eta etxe hauetara pasatzea erabaki zuten, euren etxeetan zituzten irisgarritasun arazoak tarteko.

“Nik uste dot animatu zirela ba astensoria, gero gastuak nola eramaten ziren, ze gastu ia guztiekin gu egiten gara kargu, ordun kobra eiten dogu kuota bat, eta azkenean (...) denei merkeago urtetan zitzaizen alkilerra gehi euren gastuak” -Gizarte Langilea-

Gainera, kanpoko pertsona bat arudaratzen da garbiketa lanak egiten eta tele-asistentzia zerbitzua daukate. Zerbitzu hauetan emakumeak izan dira ia beti parte-hartzaileak, ohituago baitaude berain buruaz arduratzera.

EGOITZA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Tutoretzapeko etxebizitzak	4	0	4
Psikogeriatrikoa			
Zaharren egoitza			
Eguneko zentroa	20	5	25

35. taula: Egoitza zerbitzua jasotako Oñatiarrak egoitza motaren eta sexuaren arabera. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Etxean bakarrik dauden gizonak, ordea, egoitzetara joateko predisposizio handiagoa dute. Aldiz, emakumei gehiago kostatzen da etxetik ateratzea.

“Emakumeak gehiago dira etxean geratzekoak; izan ere begiratu ditu datuak orain eta horrela da. Zaharren egoitzan ere gehiago dira altak gizonezkoenak emakumezkoenak baino” -Gizarte Langilea-

Baserrietan bizi direnen egoera erabat desberdina izaten da. Ezgaitasunen bat dela eta laguntza behar duten baserrietan bizi diren adinekoekin lan egiteko zailtasunak izaten dituzte gizarte zerbitzuetan. Izan ere, egoitza zerbitzuetara ez dute joan nahi izaten, etxetik irten nahi ez dutelako. Bestelako irtenbideak eskatzen ditu egoera horrek. Horregatik, egon daitezkeen aukerak aztertzen ari dira.

Askotan laguntza hauek eskatzera etortzen diren pertsonak ez dira, egoitza zerbitzuaren erabiltzaileak izaten, baizik eta haien gertukoak, hala nola seme-alabak, anai arrebak, etab.

“Ardura hori bai, igartzen da aldaketa bat. Eta gizonak samurrago etortzen direla eta beste normaltasun batekin etortzen da.” -Gizarte langilea-

Belaunaldi gazteagoen artean gizonezkoek zaintzaren ardura hartzen hasi dira pixkanaka. Emakumeei lotuago dagoela ulertu izan da zaintza eta oraindik ere orobat emakumeen lantzat hartzen da; baina gizonezkoek ere besteentzako zaintzaren ardura hartzea gizarte parekide baterako bidean aurrerapauso bat da.

5.10.2.3- Adinekoentzako zerbitzuak

Gizarte zerbitzuetara inguratzen direnen artean asko adineko pertsonak izan ohi dira. Ezgaitasun, mendekotasun eta pentsio-laguntzen bila hurreratzen dira batik bat. Adinekoentzat soilik diren programak ere badaude, ordea.

Sendian programa esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzaren zerbitzuak, adinekoak eta ezgaitasunak dituzten familiei eta batez ere zaintzaileei babesa eskaintzen dien programa da. Bi emakumek jasotzen dute Oñatin zerbitzu hau.

Beste programetako bat, harrera familiena da. Familia batek adineko pertsona baten zaintza hartzen du eta bere zaintzaz arduratzen da denbora batez. Oñatin adinekoentzako harrera familiarik ez dago egun.

Baina bada, aisialdiarekin lotuago dagoen programarik ere eta autonomia maila handia duten adinekoek zuzendutakoa ere. Pentsiodunentzako oporraldiak dira. Pentsatzekoa da gizonezkoek zein emakumezkoek antzera parte hartuko dutela oporraldi hauetan, baina daturik ezean ezin dezakegu baloraziorik egin.

PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Sendian programa	2	0	2
Harrera familiak	0	0	0
Pentsiodunen oporraldiak	--	--	--

36. taula: Adinekoentzako programetan parte hartutako Oñatiarrak sexuaren arabera. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

5.10.2.4- Arazoak dituzten familia, haur eta gazteentzako zerbitzuak

Arazoak dituzten familietan esku-hartzea egiten du batzuetan Udalak. Familia hori bere kabuz arazoak konpontzeko gai ez dela ikusten denean, eta batez ere haur eta gazteen eskubideak errespetatu eta garapen duina bermatzea ahalbidetzeko gizarte hezitzaileekin esku-hartzen da.

Egoera horretan aurkituta, 2011n familia tratamendurako laguntzak jaso zituzten 14 familiak. Gaztetxoekin zuzeneko lana berriz, 4 neskekin eta 12 mutilekin egin zen.

EGOITZA	FAMILIAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Familia tratamendurako laguntzak eta familia hezitzaile programak	14	11	3	14
12-16 urte bitartekoentzat gizarte hezitzaileekin programak	16	4	12	16

37. taula: Familia, haur eta gazteentzako laguntzen erabilizaileak sexuaren arabera. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

Familien eta gaztetxoekin arretarako zerbitzua emateko enpresa aukeratzeko lehiaketa egin zenean, berdintasuneko formazioa izatea saritu zen aurkeztutako programak baloratzerako garaian.

5.10.2.5- Drogamenpekotasun zerbitzua

Drogak eta alkoholaren erabilera generoaren arabera oso baldintzatua dagoen zerbitzua izan da. Oso desberdinak dira hala ere alkoholaren eta drogen kontsumoa hauek hartzen diren ingurunearen eta denboraren arabera.

Tabakoa, alkohola, psikofarmakoak edota legezkanpoko drogak izan kontsumitzen direnak, desberdintasunak topatzen dira; baita sarritasunaren eta bakarrik edo sozializatzeko moduan hartzen direnaren arabera ere. Droga mota desberdinetan, gizonezkoen kontsumoa handiagoa da eta ia denetan, hauek kontsumitzen hasteko adina gizonezkoetan goiztiarragoa da. Aldiz, azken ikerketek emakumeen eta gizonezkoen kontsumo ohituretan aldea geroz eta txikiagoa dela erakusten dute. Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta gizarte gaietako sailak argitaratutako *Euskadi eta Drogak 2010* txostenean⁹, jasotzen zen, oro har, gizonezkoen eta emakumezkoen kontsumoen arteko aldeak murriztu egin direla eta gehienbat gizonezko ohituratzat aztertutako kontsumo gehienak finkatu egin direla. Gazteen eta helduen kontsumoen artean ere gero eta alde txikiagoa dagoela jasotzen zen.

Txosten horretan droga mota desberdinak aztertzen dira: Tabakoaren kontsumoa 20-35 urte bitartekoaren artean altua dela eta kontsumitzaile kopurua emakumeen eta gizonen berdindu egin dela jasotzen da. Adin horretatik gora, gizonezko gehiago dago erretzaileen artean. Gaur egun erretzaile direnen erretzen hasteko batz besteko adina gizonetan 16,2 urtekoa izan zen eta emakumeen artea 17,3 urtekoa. Gaur egungo gazteen artean erretzen hasteko adina zertxobait aurreratu da. Mutilak 14,8 urterekin hasten dira erretzen batz beste, eta neskek 15,1 urterekin.

Alkoholaren kontsumoa zabalduagoa dagoen kontsumo mota da. Alkoholaren kasuan ere kontsumo mota guztietarako gizonezko kontsumitzaileak gehiago dira (noiz behinkakoak, egunerokoak, asteburukoak...), baina bereziki hazi egiten da aldea kontsumo arriskutsuaz ari garenean. Kasu honetan ere mutil gazteak lehenago hasten dira batz beste alkohola edaten: gizonezkoak 16,4 urterekin eta emakumezkoak 17,8 urterekin. Alkoholaren erabilera arriskutsuak egiten dituzten sektoreak identifikatzea oso garrantzitsua da hauekin prebentzioan zein zuzenketak egiteko neurriak hartzeko. Datu hauek erakusten dute, gizonek maskulinitasunaren eraikuntzan, arriskua hartzearen paper horretan eta gizarteratzeko modutzat hartzen den heinean alkohola kontsumitzeko joera handiagoa dutela. Interesgarria da, gazteen artean genero rol hauei aurre egiteko programak diseinatzea. Alkoholari lotuta beste kolektibo batzuk ere badaude: zenbakiz asko ez izan arren eta ezkutuan dauden arren kontuan hartzekoak direnak. Bakarrik dauden eta edan egiten duten emakumeak dira. Berdintasun ezak emakume askok gizarte sarerik ez izatea, edo bere arazoak ezkutatzera eraman izan ditu. Ezkutuan gordetzean, edan egiten dute batzuek.

Psikofarmakoaren kontsumoa ere drogatzat hartzen da. Medikuen errezetarekin eta errezetarik gabe hartzen dira: Lasaigarriak, somniferoak eta antidepressiboak izaten dira. Oro har, hauen kontsumoa ere handiagoa da gizonezkoen artean. Lasaigarriak eta

9 SiiS Dokumetazio eta ikerketa zentroa (2011) Euskadi eta drogak 2010, Enplegua eta Gizarte Gaietako Saila, Eusko Jaurlaritza.

antidepressiboak gehiago hartzen dituzte gizonezkoek; aldiz, somniferoak emakume gehiagok kontsumitzen ditu. Hala ere gizonezkoen eta emakumezkoen kontsumoa nahiko parekoa dela esan dezakegu psikofarmakoei dagokienez. Etxean dauden gizon eta emakumeek eta pentsiodunek kontsumitzen dituzte gehien.

Azkenik, legez kanpoko drogak daude. Batetik, kannabisa, kontsumoa nahiko zabaldua dagoena. Kasu honetan ere askoz gehiago dira kontsumitzaile gizonezkoak emakumeen aldean. Eta bestetik droga gogorragoak: Haluzinogenoak, estasia eta sintetikoak, kokaina, anfetaminak eta speeda, etab. Guztietan gizonezkoen kontsumoa handiagoa da emakumeena baino, eta adin tarte guztietan ematen da hori. Azken urteetan droga mota hauen kontsumoaren beherakada nabaritu da.

Oñatin ez da herritarren droga kontsumoaren diagnosirik egin, eta kontsumo datu horiek ez daude. Dena den, aipatutako EAEko datuek kontsumo ohiturak genero patrioengatik erabat baldintzatuta daudela agerian uzten dute, eta kontsumo mota horiek identifikatzen lagun dezakete. Gainera, kontuan hartu behar da, drogaren eta alkoholaren kontsumoak genero indarkeria kasu gehiago izateko probabilitatea handitzen duela.

Oñatiko Udalak, drogamenpekotasunaren gaia lantzen duenean, bai prebentzioa egiteko eta baita zuzeneko arreta emateko ere, genero aldagaia ez da kontuan hartu izan.

Oñatin 2011n hiru pertsonak jaso zuten arazo hau tarteko aholkularitza eta euren kasuan bideratzen laguntzeko zerbitzua. Adikzio hauek sarri beste gizarte arazo batzuei ere lotuak agertzen dira, eta ondorioz konplexutasun handikoak izan ohi dira.

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Aholkularitza edo bideratzea	2	1	3

38. taula: Drogamenpekotasun arazoak tarteko aholkularitza jasotako pertsonak. 2011.
Iturria: Oñatiko Udala.
Egilea: Farapi S.L.

5.10.2.6- Elkarteentzako laguntza zerbitzua

Ongizate zerbitzuek, gizarte zerbitzuetako helburuekin bat egiten duten herri ekimenetarako diru-laguntzak ematen dituzte urtero. Normalean elkarteak aurkezten dira. Diru-laguntza deialdian zein hauek baloratzean, inoiz ez da kontuan hartu berdintasuna bermatzen ote zuten proposatzen diren ekintzek, edo bestalde ez dira berdintasuna sustatzea bilatzen dute ekimenak sustatzen edo gehiago baloratzen.

5.10.2.7- Nazioarteko lankidetzarako laguntzak

Nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak ere ongizate zerbitzuetatik kudeatzen dira. Izan ere, legez erakunde publikoek urteko aurrekontuaren %0,7a garabidean dauden herrialdeetan proiektuak gauzatzeko edota haien inguruan kontzientziazioa piztera bideratu behar dute. Oñatiko kasuan proiektuak aukeratu, eta betetzen direla

gainbegiratzeko ardura gizarte zerbitzuena da.

Diru-laguntzen oinarrietan ez da orain arte kontuan hartu berdintasuna nola lantzen duten aurkezten den proiektuan, ezta taldearen izaera eta filosofia berdintasun parametroetan oinarritzen den, eta balorazio irizpideen artean ere ez da saritzen berdintasuna sustatzeko ekimena izatea. Posible da berdintasunaren aldeko proiektuak finantzatu izana, baina ez da aspektu hori baloratu delako izan, baizik eta proiektuaren beste aspektu batzuk positibotzat jo izan direlako.

5.10.2.8- Genero indarkeria jasan dutenentzako zerbitzua

Berdintasunaren inguruko gaiak lantzeko berdintasun batzordea sortu zen 2011n. Berdintasunaren inguruko gaiak, gizarte zerbitzuetatik lantzen dira, eta tratu txarrak jasandako biktimak ere bertan artatzen dira. Dena den, batzorde propioak izanik, berdintasunaren atalean biltzen da honen inguruko informazioa.

5.10.3- LABURBILDUZ -Ongintza zerbitzuak-

AHULGUNEAK

-Berdintasuna sustatzea eta diskriminaziorik ez egitea ez da kontuan hartu dirulaguntzak ematean.

-Zerbitzuak eskaintzerakoan eta erabiltzaile mota desberdinekin lan egitekoan ez da kontuan hartzen emakumezkoen eta gizezkoen berdintasunarekin zerikusia izan dezakeen aspekturik.

-Ateratzen diren argitalpen eta idatzietan ez da kontuan hartzen hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea.

-Drogomenpekotasunaren inguruko prebentzio programa espezifikorik ez dago, eta genero patrioiak aldatzeko beharrezkoa da gai honetan ere lan egitea.

INDARGUNEAK

-Datuak sexuaren arabera desberdinuak jasotzen dira.

-Genero indarkeria jaso dutenentzat zerbitzuak aukera zabala eskaintzen du.

-Beste Udal sailekin lankidetzan aritu izan dira, eta harreman ona dago.

-Kasu konkretu batzuetan, arautua ez egon arren, langileen iniziatibaz berdintasuna sustatzeko eta erabiltzaileen edota herritarren kontzientzian eragiteko ekimenak egin dira.

-Erabiltzaileekin lotura estua dute langileek, eta horrek erraztu egiten du edozein lan egitea.

ARRISKUAK

-Oro har, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen perfila emakumezkoa da eta genero kategoria hori izatearen ondorioz, babes gabezia handiagoa bizi du. Gizartearen egiturazko aldaketak beharko litzateke emakumeak, emakume izate hutsagatik gain arriskua izate hori. Beraz, erabiltzaileen perfila ez da zerbitzutik alda daitekeen zerbaite.

-Beste supra-erakunde menpekotasun handia duen zerbitzua da. Positiboa da oso gaur egun zerbitzu asko egitea ahalbidetzen duelako; bestetalde mendekotasun guztiak izan daitezke arriskutsuak, erabakiak ez baitatute Udalaren esku.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

-Egiten diren azterketa, antolatzen diren ekintzetako eta programetako parte-hartzaileen eta arreta ematen zaien zerbitzuen erabiltzaileen datuak sexuaren arabera jaso, modu sistematizatuan.

-Hizkuntza eta irudi sexistarik ez erabili.

-Kontzientziazioa eta prebentzioa landu lan egiten den esparru guztietan generoak nola eragiten duen azpimarratuz.


-Dirulaguntzetan berdintasun irizpideak kontuan hartu.

-Beste Udal sail, herriko erakunde eta eragileekin elkarlanean aritu gaien arabera.



HERRI MUGIMENDUA.
ELKARTEGINTZA ETA
BESTE ERAGILEAK

**HERRI MUGIMENDUA.
ELKARTEGINTZA ETA
BESTE ERAGILEAK**



6- ELKARTEAK ETA TALDEAK

Oñatiko elkarte eta taldeek herri mugimenduaren nondik norakoen berri ematen du. Izaera oso desberdineko taldeak izaten badira ere, herritarren behar, zaletasun eta gizarte inplikazioa ezagutzeko baliogarri da. Aisialdiarekin lotura zuzena izaten dute: izan ere, irabazi asmorik gabeko taldeak izan ohi dira, eta euren ingurunean maila pertsonalean zein kolektiboan onurak lortzeko elkartzen dira: Onura horiek oso izaera desberdina izan dezakete: eskubideen aldarrikapenetik hasi eta ondo pasatze hutsarekin lotutakoetara.

Berdintasuna gizarteko esparru guztietan lortzea da helburua. Eta horretarako, beharrezkoa da herritarrekin aspektu hau lantzea. Elkarte batzuk berdintasuna lortzeko lan egiten badute ere, gehiengoak ez du bere jardunaren ez xede ezta irizpidetzat ere. Atal honetan talde horiek identifikatuko ditugu; horrela, euren jarduna ezagutuz, berdintasuna zein talderekin eta nola landu daitekeen ezagutu ahal izango da.

6.1- OÑATIKO TALDEAK

Oñatin 69 talde daude. Gizarte mugimendu handia erakusten du horrek. Izaera oso desberdinetakoak dira. Elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak eta taldeak, kultur elkarteak, emakumeen taldeak, dendarien elkarteak, ingurumen taldeak, erlijio elkarteak, urritasunak dituztenen elkarteak, jubilatuen elkarteak, GKEak, militantzia politikoko taldeak, kontsumo taldeak, etab.

Elkarte gastronomikoak	17 elkarte	
-Añolea.	-Kale Zaharra.	-Olabarrieta.
-Arrano.	-Kurtze Baltz.	-Pago Uso.
-Batzokia.	-Larrain Gain.	-Pikupe.
-Bezerao.	-Makalena.	-Zubialde.
-Gure Txoko..	-Nekazarien elkarte.	-Zubilaga.
-Haitzalde.	-Oinarri.	

Jubilatuen eta aurrejubilatuen elkarteak
-Pake-leku jubilatue elkarte.
-Appalde aurrejubilatu eta pentsiodunen elkarte.

Erljioarekin zerikusia duten elkarteak
-Cofradía Santísimo Sacramento.
-Parrokiko Gizonen Abesbatza.
-Parrokiko Emakumeen Abesbatza.
-Caritas.

Kirol elkarteak eta taldeak

- Aloña Mendi Kirol elkarte.
- Txantxiku Arkulariak.
- Antxintxiketan kirol elkarte.
- Pago Uso elkarte gastronomikoa.
- Triatloi taldearekin.
- Udana automobilismo.
- Amillena aire taldea.
- Herriko beteranoen futbol txapelketako taldea.

16 elkarte

- Herri-kirol taldea.
- Aloñako Igoerako taldea.
- Eskola kiroleko batzordea.
- Oñatiko bizikleta martxaren antolatzaile taldea.
- ”Ritxi” Mendiguren Athletic-eko Peña.
- Oñatiko Zurigorri taldea (Athletic-eko Peña)
- Abixaran Emakumeen korrika taldea.
- Errealzaleen taldea.

Kultur elkarteak 12 elkarte

- Oñatz dantza taldea.
- Martiñola Kultur elkarte.
- Oñati Abesbatza.
- Ganbara gazte abesbatza.
- Musika banda.
- Parrokia gizonen abesbatza.
- Parrokia emakumeen abesbatza.
- Txistulari banda.
- Zine Kluba.
- Txepetxa denbora libreko elkarte.
- Oñatiko Euskal Memoria taldea.
- ACESMA (Asociación Cubano Extranjera Sierra Maestra) elkarte multikulturala.

Emakumeen taldeak 4 talde

- Andraitz emakume feministen taldea.
- Txantxikuar feministak.
- Abixaran emakumeen korrika taldea.
- Alargunen taldea.

Dendarien Elkarte

- Txanda Txantxiku dendarien elkarte.

Zero zabor taldea

- Oñati Zero Zabor Plataforma

Gobernuz Kanpoko Erakundeak

- Banoia-Chernobilekin GKE
- Hermansoloña GKE
- Bulumba GKE.
- 7 Udaberri GKE.

Euskal Herriko mugimendu politikoaren lotutako taldeak

- Internazionalistak
- Oñatiko Herrira Taldea.
- Mirentxin Taldea.

Egoera berezian dauden taldeak

- Laixan Euskara elkarte (2009tik ez dago jardunean, baina ez da desegin)
- Oñatiko Gazte Asanblada (2012ko martxoan desegin zen, eta orain berri bat sortzeko prozesuan dabil)ta)

Kontsumo taldea

- Bhaserriak. Oinatiko kontsumo taldea.

Adimen Urritasuna dutenentzako aisialdi taldea

- Txolarte (Atzegik kudeatua)

Irisgarritasun arkitektonikoaren aldeko taldea

- Trauti elkarte

6.2- GENERO IRIZPIDEAK TALDEETAN

Genero desberdintasunen gaia, gizartean asko aipatzen den gaia izan arren, gai nahiko ezezaguna dela esan daiteke. Herriko talde askotan eta hauen funtzionamenduan berdintasuna lanerako ardatz ez izatearen arrazoietakoa bat da.

Batetik, emakumeen eta gizonezkoen egoeren arteko desberdintasunak identifikatzeko arazoak daude, eta aldi berean, hauei garrantzia kentzeko joera dago. Emakumeek gizonen menpeko diren gizarte egitura batean, egoera hori da normalizatu dena, gizarteko arau bilakatuz, eta honenbestez, egitura hori zalantzan jartzen denean berdintasuna aldarrikatuz, gizarte osoa aldatzea esan nahi du eta horren aurrean babes mekanismoak sortzen dira. Aldaketak ezegonkortasuna esan nahi du, trantsizioa, eta gizarteak egonkorrerako joera duenez, mesfidantzak sortzen dira.

Bestetik, kontuan hartu behar da, gure gizarteak berdintasunerako bidean azken mende erdian aurrerapen esanguratsuak ezagutu dituela. Emakumeek lan merkatura salto egin izana, eta legedia eta eskubideen aitortza oso esanguratsuak dira.

“Ze nik niretzako gaztetatik, nik ikusten dut zuek zaudetela asko ere preparatuago. Daukazuela gauza askoz ere samurrago, niretzako, lanera sartzeko ere baina guk gaztetatik eduki dugu hor traba bat. Hor lehenengotan gainera ere bakarrik ere mutilak ere, adibidez etxean gu bi ahizpa eta anaia bat. Ba bakarrik estudiatu zuen anaiak. Mutila zelako. Eta ez nire familian bakarrik, hori zen generala, eta orduan nik lehendik hona ikusten dut izugarritzko aurrerapena. Eta orain hartzen dut papel bat eta kasi kasi esaten dut, eta hauek zer behar dute? (barreak)” -Herritarra, emakumea-

Aldaketa horiek garrantzitsuak izan dira, baina desberdintasunak antzematen dira hala ere. Legez aukera berdintasuna egoteak ez du esan nahi errealitatean berdintasuna bermatua dagoenik. Genero rol eta estereotipoek indar handia dute guregan eta mundua ikusteko modua horren araberakoa izaten da.

Oñatiko taldeetan berdintasuna esplizituki kontuan hartu ez izanak, ez du esan nahi gauzak modu desberdintzailean egiten direnik. Batzuetan, dinamika propioek, edo bakoitzaren kontzientzia mailak, gauzak modu parekide batean egitera eramaten dute. Errealitate desberdinen kontzientzia izateak ordea, desberdintasun egoerak beti ekiditen eta berdintasuna sustatzen laguntzen du. Eta herritar guztien ardura da azken batean aukera berdintasuna.

Atal honetan, Oñatiko elkarte desberdinetako kideekin antolatutako talde-eztabaidatik ateratako hausnarketa orokor eta iritzi pertsonalak aterako ditugu. Norabide honetan, talde batzuetan, emakumeek behar bereziak dituztela antzematen da, baina ez da orain arte neurri zehatzik hartu. Elkartasun taldeek eta bazterkeria egoerak jasaten dituztenekin lan egiten duten taldeek antzematen dute hori gehienbat, bazterketa egoera bizi duten biztanleetatik gertuenak daudenak izanik.

“Caritasek ez du inoiz planteatu berdintasunaren gaia. Beste gauza bat ikusten duzula pobrezia, karentzia bat, orokor bat, afektiboa, baina poblazio horrekin gabiltzalako. Eta egia esan ikusten dugu pobrezia hori behar hori emakumeei gehiago afektazen diena.”

-Caritaseko taldekidea-

Caritas, eta Acesma taldeetako kideek antzematen dute batez ere. Caritasera laguntza bila joaten direnen gehiengoa emakumea da; musulmanen kasuan gizonezkoak joaten dira lehendabizi. Langabezia handia denez pobrezian edo pobrezia arriskuan bizi direnen artean, gatazka egoera asko ematen direla diote, tartean, genero indarkeria izaera dutenak.

ACESMAkoak berriz, immigrazio talde bat izanik, gehienak hegoamerikarrak, krisia gogor pairatzen ari diren kolektibo bat izanik, gertutik bizi dute bazterketa arriskua. Kasu honetan, emakumeek lana dute, etxeko lanetan eta familiaren irautearekin lotutako lanpostuetan dihardutelako. Gizonezkoek berriz, aspaldi etorri eta lantegietan fijo egin zituztenak izan ezik, besteek, nekez topatzen dute lanik. Gizonezko hauek emakumearen (emaztearen, neskalagunaren) kontura bizirauten dute, eta horrek hauengan frustrazioa sortzen du; euren maskulinitasun ereduari gizona da familiaren gidaria, eta egoera honetan, familiaren kontrola galtzen dutela sentitzen dute. Egoera berri honek, elkarrearen funtzionamenduan aldaketak ekarri ditu hala ere: egun, antolatzen diren ekintza gehienetan, antolakuntzan zein ekintzetan parte-hartzen gizonak ibiltzen dira. Libre daudenez, beraiekin lan egiteko denbora dago.

Hermasaloña elkartasunezko jardunari lotua dagoen elkarteetako bat da. Kasu honetan Argentinara bidaltzeko baliabideak jasotzen dituzenez, ez du bertako populazio behartsuarekin kontaktu zuzenik. Elkartearen bertan gizonezkoak eta emakumezkoak badaude ere, gehiago dira emakumeak.

Jubilatuak elkarteak egoera sozioekonomiko oso desberdinetako pertsonak bateratzen dituzte. Partaideen beharrak ere oso desberdinak izaten dira. Kontuan hartu behar da, adineko pertsonen osatuta dauden taldeak direla, eta hauetan genero rolen banaketa oso markatua egoten dela. Botere guneetan, hau da Juntan gehiengoa gizonezkoak dira. Gizonezkoek erabakiguneetan egoteko duten esperientziari, kasu honetan juntako lanak jarraitzeko zailtasunak izaten dituzte emakumeek; etxeko lanak egin nahiz bilobak zaindu behar izaten dituztelako. Antolatzen dituzten ikastaroetan, gizon zein emakumeek parte hartzen badute ere, nabari da ekintza batzuk emakumeentzat eta beste batzuk gizonen zuzenduak izaten direla. Hitzaldietan, emakumeek parte hartzen dute adibidez. Pake Leku elkartearen erabilera ere ordutegien arabera desberdina izaten da. Astegun goizetan gizonezkoen eremua dela esan daiteke adibidez, bazkalondoan ere gizonak biltzen dira bertan kartetan egiteko.

Kirola da, desberdintasuna ikus daitezkeen beste taldeetako bat. Gizonezkoak gehiago izaten dira kirol talde eta elkarteetan. Taldean modu lehiakorrean dabilzan talde gehienak mutilez osatutakoak izan ohi dira. Badaude horrelako emakumeen taldeak ere, baina oztopoak bilatzen dituzte hainbat arrazoiengatik: emakumeen ez-konpetitibo rolangatik, gaztetxotan emakumeek kirola egiteari uzten diotelako egotzitako roleri jarraiki (gorputza dela, ikasketak direla, etab.) eta familia eta aisialdiaren bateratzeko arazoak dituztelako

horrelako taldeetan sartuz gero.

Atzera begira jarriz gero, elkarte eta talde ia guztiak gizonezkoenak zirela ikus daiteke. Oinordekotzan jaso da hori, eta ikusten da, oso karakter maskulinoa izan duten elkarteetan emakumeen parte-hartzea txikiagoa dela. Are gehiago, oraindik badaude elkarte batzuk emakumeak bazkide izateko aukerarik ez dutenak. Euskal Herrian honen adibide nagusi eta ezagunenak **elkarte gastronomikoak** dira. Oñatin bertan, 17 daude. Une honetan ez badakigu ere, elkarte hauen estatutuak nola dauden, hauetako batzuetan emakumeak onartu ahal izateko borroka egin behar izan zuten.

“Orain 12 urte ni geratu nintzen alargun. Nere senarrak zeukan soziedade bat. Orduan, esan zidan, ni geratuko nintzela, senarraren orde. Eta esan zidaten: ez, ez ez. Orain arte ez dugu emakumerik hartu eta beste kasu abt ere egon zen baina ez zen onartu. Beno, ba akaso geroago. Eta niri geroago ez zitzaidan interesatzen. Nik gura dut orain”. -Herritarra, emakumea-

Emakumeen egoeraz arduratuta sortutako taldeak ere badaude. Izaera desberdinetakoak dira, arazo konkretuei irtenbidea emateko sortuak, eta arazoa modu integralean ulertuta, berdintasuna lortzeko helburuz sortuak. Lehenengo talde horretan daude, Oñatiko Alargunen Taldea eta Abixaran Emakumeen korrika taldea. Eta bigarrenen, Txantxikuar Feministak emakume gazteen taldea eta Andraitz emakume taldea. Oñatiko Emakumeen Asanblada ere egon zen garai batean, baina dagoeneko desagertuta dago, eta talde hartako partaide batzuk Andraitzen dabilta egun.

Emakume Alargunen Taldea, izenak esaten duen bezala, adineko emakume alargunez osatutako taldea da. Euren lan-bizitzan gizarte segurantzian kotizatu ez eta alargun geratzean oso ordainsari txikia geratu zaien emakumeak dira. Horrekin batera, garaiko rolek eraginda, euren gizarte bizitza senarrarekin batera egin zuten gehien bat, eta etxea sentitzen dute euren egoteko lekutzat. Alargun geratzean, askok gizarte-bizitzari uko egiten dio, ez duelako lagun sarerik eta ez duelako dirurik aisi denboran ezer kontsumitzeko. Ondorioz, gizarte bazterketa jasateko arrisku handian geratzen dira, are gehiago familia babesik ez dagoen kasuetan. Emakume hauen egoera salatzeko, eta egoera honetan dauden emakumeen lagun sarea eskaintzeko sortu zen taldea.

Abixaran emakumeen korrika taldea bestelako beharrak asetzeko sortu zen. Emakumeak elkarrekin korrika egitera ateratzea, lasterketetara joatea, emakume gazteen artean emakume kirolarien eredia ematea eta lagun-sarea osatzea ditu helburu. Ez da talde moduan helburu zehatzekin osatutako talde bat. Elkarrekin topo egin eta forma hartzen joan den talde bat baizik. Kirola, aisia eta lagunartea uztartzea lortu dute horrela.

“Halako karrerara nahi duzu joan eta halako karrerara etorri nahi duzu nirekin... Eta beti harekin zoaz, edo bikotearengana, edo anaiarengana, eta etorri nirekin. Eta gainera hura etorriko da zure pausoan. Eta esaten duzu, nik ez dut inor behar nire pausoan joango dena! Nik joan behar dut eta beno, neska talde bat lagun talde bat eta horrela sortu zen taldea. Orain urtebete hasi ginen lau zoro eta ia gehiago gara.” -Abixaraneko partaidea-

Gizonezkoekin alderatuz, emakumeek hartzen dute gaur egun ere familiaren karga. Gizonezkoek aisiarako denbora gehiago hartzen dute, eta baita kirolerako ere. Abixaran taldeko emakume batzuk seme-alabak dituzte, eta euren familia bizitza eta kirola uztartuz, lagunartean kirola egiteko modua bilatu dute horrela. Ordu bat jartzen dute eta libre dagoenak aukera du bertaratzeko:

“Mutilak normalean kirola egiteari ez dio uzten. Neskak bai. Eta familia baldin badauka hori aurrera atera arte eta umea ia... gobernatzeko gai diren arte etxean geratzen gara. Lehentasun kontua da, mutilentzat arratsaldeko 5etan, goizeko 7etan, eguerdiko ordu 1ean, edozein ordutan da ona joateko korrikan. Joño! Ba nik beste gauza batzuk dauzkat egiteko, eta gero joaten naiz. (...) Eta horregatik gara oso anarkoak. Ze bakoitzak dauka bere ordutegia, bere familia, eta ahal duzunean banoa.” -Abixaraneko partaidea-

Gizonezkoek ez bezala, kirola lehiakortasun moduan baino laguntasun moduan ulertzen dutela azpimarratzen dute emakumeek. Izan ere, lehiakortasuna egon badagoen ere, eurentzat hori ez da kirola egiteko arrazoi nagusia euren. Eta kirol maskulinoaren ereduaren aldean, eurena gogokoagoa dute.

Berdintasunaren alde lan egiteko sortutako taldeek bestelako ibilbide bat izan dute. Kasu honetan, desberdintasuna gizarte esparru guztietan ematen dela ulerturik, harreman horiek aldatzeko ekimenak bultzatzeko asmoarekin sortuta taldeak dira. Bi kasuetan, emakumez osatutako taldeak dira, ulertzen baitute emakumeek bizi dutela menpekotasun egoera hori eta emakumeek eurek bizi duten errealitateak eta ikuskeratik lan egin behar dela.

Txantxikuar feministak taldea, neska gazteez osatutako taldea da. Bere aldetik ekintza desberdinak antolatzen dituzte, eta ekintza batzuetarako Andraitz taldearekin edota Udalarekin elkartzen dira. Antolatutako ekintzen artean daude martxoak 8ko edo ekainaren 28ko ekintzak, baina egun seinalatueta ez ezik, jaietan ere aldarrikapenak egin izan dituzte: abortuaren aurkakoak, feminismoaren aldekoak, etab.

Andraitz emakumeen taldea berriz, 2011n sortu zen hauteskunde kanpainaren bueltan, berdintasun gaiaren inguruko lan taldea sortuz eta hurrengo gobernualdian parekidetasunaren aldeko urratsak emateko eskatuz. Hauteskundeak igaro zirenean, non lan egin bazegoela ikusirik, taldeak aurrera jarraitzea erabaki zuen. Egund emakume talde independentea bada ere, Udalarekin harreman estua du, eta berdintasun arloarekin elkarlanean antolatu ditu ekintza asko eta asko. Orain arte antolatutako ekintzen artean esanguratsuenak berdintasunaren aldarrikapenerako erabiltzen diren egun seinalatuak izan dira: hala nola, azaroaren 25a, martxoak 8a edo ekainaren 25a. Elkarretaratzeak deitu dituzte eta bideo emanaldiak antolatu dituzte.

6.3- PARTAIDETZA MEKANISMOAK

Udalak 2011ko ekaina ezker, herritarren parte-hartzea sustatzeko, “Herrijorran” proiektua jarri zuen martxan. Herria herritarren artean egiteko helburuarekin, gai desberdinen inguruko eztabaidaguneak sortzen dira.

Parte-hartze guneetan herritarra den edonork parte har dezake. Deialdi orokorrak egiten dira, nahi duenak parte har dezan. Informazioa emateko eta parte-hartze hori dinamizatzeko webgune bat ere badago martxan.

Udaleko sail bakoitzak parte hartzerako gune bat du zabalik. Eta horietako bakoitzean, nahi beste prozesu jar daitezke abian. Sail bakoitzak bere erara antolatzen ditu hauek, eta honenbestez ez dago lanerako modu bateratu bat non berdintasuna kontuan hartzen den.

Parte hartze prozesu hauekin gizarte erronkei aurre egitea bilatzen da. Erronka horien artean parekidetasuna lortzearena dago. Horregatik, “Herrijorran berdintasuna” dago. Herriko emakume talde feministek parte hartzen dute batik bat. Gainontzeko prozesuetan, ikuspegi feminista ez da beti kontuan hartzen. Ez hauetan ematen den parte-hartzeari dagokionean, eta ezta eztabaidatzen ari diren gaiak nola eragiten dieten emakumezkoei eta gizonezkoei baloratzeko eta desberdintasunak badaude zein neurri zuzentzaile hartu erabakitzeko ere.

Udaleko zinegotziekin egindako elkarrizketan, iritzi orokorra zen partehartze prozesuetan gizonek emakumeek baino presentzia handiagoa zutela. Ekintza kulturaletan parte hartzen duten gehiengo emakumeak diren arren, arlo honetako parte-hartze prozesuan emakume gutxi agertu ziren. Fenomeno berdina errepikatu da Gazteria arloan, Auzoak eta Landa garapenerako foroan, ingurumenean eta atez ateko parte-hartze prozesuan, besteak beste. Honen atzean arrazoi desberdinak egon daitezke, eta bereziki haurrak dituzten emakumeetan nabaritzen da hutsune handiena. Musika Eskolako batzarretan, ordea, emakume gehiago biltzen dira, agerian gelditzen delarik zaintza eta umeak tarteko daudenean emakumeek erabaki prozesuetan parte hartzea lehenesten dutela.

“Aurrokontu parte-hartzaileetako bilera danak arratsaldeko 7:00retan (ziren), komenta eiten geben, ba tamalez, karga familiarra askotan emakumeek bakarrik dauka bere gain, umeak eskolatik urtetan deue, eraman behar zaie ez dakit nora, gero afaiten... (...) ta goizeko 10:00tan bilera bat jarten dozu eta igual emakume geixau dauz.”
-Sozio-ekonomia, hirigintza eta zerbitzuak zinegotzia-

Dena den, amatasunatik haratago, beste balore kultural batzuetan jarri beharko genuke arreta; izan ere, gazteen artean patroia bera erreproduzitzen da: Gaztelekuari irtenbideak emateko parte-hartze prozesuan ez zen ia emakumerik agertu.

*“Konturatu giñen, zeozter egin behar dugu kolektibo hau agerteko, eta zer egin daitekeen? (...) Konturatu egin giñan horrekin eta ikusi geben, zeozter egin behar degu emakumeak bebai etorteko, ze inportantea da, baiña ez geben jakin zer egin.” - **Gaztedia***

teknikaria-

Parte-hartze prozesuek ordezkagarritasuna bilatu behar dute benetan herritarren beharrei egokitzeko, eta emakumeak erabakitze prozesu hauetatik kanpo gelditzen badira, erabakiak ez daitezke herriaren ordezkari kontsideratu. Horregatik, beharrezkoa da emakumeek parte-hartze prozesu hauetan ez egoteko dituzten arrazoiak aztertu eta irtenbideak ematea. Norabide honetan, parte-hartze prozesuen inguruko formakuntza saioak burutu diren bezala, genero gaiaren inguruko formakuntza tailerrak antolatzea lagungarria izan daitekeela deritzogu.

Herriaren partehartzearekin Oñati hobe bat eraikiz

Castellano

Hasiara | Agenda | Sailak | Foroa | HerriJorran | Iradokizunak | Dokumentuak

UDAL GOBERNU TALDEAK HERRITARRENTZAKO AURREZ AURREKO ARRETA ZERBITZUA DAUKA MARTXAN

Ostiralean 15:00tatik 19:00tara
Aurretik hitzordua hartzea eskatzen da.
Hitzordua hartzeko: [943 78 04 11](tel:943780411) edo partehartzea@oinati.net

DOKUMENTUA JEITSI

ATEZ ATE AUZOZ AUZO
Informazio bileretako Aurkezpena

ERABILTZAILAK

Erabiltzaile-izena
Pasahitza
Gogoratu
Saioa hasi

- Pasahitza ahaztu duzu?
- Erabiltzaile izena ahaztu duzu?

23. irudia: www.herrijorran.info webguneko ataria.
Iturria: Oñatiko Udala.

6.4- LABURBILDUZ -Herriko elkarte eta taldeak-

AHULGUNEAK

- Taldea eta elkarte batzuetan berdintasuna kontu ezezaguna da; ondorioz ez dute berdintasuna bermatzea eta sustatzea lanerako ardatz hartzen.
- Berdintasuna lortua dagoenaren ustea zabaldua dago taldeen artean.
- Taldea eta elkarteetako bazkideen zein hauek antolatzen dituzten ekintzetako partehartzea oso generizatua dago oro har. Batzuetan gehienak neskak dira eta besteetan gehienak gizonezkoak, lantzen duten gaiaren arabera.
- Emakumeek asialdirako ekintzetarako eta herri mugimenduetan ibiltzeko arazoak dituzte familia bizitzarekin uztartu behar dutenean.
- Herri-jorran partehartze prozesuetan, berdintasuna helburu gisa ez da sail guztietatik bideratutako ekintza guztietan dagoen zerbaite.

ARRISKUAK

- Elkarte eta talde batzuk euren antolamendurako lanak izaten dituzte denbora eta balliabide aldetik: berdintasun foroetan parte hartzeko arazoak izan ditzakete.
- Taldeen berdintasunaren aurkako jarrera aurkeztea eta berdintasuna sustatzeko ekintzak gauzatzeari uko egitea.

INDARGUNEAK

- Emakumeen elkarteak daude: emakumeen bitzita sozialean eragiten du, elkartruckerako guneak sortuz eta lagun-sareak sortuz.
- Elkarte feministak daude. Herri mailan berdintasunaren aldeko inplikazioa duten taldeak daudela erakusten du horrek, eta antolatzen dituzten ekintzekin, Oñatin aldarrikapen feministen oihartzuna izatea lortzen dute.
- Herri-eragile zabala eta anitza dago.
- Emakumeekin lan egin beharra detektatu dute zenbait taldek: diskriminazio anitza jasaten duten pertsonekin lan egiten duten taldeetatik batez ere.
- Elkarte gastronomiko batzuetan emakume batzuk ez zuten bazkide izateko aukerarik; hori aldatzen joan da, eta emakumeak tradizionalki gizonezkoenak izan diren espazioetan sartzen joan dira.
- Udal politikariek emakumeen parte hartze defizita identifikatu dute.

AUKERAK ETA PROPOSAMENAK

- Taldeen berdintasuna sustatzeko berdintasunaren inguruko kontzientzia pizteko ekintzak gauzatu: foroak sortu, aholkularitza, ekintza espezifikoak, etab. Udaletik zein talde feministen bidez egin daiteke.
- Udalak berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituzten taldeak saritzea.
- Herri-jorran prozesuetan, berdintasuna bultzatzeko neurriak hartu.

IV

ONDORIOAK



Txostenean zehar jasotako informazioa kontuan hartuz, atal guztietako ondorioak jaso eta elkargurutzatuz Oñatiko berdintasunaren egoera modu integralean ulertzeko gakoak biltzea da. Horretarako, eta kontuan izanik diagnostiko honen helburua Oñatiko emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko plana egitea dela, Emakundek zehazten duen V. Berdintasun Planaren¹⁰ egitura jarraitu da.

V. Plana bi atal nagusitan banatzen da, bakoitzerako eskuhartze mota desberdinak proposatuz:

-Mainstreaming eta gobernantza.

Mainstreaming-a Emakundek jasotzen duen moduan “esanahi desberdinak hartzen ditu, definizioan azpimarratzen dituen osagaien arabera: emakumeen eta gizonen artean ezberdintasunak daudela aitortzen duen ikuspegi gisa uler daiteke (bizi baldintzetan, egoera sozial, ekonomiko eta kulturean eta beharretan) eta, beraz, politika publikoak erabakitzean, antolatzean, gauzatzean ere ebaluatzean ere islatzen direla, berdintasuna lortze aldera. Era berean, estrategia gisa uler daiteke, berdintasuna agintari publikoen jardueretako esparru eta ekintza guztietan aplikatu nahi duena. Estrategia hori prestatzeko prozesua konplexua da, eta beharrezkoa da erabakiak hartzeko orduan eragile instituzionalen eta sozialen lankidetzeta eta adostasuna jasotzea, eta prozesu horretan emakumeek ere parte hartzea. Hori guztia kontuan hartuta, honela definitu ohi da *mainstreaminga*: «Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasunaren ikuspegia» (Europako Kontseilua, 1998)”.

Gobernantza berriz, herri-agintarien esku hartzearen eraginkortasuna, kalitatea eta ildo egokia adierazteko, eta beren zilegitasuna aitortzeko erabiltzen da. Gobernatzeko modu berria dela ere esaten da. Gobernantza kontzeptuak erabakiak hartzeko eta erabaki horiek gauzatzeko prozesuan jartzen du arreta; hau da, administrazioak berdintasunerako politikagintzan ildo ona ziurtatzeko abian jartzen dituen mekanismoak aztertzen ditu.

Beraz, administrazio publikoetan berdintasuna sustatzeko ekintzak proposatzen dira.

-Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak.

Hiru ardatzetan banatzen dira neurriak. Emakumeen jabekuntza bultzatu eta balioak aldatzeko neurriak, antolakuntza sozial eta erantzunkidea lortzeko ekintzen diseinuan, eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko eta honekin amaitzeko programetan. Administrazioan zein herriko beste eremuetan aplikatzeko neurriak dira.

10 EMAKUNDE (2010) EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak, Gazteiz, Eusko Jaurlaritzza.

Atal hauetako bakoitzean landuko liratekeen egoerak egun nola dauden jasotzen dira jarraian zehaztutako ondorioetan. Horretarako, bi atal banatu ditugu aurrez azaldutakoari jarraituz.

- Udalaren funtzionamendua emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionean
- Oñatin berdintasunaren egoera kontzientzia mailaren, erantzunkidetasunaren eta genero idarkeriaren arloan.

Ondorioak, ondorio orokorrak dira. Arlo bakoitzerako ondorioak jasotzeko, arlo bakoitzeko azterketaren amaieran topa daitekeen laburbilduz atala kontsultatu daiteke.

UDALAREN POLITIKAK BERDINTASUNERA BIDEAN

-Datuak jaso eta estatistikak egiterakoan oro har ez da jasotzen sexuaren aldagaia, eta ondorioz aldaketarako planak egiteko hutsuneak identifikatzeko beharrezkoak diren ikerketak eta azterketak egitea zailtzen da.

-Berdintasuna bermatzea ez dago agenda politikoaren arlo guztietan. Berdintasun batzordean soilik egiten da modu erregular batean. Beste kasuetan, noizbehinka ager daiteke baina ez da lanerako printzipioaren arabera. Beste faktore batzuk eragiten dute: beste herrietako ereduak hartzea, teknikarien edo herritarren kontzientziak, etab.

-Emakumeen partehartzea maila politikoan eta erabakiguneetan bermatua dago. Hala ere, batzordeburu gehienak gizonezkoak dira. Genero rol tradizionalen araberrako banaketa nabari da batzordean lantzen den gaiaren araberrakoa dena.

-Udalak herritarrekin antolatzen dituen parte-hartze prozesuetan ez da berdintasun printzipioa kontuan hartzen, eta emakumeen presentzia bermatzea ere ez da bilatzen.

-Hizkera eta irudi sexistak erabiltzea ekiditeko ez dago araudirik, eta oro har, oso ageriko diskriminazioak kenduta, arazoak daude zer den adierazpen sexista bat ulertzeko.

-Sailen arteko koordinaziorako lan-taldeen sistema dago. Horrek langileen eta sailen arteko funtzionamendua hobetzen du. Berdintasuna arlo guztien egitekoa denez lan-taldeen sistemak balio dezake berdintasun arloan ere koordinazioa emateko.

-Udaleko politikarien eta langileen artean arazoak daude gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoerak identifikatzeko. Berdintasunaz hitz egiten denean zer den ezagutzen ez delako da hori, eta ondorioz okerreko irakurketak egiteko joera dago. Berdintasunaren inguruko oinarrizko kontzeptuen inguruko prestakuntza behar da eta berdintasuna arlo desberdinetan nola sustatu jakiteko irizpideen inguruko aholkularitza edota formazioa behar da.

BERDINTASUNAREN EGOERA OÑATIN

KONTZIENTZIA MAILA

- Udalak ongizate zerbitzuaren bidez emakumeentzako ahalduentze ikastaroak antolatzen ditu.
- Udalak eta herriko elkarte feministek elkarlanean berdintasunaren aldarrikapena egiten dute horretarako nazioartean erabiltzen diren egunetan.
- Ikastetxeetan hezkidetzak landuko da 2012-2013 ikasturtean.
- Laneratzeko programetan emakumeen lantzat jo ez diren lanetan aritzeko, diskriminazio positiboa egin izan zaie emakumeei Udalaren enplegu zerbitzuetatik, horrela estereotipoak aurre eginez.
- Lan munduan, batez ere industrian zuzendaritza postuetan eta sindikatu-erakundeetako komiteetan gehiengoak dira.
- Emakumeek oro har, gizonenak baino lan baldintza eskasagoak dituzte (solda txikiagoa, lanaldi murriztuak, etab.).
- Pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden gehiengoak dira. Honenbestez, Udaleko gizarte zerbitzuen onuradun gehienak emakumeak dira. Hauen kontzientzia maila txikia da normalean.
- Diskriminazio anitza jasaten duten kolektiboaren artean, genero-rol tradizionalen banaketa oso markatua agertzen da (etorkinak eta pobreak direnak, urritasunak dituztenak, ezgaituak direnak eta menpekotasunak dituztenak eta familia babesik ez edota baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak, etab.). Horrek ez du esan nahi egoera ekonomiko hobean dauden artean estereotipoak eta rola beste modu batean ulertzen direnak. Egoera hauetan askoz ere agerikoagoak direla baizik.
- Diskriminazio anitza jasaten duten kolektiboetako emakumeen egoera ekonomiko eta soziala hobetzeko aukera kaskarragoa da gizonenak baino (emakumezko alarguna izatea, emakume langabea, etab.).
- Lau emakumeen elkarte daude. Horietatik bik elkarte feministatzat dute euren burua, herrira begirako ekintzak antolatzen dituzte eta Udaleko berdintasun batzordearekin harremana dute. Talde guztien arteko koordinaziorik ez dago.
- Herriko elkarte eta taldeetan oro har ez dago berdintasuna sustatzeko talde kontzientziarik. Hauetako batzuetan zuzendaritza taldeak daude, eta askotan erabakigune horietan gizonenak dira gehiengoak.
- Udalak, elkarteek zein taldeen antolatzen dituzten ekintzetan partehartzaileen profila berbera izaten da ekintza mota bakoitzerako, eta generoaren araberrako banaketa ematen

da; lantzen den gaia gizonezkoen gaitzat hartzen den kasuetan gizonezkoek parte hartzen dutelarik hauetan, eta emakumeen gaitzat kontsideratzen direnetan emakumeak joaten direlarik.

-Oro har, herri mailan ez dago berdintasunaren inguruko kontzientziarik.

ERANTZUNKIDETASUNA

-Puntualki ekintzaren batean, Udalak zein elkarteren batek haurtzaindegi zerbitzua eskaini du ekintzaren bat jarri duenean.

-Emakume batzuk lanaldi partzialak hartzea erabakitzen dute familia bizitzarekin bateratzeko: gizonezkoen kasuan arrazoi hori tarteko lanaldi murriztua aukeratu duen inor nekez aurki daiteke. Aitatasun bajak ere oso gutxik hartzen ditu: ia beti emakumeek hartzen dituzte.

-Oñatiko emakumeek gizonezkoek baino ardua gehiago hartzen dituztela diote familiako lanei eta etxeko lanetan aritzeko. Ondorioz gizonezkoek baino aisirako denbora gutxiago dute.

-Ez da egin erantzunkidetasunaren kontzientzia pizteko kanpainarik herrira, taldeei eta enpresei begira.

-Oñatiko emakumeen kaleko eta elkarteko bizitzan partehartzeko oztopoak dituzte familia kargak direla-eta. Gizonezkoek ez dute hori aipatzen.

-Herritarrei zuzendutako ekintzak antoaltzerakoan kontuan hartzen da nori zuzenduta dagoen ordutegi horretan antolatzeke, baina bateragarritasuna ez da kontuan hartzen.

-Oñatiko enpresetan erantzunkidetasuna sustatzeko neurririk hartu den jakiteko azterketarik ez da egin.

GENERO INDARKERIA

-Ikastetxeekin batera jaietan genero indarkeriaren aurkako ekintzak egiten dira (pegatina banaketa) herrira begirako kontzientziazio lana egiteko, eta prebentzio moduan.

-Ikastetxeetan egingo den hezkidetzak programak genero indarkeriaren aurrean kontzientzia piztea du helburu besteak beste.

-Nazioarteko emakumeen aurkako indarkeriaren egunean herritarren sentsibilizaziorako ekintzak gauzatzen dituzte Udalak eta herriko talde feministek.

-Genero indarkeria jasandakoei arreta ematen zaie Gizarte zerbitzuetan, Udaltzaingoan eta Osasun zentroan. Beharrezko aholkuak eta bideraketak egiten dira hauen bidez. Haez gain, Bergaran dagoen ertzain etxean ere ematen diete arreta eta hauek ere

emakumeak beste zerbitzuetara bideratzen dituzte.

-Gizarte zerbitzuetan indarkeria jasandako emakumeei arreta emateko eredu bat jarraitzen da, nahiz eta araututako eredu bat edo protokolo ofizial baten izaera ez eduki.

-Ez dago emakumeenganako indarkeria jaso dutenei arreta ematen dieten zerbitzuen arteko koordinaziorako eredu arauturik, eta detekzio eremuen eta zerbitzuen arteko koordinaziorik ere ez.

-Genero indarkeriaren gaiaz gutxi hitz egiten da herriko esparru desberdinetaz. Bikotearen harremanen esparruan gertatzen den zerbait pribatua edo intimoa bezala kontsideratzen da eta ez zaio aurre egiten arazo kolektibo moduan. Hala ere badago diskurtsoa bat honen aurka.

-Sexu abusutik edo abusu fisiko oso agerikoetatik kanpo geratzen diren erasoak kokatzeko zailtasunak daude.

TAULEN INDIZEA


1. taula: Oñatiko biztanle kopurua sexuaren arabera. 2001-2012.....	9
2. taula: Oñatiko biztanle kopurua sexuaren arabera. 2012.....	12
3. taula: Langabezia erregistratuta aurretik lan egindako lan sektorearen eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.	25
4. taula: Langabezia erregistratua ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.	26
5. taula: Oñatiarrei eginiko lan kontratuak, kontratu motaren eta sexuaren arabera. 2012.....	30
6. taula: EAEko langile guztien artean ekonomia murgilduan dihardutenak sexuaren arabera. 2002. (%).....	32
7. taula: EAEn egindako kontratu motak sexuaren arabera. 2010. (%).....	33
8. taula: EAEn orduko soldata sektorearen eta sexuaren arabera. 2009.	33
9. taula: EAEn urteko soldata sektorearen eta sexuaren arabera. 2009.	34
10. taula: EAEn jarduerarekin, prestakuntzarekin eta sexuarekin duten harreman motaren arabera pertsona bakoitzak jasotzen duen batez besteko soldata godina (eurotan). 2012.	34
11. taula: Parte hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora etxeko lan motaren, egunaren eta sexuaren arabera EAEn. 2008.	37
12. taula: Nola banatzen duzu denbora lanegun batean? Galderaren erantzunak zeregin bakoitzeko orduen arabera.	38
13. taula: Oñatiko ikastetxeak eskaintza eta izaeraren arabera. 2010-2011 ikasturtea.....	43
14. taula: Txiki-Txokoko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.	44
15. taula: Errekaldeko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.....	44
16. taula: Zuazo Larrañako irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.	44
17. taula: Txantxikuko irakasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.....	44
18. taula: Oñatiko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle kopurua (Elkar Hezi gabe) sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.	45
19. taula: Txiki-txokon matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea. .	45
20. taula: Errekalden matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea. ...	45
21. taula: Zuazola Larrañagan matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011	

ikasturtea.....	46
22. taula: Txantxikun matrikulatutako ikasle kopurua sexuaren arabera. 2010-2011 ikasturtea.	46
23. taula: Eskola kirola egiten duten umeak sexua eta burutzen duten jardueraren arabera. 2010-2011 ikasturtea.....	48
24. taula: Gobernu taldearen osaketa eta taldearen eta sexuaren arabera. 2011-2015.....	51
25. taula: Batzorde lehendakariak sexuaren arabera. 2011-2015.....	52
26. taula: Langileak sexuaren eta sailaren arabera. 2012ko uztaila.	55
27. taula: Lanpostuaren mailaren arabera langileak sexuaren arabera. 2012ko ekaina.....	55
28. taula: Batz besteko soldatak lanpostuaren mailaren eta sexuaren arabera. 2011-2015.....	56
29. taula: Udal departamentuetako langileen soldata indizearen arabera kalkulatuta (2537=100) eta sexuetan sailkatuta. 2011-2015.....	57
30. taula: Batzorde lehendakariak sexuaren arabera. 2011-2015.....	58
31. taula: Liburutegiko erabiltzaileak sexuaren arabera. 2011.....	113
32. taula: Pobretasun-arriskuen tasa eta banaketa, sexuaren eta norberaren diru-sarreraren arabera. (%). 2008.....	122
33. taula: Pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia dakarten egoeren intzidentzia, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia etxebizitzetako biztanleria (%). 2008.	122
34. taula: Ezgaitasun eta menpekotasun balorazioak jasotako Oñatiarrak sexuaren arabera. ...	124
35. taula: Egoitza zerbitzua jasotako Oñatiarrak egoitza motaren eta sexuaren arabera. 2011. .	126
36. taula: Adinekoentzako programetan parte hartutako Oñatiarrak sexuaren arabera. 2011.....	128
37. taula: Familia, haur eta gazteentzako laguntzen erabiltzaileak sexuaren arabera. 2011.....	128
38. taula: Drogamenpekotasun arazoak tarteko aholkularitza jasotako pertsonak. 2011.....	130

GRAFIKOEN INDIZEA

1. grafikoa: Oñatiko biztanleak sexuaren arabera. 2012. (%)	10
2. grafikoa: Oñatiko populazio piramidea. 2012.	11
3. grafikoa: Oñatiko migrazio saldoa. 2001-2010.	14
4. grafikoa: Oñatik jasotako inmigrazioa urtearen arabera. 1990-2010.....	14
5. grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaiotako Oñatiko biztanleak jaiotako lurraldearen arabera. 2012.....	15
6. grafikoa: Oñatiko biztanleak jaiotze lurraldearen eta sexuaren arabera. 2012.....	15
7. grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaio eta Oñatin erroldatutako emakumeak kontinentearen eta adinaren arabera. 2012.....	16
8. grafikoa: Espainiar estatutik kanpo jaio eta Oñatin erroldatutako gizonezkoak kontinentearen eta adinaren arabera. 2012.....	17
9. grafikoa: Biztanleria lan jarduerarekiko erlazioaren arabera. 2010eko urtarrilaren 1ean. (%)	20
10. grafikoa: Oñatiko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboaren lan egoera. 2012ko urtarrilaren 1ean.	21
11. grafikoa: Oñatiko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboaren lan egoera. 2012ko ekaina.....	22
12. grafikoa: Langabezia erregistratua, adin tarteen eta sexuaren arabera. 2012ko ekaina.	24
13. grafikoa: 16 urte eta gehiagoko biztanle enpleguduna lan sektorearen arabera (%).	27
14. grafikoa: EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakoetan), sektorearen eta sexuaren arabera 2009an.	28
15. grafikoa: Gipuzkoan egindako kontratu motak lan-sektorearen arabera. 2009ko abuztua.	28
16. grafikoa: Oñatin gizarte segurantzako alta emanda daudenen kopurua afiliazio araubidearen arabera hilabeteka.	30
17. grafikoa: Gipuzkoako langileen gizarte segurantzako afiliazioa, afiliazio mota eta sexuaren arabera.	31
18. grafikoa: EAEn ekonomia murgilduan dihardutenak sexuaren arabera. 2002.....	32
19. grafikoa: Batzordeen osaketa sexuaren arabera. 2011-2015.	53
20. grafikoa: Genero-indarkeria kasuak tarteko hartutako Oñatiarrak. 2011.	64
21. grafikoa: Topalekuak antolatutako irteeretako parte-hartzaileen kopurua sexuaren arabera....	89
22. grafikoa: Topalekuak antolatutako lehiaketetan eta txapelketetan parte hartutakoen kopurua sexuaren arabera.....	90
23. grafikoa: Gaztelekuko informatika gelaren erabiltzaileak sexuaren arabera. 2012Ko martxoaren 1etik maiatzaren 18ra.	91
24. grafikoa: Udalekuetako haur kopurua sexuaren arabera.	96

25. grafikoa: Udalekuetako begiraleen kopurua sexuaren arabera.....	96
26. grafikoa: Informatika gelaren erabiltzaile kopurua hilabeteka sexuaren arabera. 2012ko martxotik ekainera.....	98
27. grafikoa: Oñatiko kale eta auzoen izenak izenaren izaeraren arabera.	104
28. grafikoa: Liburutegiko bazkideak, bazkide kategoriaren eta sexuaren arabera. 2011.	113
29. grafikoa: Diru-laguntzak jasotako Oñatiarrak laguntza motaren eta sexuaren arabera. 2011.	123
30. grafikoa: Telelaguntza jasotako Oñatiarrak laguntza motaren eta sexuaren arabera. 2011. ...	125



Farapi



evident:is

Farapi S.L.
grupo Evidentis